

José Ignacio Armentia Vizuete
José María Caminos Marcet
Flora Marín Murillo

Txostena: 2014

Elikagaien

Segurtasuna

Euskadiko prentsan





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

CIP. Biblioteca Universitaria

Armentia Vizuite, José Ignacio.

Elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan [Recurso electrónico]: Txostena 2014 / José Ignacio Armentia Vizuite, José María Caminos Marcet, Flora Marín Murillo. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2015]. – 1 recurso en línea (93 p.).

Modo de acceso: World Wide Web.

En cub.: Elika, Fundación vasca para la Seguridad Agroalimentaria.

ISBN: 978-84-9082-181-7

1. Alimentos - Industria y comercio – Calidad. 2. Prensa - País Vasco. I. Caminos Marcet, José María, coaut. II. Martín Murillo, Flora, coaut. III. Elika.

070:664(460.15)

664:070(460.15)



Azterlan hau Gizarte Unibertsitateko ikerketa-proiektu baten baitan egin da, UPV/EHUren eta ELIKAREN (Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa) finantzazioarekin (erref.: US14/13). Kazetaritzako Ikerketa Talde Kontsolidatu batek egin du, Eusko Jaurlaritzaren finantzazioarekin (erref.: IT573-13).

Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9082-181-7



AURKIBIDEA

HITZAURREA: Elikagaien Segurtasunaren arloko komunikazioa	4
1. KAPITULUA: helburua eta aurreikusitako emaitzak	5
2. KAPITULUA: azterlanaren faseak	6
2.1. Elikagaien Segurtasuneko gaiak aukeratzea	6
2.2. Baliabide idatziak aukeratzea	7
2.3. Albisteak bilatzea eta aukeratzea	9
2.4. Albisteak kategorizatzea eta azterzea	9
3. KAPITULUA: Emaitzak	10
3.1. Elikagaien Segurtasunaren presentzia aztertutako egunkarietan	10
3.1.1. Albisteen banaketa hilabeteka eta egunkarika	10
3.1.2. Egunkari bakoitzeko datuen banaketa, hileka	11
3.2. Kalitatea eta zehaztasuna albisteen edukian	14
3.2.1. Elikagaien Segurtasuneko gairik ohikoenak	14
3.2.2. Albisteen banaketa, atalen arabera	17
3.2.3. Material grafikoa	25
3.2.4. Albisteen gaurkotasuna	29
3.2.5. Erabilitako kazetaritza-generoak	31
3.3. Albisteen informazio-iturriak ezagutzea	39
3.3.1. Testuak egitea	39
3.3.2. Albisteen jatorria	49
3.3.3. Informazio-iturriak	50
3.4. Elikagaien arriskuen pertzepzioa eta tratamendua	60
3.4.1. Albisteen analisia, hilen eta egunkarien arabera	60
3.4.2. Elikagaien arriskuari buruzko albisteetako gairik ohikoenak	63
3.4.3. Elikagaien arriskuen tratamendua	65
3.4.4. Elikagaien arriskuei buruzko albisteen ikuspegia	66
3.4.5. Elikagaien arriskuei buruzko albisteen gaurkotasuna	67
3.4.6. Elikagaien arriskuei buruzko albisteen kazetaritza-generoak	68
4. KAPITULUA: Elikagaien segurtasuneko 2014ko gai garrantzitsuenen analisia	69
4.1. "Albiste-balioa"-ren faktoreak	70
4.2. 2014ko testu garrantzitsuenen banaketa, gaien arabera	71
4.3. Gaien deskribapena, hilez hil	73
5. KAPITULUA: AZTERLANAREN ONDORIOAK	85

HITZAURREA

ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO KOMUNIKAZIOA

Gero eta informazio gehiago eskatzen da kontsumitzen ditugun elikagaietara buruz, eta, gaur egun informazioa eskuratze-ko dagoen erraztasunarekin, gero eta garrantzitsuagoa da informazioa argi eta egiazkotasunez zabaltzea. Hori dela eta, **herritarrei bermatu nahi zaie informaziorako sarbidea izan dezatela, ahalik eta modu neutroenean eta zehatzenean, ulertu eta interpreta dezaten, eta beren iritzia era dezaten.**

Elikagaien Segurtasunaren arloan ezinbestekoa da Komunikazio Estrategia bat izatea, oinarri hartuta jarrera proaktiboa. Estrategiak bete egin behar ditu irekitasunaren, gardentasunaren eta independentziaren oinarritzko printzipioak. Hain zuzen ere, horien araberakoa izango da herritarrek Elikagaien Segurtasunari buruz duten pertzepzioa.

Hori dela eta, nahitaez ezagutu behar da komunikabideek Elikagaien Segurtasunarekin lotutako gaietara ematen dieten tratamendua, erabili ohi diren informazio-iturriak, albisteen kalitatea eta zehaztasuna, eta elikagaien arriskuei eta alertei ematen dieten ikuspuntua. **Informazio hori ezagutzea ezinbestekoa da kudeatzaileek Elikagaien Segurtasunaren Komunikazio Estrategia bideratu ahal izateko.**

Aurten, hirugarrenez egin da "Elikagaien Segurtasuna Euskal Autonomia Erkidegoko prentsan" azterlan hau. Horrek, jendeak prentsaren bidez Elikagaien Segurtasunari buruz jasotzen dituen gaietara buruzko informazioa emateaz gain, ahalbidetu egingo digu aztertzea informazio horren tratamenduak zer-nolako joerak izan dituen Euskal Autonomia Erkidegoko prentsa idatzian azken hiru urteotan.





1. KAPITULUA HELBURUA ETA AURREIKUSITAKO EMAITZAK

Testu hau Unibertsitatea-Gizartea ikerketa-proiektuaren emaitza da. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak eta ELIKAK (Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa) parte hartzen dute proiektu horretan (erreferentzia: US14/13).

Ikerketa hori UPV/EHUren Kazetaritza-Mediaiker ikerketa-talde kontsolidatuak (José Ignacio Armentia, José María Caminos eta Flora Marín) egin du, eta xedea da aztertzea Euskadiko eguneroko prentsan 2014. urtean Elikagaien Segurtasunarekin loturiko albiste-motak zein diren eta nola ematen den horien berri.

Azterlanak jarraipena eman nahi die Euskal Autonomia Erkidegoko prentsan Elikagaien Segurtasunari buruz argitaratutako inguruko txostenei (2012koa eta 2013koa, ELIKAK argitaratu zituenak eta fundazio horren webgunean kontsulta daitezkeenak: http://www.elika.eus/eu/guias_elika.asp). Beste helburu batzuen artean, txosten horiek baliagarri izan nahi dute arriskuen kudeatzaileek hausnar dezaten euskal herritarrek irakurtzen duten informazioaren kalitateaz eta hedabideek Elikagaien Segurtasunaren pertzepzio publikoan duten zereginaz.

Azterlan hau eginda, **emaitza** hauek aurreikusten dira:

- Euskal herritarrei prentsa-hedabideen bidez Elikagaien Segurtasunarekin lotuta iristen zaien informazio-mota ezagutzea.
- Jakitea zein diren Euskadiko prentsa-komunikabide nagusietan agertzen diren Elikagai Segurtasuneko gairik esanguratsuenak, bai eta horiek urte osoan izaten duten bilakaera ere.
- Urte osoan gertatutako elikagaien arriskuek eta alertek izandako eraginari erreparatzea, baita horiei prentsan eman zaien trataerari ere.
- Identifikatzea albisten erredaktoreak eta egileak, bai eta horien espezializazio-maila ere.
- Elikagaien Segurtasunaren arloko informazioaren bilakaera aztertzea, aurreko azterlanaren emaitzak erreferentziatzen hartuta.

Azterlan hau arriskuaren kudeatzaileentzat da, hedabideek Elikagaien Segurtasunaren arloko gaiei ematen dieten trataeraren berri izan dezaten eta, beraz, Elikagaien Segurtasunaren arloko komunikazio-estrategiak berriz bideratu ahal izan ditzaten.





2. KAPITULUA AZTERLANAREN FASEAK

2.1. Elikagaien Segurtasuneko gaiak aukeratzea

Europako erreferentziazko organismoek (EFSA, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaria; eta Europako beste agentzia batzuk: FSA, ANSES, BfR, VWA...) eta nazioartekoei (FAO, Nekazaritzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundea eta OME, Osasunaren Munduko Erakundea) jarraikiz, Elikagaien Segurtasunak bere gain hartzen dituen arloak kontuan hartuta, Elikagaien Segurtasunaren barneko 7 gai nagusi ezarri dira, 2.1 taulan ikus daitekeen bezalaxe.

2013. urtean egin zen bezala, 2014. urteari dagokion azterlanak Elikagaien Segurtasuneko gai zehatz batean jarri du arreta: elikagaien kaltegabatasunean eta higieanean (*Food Safety*), alegia. Hartara, baztertu egin da elikagai horien eskuragarritasuna (*Food Security*), 2012ko azterlanean jorratu baitzen. Beraz, azterlan honetan ez da gai hori jorratu, elikagaien kaltegabatasunean eta osasungarritasunean jarri delako arreta, batik bat.

Europako araudi erkidearekin bat etorritik, Elikagaien Segurtasuneko ikuspuntuak, eraginkorra izateko, integrala izan behar du; hau da, produktuaren ibilbide osoa erakutsi behar du, ekoizpen primariotik kontsumitzailearengana iritsi arte. Horrez gain, arriskuen kudeaketaren eta komunikazioaren arloan, arriskuen analisia hartu behar du erabakiak hartzeko oinarri gisa.

Horrenbestez, ezinbestekotzat jo da Elikagaien Segurtasunari balioa ematen dioten elikakateko sektore guztiak sartzea: lehenengo sektorea, sektore eraldatzailea, banatzailea eta merkaturatzailea, eta, azkenik, elikagaien azken kontsumitzailea.

2.1. taula. Elikagaien Segurtasunaren gaiak

Elikagaien Segurtasuneko gaiak	Barne hartzen dituen kontzeptuak
ELIKAGAIEN SEGURTASUNA	Elikagaien segurtasuna / Elikagaien kaltegabatasuna / Elikagai seguruak / Elikagai-krisia / Elikagai-alerta
ELIKADURA ARRISKUA	Elikagaien bitartez transmititutako arriskua / Elikagaien arriskua / Elikagai-intoxikazioak / Toxiinfekzioak / Infekzioak / Kutsatzaile biologikoak / Bakterioak / Birusak / Mikroorganismoak / Parasitoak / Elikagai-kutsadura / Elikagai kutsatuak / Kutsatzaile kimikoak / Ingurumen-kutsatzaileak / Kutsadura gurutzatua
ELIKAGAIK, ELIKADURA	Elikagai izoztuak / Elikagai ekologikoak / Elikagai funtzionalak / Haurrentzako elikagaiak / Aurrez prestatutako elikagaiak / Elikagai transgenikoak / Genetikoki eraldatutako organismoak (GEOak) / Elikagaien irradiazioa / Kontsumitzeko prest dauden elikagaiak / Elikagai berriak / Arrainak / Haragia / Frutak / Barazkiak / Esnekiak / Zerealak / Lekaleak / Arrautzak / Olioak / Ura
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA	Animalien osasuna / Landareen osasuna / Animalien ongizatea / Lehenengo sektorea / Ekoizpen-sektorea / Abeltzaintza-ustiategiak / Pentsuak / Animalien nutrizioa / Animalien ekoizpena / Animalien azpi-produktuak / SANDACH / Zoonosiak / Animalien gaixotasunak / Mikrobioen aurkako erresistentzia / Albaitaritzako sendagaiak / Animalien klonazioa / Arrantza-sektorea
ELIKAGAIEN INDUSTRIA	Elikagaien ekoizpena / Animalien kontserbazioa / Elikagaien higieena / Elikagaien etiketak / Manipulatzea / Elikagaien manipulatzaileak / Trazabilitatea / Gehigarriak / Edulkoratzaileak / Koloratzaileak / Kontserbatzaileak
OSASUNA, NUTRIZIOA, ALERGIKAK	Kontsumitzeko ohiturak / Kontsumitzailea / Elikagaien ingesta / Dieta osasungarria / Nutrientak / Giza gaixotasunak / Giza osasuna / Osasun publikoa / Elikagai-alergiak / Elikagaiek eragindako intolerantziak / Alergikoak / Alergenoak / Zeliakoak
ELIKA	Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa

2.2. Baliabide idatziak aukeratzea

Azterlan hau egiteko, EAEn argitaratutako egunkari inprimatu guztiak aztertu dira, bai eta estatu-mailako bi egunkarik EAEn dituzten edizioak ere.

Zehazki, bederlatzi goiburu hauek aukeratu dira:

El Correo
El Diario Vasco
Deia
Noticias de Gipuzkoa
Diario de Noticias de Álava
Gara
Berria
El País (Edición País Vasco)
El Mundo (Edición del País Vasco)

Argitalpen horietako batzuek talde mediatiko beraren barruan daude:

- Hala, *El Correo* eta *El Diario Vasco* Vocento taldearen barruan daude. 13 egunkari ditu (gehienak eskualde- eta probintzia-mailakoak), eta estatuko prentsaren multzo nagusia osatzen dute, guztira 440.000 ale inguru zabal-tzen ditu eta.
- Bestalde, *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario de Noticias de Álava* Grupo Noticias taldearen barruan daude, eta jardueraren oinarria Euskal Herrian dute.

Aztertu diren 9 egunkarietatik *Berria* da osorik euskaraz argitaratzen den bakarra.





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

2.2. taula. 2014. urtean aztertutako egunkarien hedapena

Egunkaria	Hedapen osoa	Hedapena EAEn
El Correo	77.237	69.846
El Diario Vasco	55.923	53.031
Deia	13.246	12.950
Gara	—	—
Berria	—	—
Noticias de Gipuzkoa	4.965	4.820
Diario de Noticias de Álava	3.648	3.614
El País	276.883	7.309
El Mundo	156.172	3.928
Guztira	588.074	155.498
Prentsak Euskadin duen hedapen osoaren %		% 86,39
Prentsak Euskadin duen hedapen osoaren %		% 97,18


Iturria: Noticias de Comunicación, OJDren datuak aipatuta (354 zk., 2015eko otsaila).

*Gara eta Berria ez dira OJDren kontrolatan agertzen.

Aztertutako egunkariak hedapenaren (salmentak) % 86,39 pilatu zuten EAEn, prentsari dagokionez; 2.1 taulan ikus daiteke hori. Informazio orokorreko goiburuak bakarrik aintzat hartuta (beraz, kirolari eta ekonomiari buruzkoak baztertuta), ehuneko hori % 97,18 bihurtzen da. Aintzat hartu behar da Gararen eta Berriaren datuak ez daudela bertan jasota, ez direlako OJDren kontrolatan agertzen.

Era berean, goiburu horiek, 2.1. irudian ikus daitekeen bezala, lurralde honetako irakurleak gehienak erakarri zituzten. **Aipatutako bederatzik egunkariak** audientziaren % 86,8 hartzen dute, eta ehuneko hori % 96,5era iritsiko litzateke, kirol-argitalpenak kontuan hartuko ez balira.

2.1. irudia. 2013. urteko Euskadiko prentsaren irakurle kopurua (milaka)



Iturria: CIES (hedabideek EAEn dituzten irakurleei buruzko azterlana)

Euskadi da prentsa-kontsumorik (aleak erostea) handiena egiten den autonomia-erkidegoetako bat. OJDk hedapenari buruz emandako datuak eta 2014ko biztanleria-errolda aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoa izan da egunkariaren per capita hedapen handiena duten Estatuko autonomietan hirugarrena (82 kopia, 1.000 biztanleko). Balearrek (114) eta Nafarroak (97) bakarrik gainditzen dute. Zenbaki horiek Espainiako batez bestekoa baino askoz handiagoak dira, 50 ale saldu zirelako 1.000 biztanleko.

CIESen datuei jarraikuz, euskal herritarren % 49,6k euren burua egunkariaren irakurletzat zuen 2012. urtean. Antzekoak dira aipatu datuak eta Asociación para la Investigación de los Medios de Comunicación (AIMC-EGM) elkarteak eginiko *Marco General de los Medios en España* agiriaren jasotakoak. Organismo horren arabera, egunkariaren sartzeko-mailaren batez bestekoa Espainian herritarren % 30,4koa zen 2014an. EAEn, berriz, zifra hori % 44,3koa zen; horrenbestez, **autonomia-erkidegoa eguneroko prentsaren kontsumitzaile handien** artean dago kasu horretan ere (hirugarrena da rankingean, Nafarroaren eta Asturiasen ondoren).



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

2.3. Albisteak bilatzea eta aukeratzea

2014an Euskal Autonomia Erkidegoko prentsan Elikagaien Segurtasunari buruz argitaratutako albisteak txostena egiteko, ikerketa honetan kontuan hartu diren 9 egunkarietara aipatu urtean argitaratutako ale guztiak kontsultatu dira (bertsio inprimatuak). Albisteak iragazteko, **gaurkotasuneko dossier tematikoak egiteko, clipping zerbitzuak emateko eta iPressReview informazioa bilatzeko tresna erabili da**. Kantarmedia enpresak sortutako plataforma da (enpresa espezializatua da audientziari buruzko azterlanak egiten).

Bilaketa-lanean 12 hitz gako erabili dira gaztelaniaz, eta 24 euskaraz, guztiak ere Elikagaien Segurtasunarekin lotutakoak. Euskarazko hedabide bakarra dagoenez eta aurreko bi txostenen esperientziak kontuan hartuz, xehetasun-maila handiagoa erabili da euskaraz egiten diren bilaketa semantikoetan.

Gaztelaniazko hitz gakoak: ELIKA, Seguridad Alimentaria, Riesgo alimentario, Alimentos, Alimentación, Agricultura, Ganadería, Pesca, Industria alimentaria, Salud, Nutrición, Alergia.

Euskarazko hitz gakoak: ELIKA, Elikagaien segurtasun, Elikagaien arrisku, Elikagai, Nekazaritza, Abeltzaintza, Artzaintza, Elikagaien industria, Osasun, Nutrizioa, Barazki, Fruta, Fruitu, Dieta, Esneki, Arrautza, Arrain, Arriskua, Arrantza, Kontsumo, Haragi, Okela, Animalia, Alergia.

2.4. Albisteak kategorizatzea eta aztertzea

Ikerketan, bederatzi egunkari horien edizio inprimatuek 2014an argitaratutako eta Elikagaien Segurtasunaren arloko gaiekin lotutako testu guztiak aztertu dira.

Testuak aztertzeke eta jasotako datuak kategorizatzeke, bederatzi fitxa-multzo erabili dira, aztertutako item ezberdinen arabera. Informazio horren berariazko tratamendurako, Excel programa erabili da.

Fitxa teknikoa	
Aztertutako epea:	2014/01/01etik 2014/12/31ra
Dokumentuak aztertzeke irizpideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Datuen analisi kuantitatiboa (txertatze-kopurua egunkari eta hileko, gehigarri tematikoak barne). 2. Testuetan jorratutako gaiak (Elikagaien Segurtasuna, elikagaiak/elikadura, nekazaritza/abeltzaintza/arrantza, elikagaien industria, ELIKA, elikagaien arriskua, osasuna/nutrizioa/alergiak). 3. Testuen kokapena (atalak, gehigarriak eta koadernotxoak, azalean duen presentzia, orrialdearen irekiera). 4. Azaleko testuak aztertzea. 5. Testuen egunerokotasun-mota (azkenaldikoa, luzatua, iraunkorra) eta generoak (informazioa, interpretazioa, iritzia). 6. Material grafikoaren azterketa (argazkiak eta infografiak). 7. Testuen ikuskaritza eta informazio-iturriak. Testuetan gehien aipatzen diren erakundeak eta pertsonak. 8. Arriskuaren pertzepzioa (arrisku hitza aipatzen duten testuak, ikuspuntuak, jarduera-mota, gaiak, generoak). 9. Hilabeteko gairik aipagarrienak
Aztertutako egunkariak	<i>El Correo</i> <i>El Diario Vasco</i> <i>Deia</i> <i>Noticias de Gipuzkoa</i> <i>Diario de Noticias de Álava</i> <i>Gara</i> <i>Berria</i> <i>El País</i> (EAEko edizioa) <i>El Mundo</i> (EAEko edizioa)
Aztertutako ale-kopurua:	3.206
Elikagaien Segurtasunari buruzko testu-kopurua:	1.864



3. KAPITULUA EMAITZAK

3.1. Elikagaien Segurtasunaren presentzia aztertutako egunkarietan

3.1.1. Albisteen banaketa hilabeteka eta egunkarika

Aztertutako 9 egunkariak, guztira, Elikagaien Segurtasunari buruzko 1.864 albiste argitaratu zituzten 2014an; hots, batez beste, 153,3 albiste hileko edo 5,2 txertatze eguneko, aztertutako egunkari guztien artean. Datu esanguratsua bada ere, ez da oso handia, batik bat kontuan hartuta iazko kotak antzekoak izan zirela. Horren ondorioz, Elikagaien Segurtasunari heltzen dioten gaiak ez dira indarrez sartzen, iazko datuen aldean, hedabideen orrialdeetan.

9 egunkari


2014

1.864 informazio

**bestez bestekoa:
 155,3 berri/hilabete**

Abenduan eta maiatzean pilatzen da Elikagaien Segurtasunari buruz argitaratutako testuen kopuru handiena, eta alde handia dago hilabete horien eta gainerakoen artean. Ondoren daude ekaina eta azaroa, eta gutxieneko kosta uztailean dago: aztertutako gainerako hilen aldean, beherakada guztiz nabarmena da.

3.1.a. irudia. Elikagaien Segurtasunari buruzko idatziak 2014an



Uztaila, maiatza eta abendua alde batera utzita (kota baxuena eta altuenak dituzte, hurrenez hurren), ikusten dugu gainerako 10 hiletan argitaratutako informazioak 1.323 testu direla; batez beste, 132,3. Abuztua eta urria argitaratutako testuen batez bestekoaren azpitik daude. Batez bestekoaren gainetik daude, tarteko eremu batean eta 140-170 testu artean, urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, iraila eta azaroa. Ekainean (176 testu) izan da bigarren talde horren kosta handiena.




txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Ekaineko eta abenduko zifrak arruntak dira, aintzat hartzen badugu ekainak udaren ateak irekitzen dituela eta elikadurarekin, dietekin eta osasunarekin lotutako testuak ugaritu egiten direla. Halaber gertatzen da abenduan, Gabonetan. Bestalde, maiatzeko kota ere ohikoa da; izan ere, orduan aitortu zen anisakisa agertu zela Kantauri itsasoan arrantzatutako antxoetan. Uztaileko beherakada erlatiboki uler daiteke, udako jaiak eta publizitatearen murrizketa (eta, horrekin, egunkariaren orrialdeen murrizketa) direla eta. Maila hainbeste murrizten da, non, gainera, iazko joera hausten duen.

3.1.b irudian ikusgai dago 2012ko eta 2014ko txertatze-kopuruen arteko erkaketa. Zehaztu egin behar da 2012an bilaketa hemerografikoa egiteko Acceso 360 tresna erabili zela eta 2013an horren ordez IPresreview erabili zela. Hori dela eta, bi urte horien arteko aldeak nabarmenagoak izan daitezke. Ikuspuntu orokorretik esan daiteke 2014an gorakadatxoa gertatu dela (% 3,3) Elikagaien Segurtasunari buruzko informazioetan, 2013aren aldean. Gorakada ez da nahikoa, argi eta garbi, eta erakusten du elikadurarekin lotutako gaiak euskal hedabideetan gelditu egin direla.

Halaber, oso esanguratsuak dira maiatzeko eta ekaineko gorakadak. Urtarrileko gorakada ez da garrantzitsua, aintzat hartzen baditugu, 2013ko txostenean azaldutakoarekin bat (ikus http://www.ELIKA.eus/eu/guias_ELIKA.asp?id=48), aurton hil horretako informazioak eskuratzeko egon diren zailtasunak. Orobat, oso esanguratsuak dira otsailean, uztailean eta urrian aurreko urtearen aldean gertatutako beherakadak.

3.1.b. irudia. Txertatzeen bilakabidea (2012-2014)




3.1.2. Egunkari bakoitzeko datuen banaketa, hileka

2014an, Elikagaien Segurtasunari buruzko testuen edizioen aldea oso handia da egunkari batzuetatik beste batzuetara. **Kota handiena El Diario Vascok du (455 txertatze)**, eta txikienak *El Mundok* (53 txertatze) eta *El Paísek* (46 txertatze). **El Correo (407 testu argitaratu)** hurbiltzen da gehien *El Diario Vascoren* mailara. Bigarren mailan, 200 testuen muga gainditzen dute *Noticias de Gipuzkoak* (236) eta *Deiak* (212); hirugarren daude *Berria* (184), *Gara* (144) eta *Diario de Noticias de Álava* (127).




txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.2.a. irudia. Elikagaien Segurtasunari buruz 2014an inprimatutako idatziak



Datu horiek 2013koekin alderatuta, bi grafikoak antzekoak dira. Bi urteetako kota altuena *El Diario Vasco* du; hurbil du *El Correo*. Baxuena *El País*ek eta *El Mundok* dute, nahiz eta 2014an beren lekua irauli duten. Bigarren mailan daude *Noticias de Gipuzkoa* eta *Deia*, nahiz eta kasu horretan ere kokapenak irauli egiten diren. Hirugarren mailan daude, ordena honetan, *Berria*, *Gara* eta *Diario de Noticias de Álava*.

3.2.b. irudia. 2013an eta 2014an inprimatutako testuen konparazioa



Antzeko koten artean, goragune arinak daude *El Correok*, *El Diario Vasco*ek, *Noticias de Gipuzkoak*, *Berriak*, *El País*ek eta *El Mundok* argitaratutako testuetan. Beherakada nabarmena dago *Gara* eta *Diario de Noticias de Álava*ren kasuetan. *Deian* gertatu da testu argitaratuen beherakada handiena.

3.1. taulan ikus daitekeen bezala, hil bateko gehieneko txertatzeak, 2013an gertatu zen bezala, *El Diario Vasco* egin dira: abenduan 76 testu argitaratu ziren. Bigarren lekuan dago *El Correo*, abenduan argitaratutako 70 testuekin. ***El País* eta *El Mundo* salbuetsita, kota baxuenak *Garan* eta *Diario de Noticias de Álavan* daude: 2 testu argitaratu dituzte urrian eta uztailean, hurrenez hurren.**




txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.1. taula. Banaketa, hilez hil, egunkari bakoitzean 2014. urtean

	El Correo	Diario Vasco	Noti. Álava	Noticias Gipuzkoa	Deia	Gara	Berria	El País	El Mundo	GUZTIRA
Urtarrila	19	32	18	21	12	14	23	3	1	143
Otsaila	45	14	7	13	24	7	18	2	11	141
Martxoa	33	36	9	21	20	9	19	2	3	152
Apirila	26	22	12	30	22	12	19	2	10	155
Maiatza	28	51	18	33	25	14	35	7	3	214
Ekaina	32	58	10	19	12	15	22	4	4	176
Uztaila	25	14	2	20	11	7	5	—	9	93
Abuztua	28	12	7	11	12	26	16	5	5	122
Iraila	28	52	6	15	18	9	5	6	3	142
Urria	9	53	11	19	15	2	10	4	1	125
Azaroa	64	35	13	15	15	13	9	4	—	168
Abendua	70	76	14	19	26	16	3	7	3	234
GUZTIRA	407	455	127	236	212	144	184	46	53	1.864

3.3. irudian grafikoki ikus daiteke egunkari bakoitzak hileka izan duen bilakaera.

3.3. irudia. Elikagaien Segurtasunari buruzko albisteak hilabete eta egunkarien arabera



3.2. Kalitatea eta zehaztasuna albisteen edukian

3.2.1. Elikagaien Segurtasuneko gairik ohikoenak

Nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin eta arrantza-rekin lotutako testuak izan dira 2014ko gai-multzo nagusiak. Egunkari guztiek, *El Correek* eta *El Mundok* izan ezik, bat egiten dute: lehenengo, gai horiekin lotutako Elikagaien Segurtasunari buruzko albisteak argitaratu dituzte.



Bigarren gai-multzo garrantzitsua elikagaiei eta elikadurari buruzko informazioa da; hori da *El Correek* gehien erabilitako gaia. Hirugarren gai-multzo garrantzitsua elikagaien nutrizio-osaerari, elikagai-dietek pertsonen ongizatean duten eraginari eta elikagai-alergieiei buruzko informazioa da.



Elikagaien industriak leku garrantzitsua du Elikagaien Segurtasunarekin lotutako gaietan. 2014an **laugarren lekua du**, lehentasuna izan duten gaien artean. *El-Mundon*, elikagaien industria da lehenengo gaia. *Garak* hirugarren lekuan kokatzen du, eta *El Correek*, *El Diario Vasco*, *Diario de Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoak*, *Deiak* eta *Berriak* laugarren. *El Paísek*, ordea, azken kokatzen du bere gai-lehentasunen artean.



2014. urtean Elikagaien Segurtasunari buruzko gai garrantzitsuenak aztertzeko, oinarrizko 7 topikori erreparatuz multzokatu dira, iaz bezala, arestian azaldutako zenbait irizpiderekin bat etorritik.

“Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza” gaiaren inguruko 688 testu plazaratu ziren, eta argitaratutako informazio osoaren % 35,8 izan zen; hartara, 2014ko esparru tematiko nagusi bihurtu da, eta erraz gaintzen ditu aztertutako gainerakoak. Bigarren tokian dago “Elikagaiak eta elikadura” multzoa: 441 albiste argitaratu ziren, % 23,6. Saikapeneko hirugarren tokia “Osasuna, Nutrizioa eta Alergiak” gaiak du: 330 plazaratu ziren, % 17,7. Laugarrenik, “Elikagaien industria” gaiarekin lotutako albisteak agertu ziren, guztira 229 testurekin: % 12,3.

Elikagaien arriskuarekin (% 5,8) eta segurtasunarekin (% 4,6) lotutako gaiak daude txertatze gutxien izan dituztenen artean, urte osoan elikagai-alarma edo -alerta gutxi gertatu direlako Datu horiei buruzko azalpen zehatzak 3.2 taulan eta 3.4.a irudian jasota daude.




txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.2. taula. Gaien banaketa egunkari bakoitzean 2014. urtean

	El Correo	Diario Vasco	Noticias Álava	Noticias Gipuzkoa	Deia	Gara	Berria	El País	El Mundo	Guztira
Elikagaiak, Elikadura	130	117	25	26	35	46	48	6	8	441
Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza	83	150	40	142	106	65	61	11	10	668
Elikagaien Industria	53	59	21	19	14	16	19	2	27	230
ELIKA							1			1
Elikadura Arriskua	29	26	3	13	10	5	12	6	4	108
Osasuna, Nutrizioa, Alergiak	85	90	32	28	38	7	34	12	4	330
Elikagaien Segurtasuna	27	13	6	8	9	5	9	9		86
Guztira	407	455	127	236	212	144	184	46	53	1.864

3.4.a. irudia. 2014ko gai ohikoenak




Zenbait alderdi jorratu behar dira, datuok 2013koekin alderatu aurretik. Lehenik eta behin, 3.4.b irudian ikus daitekeenez, "Elikagaiak, Elikadura" eta "Osasuna, Nutrizioa, Alergiak" topikoek hainbat aldaketa dituzte. Bi atal horietako lehenengoak **16,2 puntuko igoera du 2013aren aldean**, eta bigarren atalak % 6,9ko jaitsiera izan du 2013aren aldean.

Gainerakoak direla eta, 2013aren aldean testuen kopurua zertxobait areagotu da "Elikagaien Arriskua" gaiari dagokionez; zehazki, % 1,8. Gainerako gaiak murriztu egin dira aurreko urtearen aldean: "Elikagaien Industria"-ri lotutakoak % 5,6 murriztu dira, eta "ELIKA"-ri buruzkoak % 0,35 dira. Gogorarazi behar da 2012an txertatze gehien izandako esparrua "Osasuna, nutrizioa eta alergiak" izan zela.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.4.b. irudia. Gai ohikoenen arteko erkaketa (2012-2014)





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.2.2. Albisteen banaketa, atalen arabera

Ciudadanos

Gizartea,
Sociedad

Ekonomia/
Economía

Tokikoa/
Eskualdekoa

Azala

Kontrazala

Elikagaien Segurtasunari buruzko albisteak oso atal zehatz eta murriztuetan multzokatzen dira.

El Correo "Ciudadanos" [Herritarrak] izeneko atal bat erabiltzen du batez ere, eta horren ostean, "Culturas y Sociedad" [Kulturak eta Gizartea], baina lehenengotik urrun xamar.

El Diario Vasco "Al Día" [Egunean] izeneko atala darabil zehazki, eta haren testuen zati handi bat "Local, Provincial" [Tokikoa/Herrialdekoa] atalean argitaratzen da. Azken atal-mota hori, "Sociedad, Gizartea"-rekin batera, **darabilte Diario de Noticias de Álava, Deiak eta El País**. *Noticias de Gipuzkoa* talde horretan sar liteke, nahiz eta "Ekonomia" atalari ere garrantzi handia ematen dion.

Garak joera du elikagaien inguruko gaiak "Ekonomia" eta "Euskal Herria" ataletan biltzeko; *Berriak*, ordea, "Bizia", "Euskal Herria" eta "Ekonomia" atalen artean banatzen ditu testuak, funtsean.

Azterlan honetan aztertutako egunkariak informazioa antolatzeke darabiltzaten atalak izendatzeko erak ezberdinak direnez, esparru tematikoen kopuru mugatu batean multzokatu behar izan dugu, argitaratutako testuak zenbatu eta sailkatu ahal izateko.

Lehen, egunkarietako orrialdeak gertutasun edo urruntasun geografikoaren (Tokikoa, Herrialdea, Eskualdea, Estatua, Mundua) edo gaien espezializazioaren (Ekonomia, Kultura, Kirola...) irizpideei jarraikiz antolatu ohi ziren. Haatik, "zerbitzuen egunkari-eredua" deritzonak iragan mendeko azken hamarkadan izandako arrakastak eragin zuen geografiaren eta gaien araberrako sailkapen horiek hain zorrotzak ez izatea eta izaera generiko eta zeharkakoagoa duten izenak agertzea.

Sailkatze aldera, testuak 8 talde handitan bildu dira: "Ciudadanos" [Herritarrak], "Contraportada" [Kontrazala], "Economía/Ekonomia", "Opinión/Iritzia", "Local/Territorial" [Tokikoa/Lurraldekoa], "Otras Secciones" [Beste atal batzuk] eta "Portada" [Azala]. Hitz horietako batzuk hedabideek eurek darabiltzaten hitzak dira, hala nola "Ciudadanos" [Herritarrak] (*El Correo*), "Economía, Ekonomia" eta "Opinión, Iritzia".

Beste kasu batzuetan, erabaki da egunkarien arlo tematikoak deskriptore generikoagoen arabera sailkatzea. Horixe gertatu da, adibidez, "Gizartea, Sociedad", "Local/Territorial" [Tokikoa/Eskualdekoa] eta "Otras" [Beste batzuk] **esparruekin; horietan, gaiaren antzekotasunaren zein geografiaren hurbiltasunaren arabera multzokatu dira gaiak.**

Hala, herrietako eta eskualdeetako informazioa "Local/Territorial" [Tokikoa/Lurraldekoa] atalean sartu da, baita gure hiru lurralde historikoei dagokien informazioa ere. Multzo horren barruan daude *El Diario Vascoren* eskualdeko edizioak, *Noticias de Álava*ko "Araba" atala, *Noticias de Gipuzkoako* "Euskadi" eta "Bertan" atalak eta *Deiak*ko "Bizkaia" eta "Hemen-dik" atalak, *Garako* "Euskal Herria" atala, eta *Berriako* "Hitza" tokiko gehigarriak, *El País*eko "España" eta "País Vasco", eta *El Mundoko* "España" eta "Euskadi".

"Sociedad/Gizartea" deskriptore orokorrarekin biltzen dira egunkariak izen zehatz horrekin jorratzen dituzten atalak; esate baterako, "Culturas y sociedad" [Kulturak eta gizartea], *El Correo*; "Al día" [Egunean], *El Diario Vasco*; "Gizartea", *Noticias de Gipuzkoa* eta *Deia*; "Sociedad" [Gizartea], *Diario de Noticias de Álava*; "Bizia" eta "Bizigiroa", *Berria*; eta "Vida & Artes" [Bizitza eta arteak] eta "Sociedad" [Gizartea], *El País*.

Azkenik, atal globalizatzailearen ikuspegi horretatik, hainbat atal txiki batzea erabaki da; izan ere, beren aniztasuna edo garrantzi eskasa aintzat hartuta, bidezkoa da multzo bakar batean jasotzea. Atal horri "Otras" [Beste batzuk] deitu zaio, eta bertan jaso dira *El Correo*ren eta *El Diario Vascoren* "V" atalak, *El Diario Vascoren* "Cultura" [Kultura] eta "Política" [Politika] atalak; *Noticias de Gipuzkoaren* "Mirarte" [Zeure buruari begira], *Deiaren* "Publirreportaje" [Publirreportajea], *Gararen* "Eguneko gaiak", "IkusEntzun" eta "Zientzia"; *Berriaren* "Erdiz erdi", "Gaurkoa" eta "Harian"; eta *El País*en "Revista de verano" [Udako aldizkaria].



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Beste kasu batzuetan, atal bakar batean bildu dira, izan daukaten garrantziagatik, izan hedabide berbereko beste atal batzuen aldean argi eta garbi bereizten direlako. *El Correoko* "Ciudadanos" [Herritarrak] atalak hala zerbitzuei nola tokiko esparruari buruzko gaiak hartzen ditu. Halaber, gertakarien eta hainbat erreportajeren ohiko kokalekua da. Atal zehatz bat egitearen alde egin da, Elikagaien Segurtasunaren inguruko gaiak biltzean duen garrantziagatik eta eraginetatik.

Berezko beste atal batzuk (beraz, espezifikoki aztertu dira) dira "Azala" (egunkari guztien lehen orrialdean argitaratutako testuak zenbatzen dira) eta "Kontrazala" (hedabideek azken orrialdean argitaratutako informazioa aztertzen da).

Bistakoa da, halaber, ikuspegi bakar horretatik, "Economía, Economía" epigrafearen peko informazioen izaera: elikadurari buruzko testuak jasotzen ditu, ikuspegi ekonomikotik. Bestalde, "Opinión, Iritzia" dago, hainbat kolaboraziotekin batera, hedabidearen editoriala jasotzen duena.

2014an aztertutako egunkarietako ataletan, guztira, 1.480 testu (% 79) kaleratu dira. Koadernotxo eta gehigarri tematikoetan zein berezietan agertutako 384 testuak gehituz gero, 1.864 txertatze lirakeke 2014an, guztira.

Albisteak atalen eta hedabideen arabera sailkatzeko irizpideen azalpen zehatza 3.3 taulan ikus daiteke, eta irudikapen grafikoa, berriz, 3.5 irudian.

3.3. taula. Informazio guztien banaketa atalen arabera

	<i>El Correo</i>	<i>El Diario</i>	<i>Noticias Álava</i>	<i>Noticias Gipuzkoa</i>	<i>Deia</i>	<i>Gara</i>	<i>Berria</i>	<i>El País</i>	<i>El Mundo</i>	Total	%
Ciudadanos	178									178	12,0%
Kontrazala	1	1	1	7	3	2	7	1		23	1,5%
Economía/Economía	36	55	6	103	4	51	26	7	7	295	19,9%
Iritzia, Opinión	4	2	3	4	5	5	5	2		30	2,0%
Tokikoa/Eskualdekoa		110	70	41	59	24	24	7	17	352	23,8%
Beste atal batzuk	5	5		6	1	5	24	3		49	3,3%
Azala	14	19	13	6	19	6	16	1		94	6,3%
Gizartea, Sociedad	50	129	34	62	105		54	25		459	31,0%
GUZTIRA	288	321	127	229	196	93	156	46	24	1.480	

"Ciudadanos" [Herritarrak] ataleko zifra guztiak *El Correori* dagozkio. Atal hori da aipatu egunkariak testuak kokatzeko gehien erabiltzen duena. *El Diario Vasco*ri dagokionez, aipatzekoa da hedabide horrek "Local, Territorial" [Tokikoa, Lurraldekoa] eta "Sociedad, Gizartea" atalei ematen dien garrantzia (sailkapena egiteko, "Al Día" [Egunean] ataleko testuak biltzen ditu).


*Diario de Noticias de Álava*k, funtsean, "Araba" atalean biltzen ditu ("Local, Territorial" [Tokikoa, Lurraldekoa] multzoan); *Noticias de Gipuzkoaren* joera da elikadurari buruzko testuak "Economía" eta "Gizartea" ataletan sartzea, eta *Deiak* "Gizartea", "Bizkaia" eta "Hemendik"-en kokatzen ditu (azken bi horiek "Local, Territorial" [Tokikoa, Lurraldekoa] multzoan daude). *Gara* eta *Berriak* "Economía" eta "Euskal Herria" ataletan kokatzen dituzte, besteak beste ([Tokikoa, Lurraldekoa] multzoan); *El Paísek*, funtsean, "Gizartea" atalean kokatzen ditu testuak, eta *El Mundok* "Euskadi" atalean ("Local, Territorial" [Tokikoa, Lurraldekoa]).

Ikuspuntu globaletik abiatuta, "Gizartea/Sociedad" atala da garrantzitsuena (459 testu), eta hurrengoa "Local/Territorial" [Tokikoa/Lurraldekoa] da (gertu dago, 352 albiste dira eta). Bestalde, oso hurbil, "Economía/Economía" dago (295 testu). Gainerako atalak oso urruti daude lehen hiru horietatik.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.5.irudia. Informazio guztien banaketa atalen arabera



Datu horiek 2014koekin alderatuta, aurreko urtearen aldean ehunekotan gehien hazi den atala "Ekonomia, Economía" da: % 5,2 egin du gora. 2013aren aldean testuak areagotu dituzten atalak dira "Sociedad, Gizartea" (% 3,5 egin du gora) eta "Portada" [Azala] (% 2,6 egin du gora). "Ciudadanos" [Herritarrak], "Contraportada" [Kontrazala] eta "Otras" [Beste batzuk] atalen mailak 2013koen oso antzekoak dira.

Halaber, ehunekoak murriztu dira, 2013ko datuen aldean, "Opinión" [Iritzia] atalean (1,6 puntu egin du behera) eta, funtsean, "Local, Territorial" [Tokikoa, Lurraldekoa] (6,9 puntu jaitsi da, aurreko urtekoaren aldean).

Koadernotxoetan eta gehigarrietan agertzea

**Elikagaien
Segurtasunari
buruzko testuen %
20,6 koadernotxo
berezetan**


Argitaratutako 1.864 testuetatik **384** (% 20,6) **asteko koadernotxoetan** (Gararen Gaur8 edo Berriaren Igandea) edo edizio puntualeko **gehigarri berezietan** agertzen dira (*El Diario* Vascoren San Sebastián Gastronómica edo *El Correoren* Vinos de Rioja).

Hori guztia, nahiz eta koadernotxoak eta gehigarri bereziak leku aproposak diren Elikagaien Segurtasunarekin lotutako erreportajeak edo elkarrizketak argitaratzeko.

Hedabideek erabilitako zenbait koadernotxo asteburuetan argitaratzen diren gehigarriak dira, ohiko egunkariaren osagarri tematiko gisa. Leku egokia da, gainera, eguneroko bizimoduaren tentsiotik eta azkartasunetik heltzeko gehiegiko sakontasuna duten gaiak lantzeko. Halakoak dira, esate baterako, *El Diario* Vascoren plazaratutako FIND, *El Correoren* GPS, Garak ateratzen duen Gaur 8, Berriak kaleratutako Igandea eta *Deiaren* On koadernotxoak. Beste batzuetan, ordea, hedabideek publizitate-euskarri onak babestutako aparteko koadernotxoak argitaratzen dituzte, gai jakin baten ingurukoak. Koadernotxo horiek hainbat orrialde izan ditzakete. 2014an zenbait kasu garrantzitsu daude, hala nola Vocento taldeko egunkariak banatutako Sukaldean eta *El Mundok* banatutako Innovadores.

Datuok 2013koekin erkatzen baditugu, ikusiko dugu Elikagaien Segurtasunarekin lotutako gaiak gorakada handia izan dutela koadernotxo berezietako orrialdeetan. 2012tik 2013ra % 11,8 areagotu ziren testuak koadernotxo berezietan, eta 2014an, aurreko urtearen aldean, ehunekoa % 6,9 areagotu zen; beraz, **esan dezakegu ematen duela gorako joera egonkortu egin dela, elikadurarekin lotutako gaietarako koadernotxoak erabiltzeari dagokionez.**

3.6. irudia. Koadernotxo berezien kopuruen banaketa



Egunkari bakoitzean sakonduz gero, esan daiteke 2014an aldaketa nabarmenak daudela aurreko urtearen aldean, nahiz eta *El Diario Vasco* duen oraindik ere lehenengo lekua, elikadurarekin lotutako gaien euskarri gisa koadernotxoak erabiltzeari dagokionez.

Aldaketa garrantzitsua *El Correoren* ingurukoa da: 2013an hirugarren lekuan zegoen, eta 2014an bigarrenen, 75 testu gehiagorekin. Halaber, *Gara* eta *El Mundok* testu gehiago argitaratu dituzte 2014an: lehenengoak 15 testu gehiago dakartza, eta bigarrenak 22 txertatze gehiago izan ditu.

Beharakada handiena *Deia* egunkarian dago: 2013an 47 testu argitaratu zituen, eta 2014an 16 testu. *Berriak* kota berari eusten dio: 2014an testu bat gutxiago besterik ez du argitaratu.

Diario de Noticias de Álava eta *El Paísek* ez dute testurik argitaratu koadernotxo berezietan 2014an. Arabako egunkariak 2013ko 0 testuak mantendu ditu, eta *El Paísek* 1 argitaratu zuen 2013an, eta bat ere ez 2014an.

Argitaratutako testuei emandako garrantzia

Guztira, egunkariak 1.480 albiste argitaratu zituzten orrialde orokorretan: horien % 6,4 azaleko testuak ziren, % 48,2 orrialdea irekitzeko erabili zituzten, eta % 45,3 bigarren mailako guneetan kokatu ziren (orrialdea ez irekitzekoak).

Era berean, koadernotxo berezietan 384 testu plazaratu ziren, eta horien % 11,2 azalean agertu ziren; % 45,8k, aldiz, koadernotxoetako orrialderen bat ireki zuten, eta % 42,9 bigarren mailako toki batean kokatu zituzten.

1.480 albistetik

% 6,4 azalean

**% 48,2 orrialdeen
hasieran**

**% 45,3 bigarren
mailako lekuetan**

Egunkariak Elikagaien Segurtasunaren arloko testuekin ezarritako informazio-hierarkia aztertzeko, orrialde bakoitzean hartzen duten tokiari erreparatu zaio Gai bat maketako toki jakin batean kokatzeko erak bisualki adierazten die irakurleei gaiak zer-nolako informazio-garrantzia duen. Helburua da ikusgarri egitea testu batek irakurleentzat izan behar duen informazio-garrantzia.

Azterlan honetan, kontuan hartu da Elikagaien Segurtasunaren arloko gaiak dagokien orrialdea "irekitzen" ote duten, hau da, kokatuta dauden orrialdearen gai nagusia al diren edo bigarren mailako testu gisa aurkezten diren (ez orrialdearen hasieran):



txostena: 2014 elkagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Orrialdea irekitzea:

Multzo batek orrialde bat "irekitzen" duela esaten da, orrialdean jasotako gai nagusia lantzen duenean. Tabloide motako egunkarrietan (Espainiako prentsak erabiltzen du formatu hori), ohikoa da testu nagusia orrialdeko goiko aldean kokatzea, eta 3 eta 5 zutabe artean izatea. Horregatik aipatzen da orrialde bakoitza "irekitzen" duten gaiiez. Alabaina, batzuetan, maketazio-beharrizanak direla eta, orrialdearen goialdea informazio laburretarako erabiltzen da, eta testu nagusia erdigunera aldatzen.

Orrialdea ez irekitzea:

Bestalde, bigarren mailako albisteak, oro har, orrialdearen behealdean kokatzen dira, edo alboetako zutabeetan. Goiko aldean ezartzekotan, ez du bi zutabe baino gehiagoko zabalera. Orrialdea "irekitzen ez duten" gaiak dira. Atal horretan daude informazio laburrak.

Azala:

Informazio-item jakin baten garrantzia neurtzeko beste faktore garrantzitsu bat da egunkariaren azalean agertzen den edo ez. Lehenengo orrialdeak espazio mugatua du, eta eguneko albiste nagusietarako soilik erabiltzen da. Azalean dagoen testu orori, egunkariak albistegarritasun-plusa ematen dio.

Koadernotxo bereziak eta gehigarriak:

Koadernotxo bereziei dagokienez, irizpide berari heldu zaio orrialde nagusietan erabilitako testuen garrantzia neurtzeko. Kontuan hartu da orrialdean (irekitzea) lehentasunezko lekua duen, baita koadernotxoaren azalean gaia aipatzen ote den ere.


Argitaratutako 1.864 testuen % 79,4k soilik du tokia koadernotxo berezietan. Orrialde orokorretako testu guztien % 6,4 argitaratu zen azalean, eta % 48,2k orrialdea irekitzeko gunea hartu zuen; bestetik, % 45,3 orrialdeko bigarren mailako tokietan kokatutako edukia da.

Datu horiek 2013koekin alderatuta, ikusten dugu areagotu egin dela elkagaien inguruan hedabideek egiten duten balorazioa; izan ere, azalean agertutakoak % 3,8 ziren 2013an eta % 6,4 2014an. Datu interesgarria da, aintzat hartuta 2014an, gainera, % 1eko murrizketa txikia izan zutela orrialdea irekitzen zuten testuek. Orrialdea irekitzen ez duten testuak 1,7 puntu murriztu dira 2014an, aurreko urtearen aldean. Testuei orrialde orokorretan emandako garrantziaren irudikapen grafikoa 3.4 taulan eta 3.7.a irudian ikus daiteke.

3.4. taula. Testuei orrialde orokorretan emandako garrantzia

Azala		Orrialdea irekitzea		Orrialdea ez irekitzea		Testuak guztira
Testuak	%	Testuak	%	Testuak	%	
95	% 6,4	714	% 48,2	671	% 45,3	1.480

3.7.a. irudia. Testuei orrialde orokorretan emandako garrantzia




2013ko datuekin alderatuta, azaleko testuak ia bikoiztu egin dira, eta orrialdea irekitzen dutenak zein irekitzen ez dutenak zertxobait murriztu dira.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.7.b. irudia. Testuei orrialde orokorretan emandako garrantzia (2012-2014)




Koadernotxo berezietako txertatzeak aintzat hartuta, 384 informazio argitaratutik 43 informazio (% 11,2) azalatan agertzen dira, 176 (% 45,8) testuk orrialdea irekitzen dute eta 165ek (% 42,9) ez dute orrialdea irekitzen. Datuak 3.5 taulan eta 3.8.a irudian jasotzen dira.

3.5. taula. Testuei koadernotxo berezietan ematen zaien garrantzia

Azala		Orrialdea irekitzea		Orrialdea ez irekitzea		Testuak guztira
Testuak	%	Testuak	%	Testuak	%	
43	11,2%	176	45,8%	165	42,9%	384

3.8.a. irudia. Testuei koadernotxo berezietan ematen zaien garrantzia




2013aren aldean, nabarmen areagotu dira azaleko testuak; zehazki, 9,2 puntu egin dute gora. Orrialdea ireki gabe argitaratzen diren informazioen maila antzekoa da, eta 2014an zertxobait areagotu dira (% 1,2). Bitxia bada ere, orrialdea



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

irekitzen duten testuak nabarmen murriztu dira 2013. urtearen aldean (7,7 puntu). Horrek adieraz dezake 2013an testu horiek ez direla islatzen koadernotxoan azaletan, edo 2014an barneko orrialdeetan bigarren maila osatzen zuten gaiak azalera eramaten direla.

3.8.b. irudia. Testuei koadernotxo berezietan ematen zaien garrantzia (2012-2014)



Garrantzia egunkarien arabera

Nahiz eta *El Diario Vasco* (317) eta *El Correo* (291) egunkariak izan, alde handiz, 2014an orrialde orokorretan Elikagaien Segurtasunaren arloko testu gehien argitaratu zutenak, **Deia egunkariak kaleratu zuen gai gehien azalean (20 testu); zehazki, El Diario Vascok (19) baino bat gehiago.** Orrialde-irekitzeen ehunekoa aztertzen badugu, hedabide bakoitzak argitaratutako testu guztiak aintzat hartuta, **Berriak du lehen tokia (% 55,4)**, eta *Diario Noticias de Álava*, *Deia* eta *El País* egunkariak ere % 50eko muga gainditu zuten.

Deia + azalak
El Diario Vasco
eta El Correo +
orrialde-irekitzeak

Berriak, *Deiak*, *Diario Noticias de Álava* eta *Noticias de Gipuzkoak*, *El Mundok* eta *Garak El Correo* eta *El Diario Vascok* baino albiste gutxiago txertatu zituzten orrialdeak irekitzeko. Bitxia da: *El Diario Vascok* (317 testu orrialde orokorretan) eta *El Correo* (291 testu) argitaratu dute testu gutxien, ehunekotan, orrialde-irekitzean. *El Correo* du azken-aurreko lekua (% 46,4) eta *El Diario Vasco* azken lekuan dago (% 42,9).

Albisteak azalean agertzeari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu *Deiak* eta *Berriak* (% 10,2) eta *Diario de Noticias de Álava* (% 10,1) dutela lehenengo lekua atal horretan. 3.6 taulan zehatz azaltzen dira datu horiek. Irudikatze grafikoa 3.9 irudian dago.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.6. taula. Egunkari bakoitzak testuei orrialde orokorretan emandako garrantzia

	Testuak guztira	Azaleko testuak		Orrialdea irekitzea		Orrialdea ez irekitzea	
		Testuak	%	Testuak	%	Testuak	%
<i>El Correo</i>	291	14	% 4,8	135	% 46,4	142	% 48,8
<i>Diario Vasco</i>	317	19	% 6,0	136	% 42,9	162	% 51,1
<i>Not. Álava</i>	128	13	% 10,1	66	% 51,5	49	% 38,2
<i>Not. Gipuzkoa</i>	229	6	% 2,6	110	% 48,0	113	% 49,3
<i>Deia</i>	196	20	% 10,2	100	% 51,0	76	% 38,8
<i>Gara</i>	93	6	% 6,4	44	% 47,3	43	% 46,2
<i>Berria</i>	157	16	% 10,2	87	% 55,4	54	% 34,4
<i>El País</i>	46	1	% 2,2	25	% 54,3	20	% 43,5
<i>El Mundo</i>	23	—	—	11	% 47,8	12	% 52,2

3.9. irudia. Orrialdeak ireki zituzten testuen ehunekoa, egunkari bakoitzak argitaratutako kopuru osoaren aldean



Datu horiek 2013koekin alderatuta, ikusten dugu azalean testu gehiago argitaratzen dituzten egunkariak *El País* (% 14,8rekin, ehuneko esanguratsua) eta *El Mundo* (ehuneko altuarekin: 10,8) dira. Alabaina, bi egunkari horiek argitaratutako testu urriek (46 baino ez *El País*ek eta 23 *El Mundok*) dakarte datuak ez izatea bereziki esanguratsuak, gainerako egunkariekin alderatuta. Bestalde, *Gara* % 3,4 areagotu ditu irekitzeak, eta *Diario de Noticias de Álava* eta *Berria* ezer gutxi egin dute *Gara*: % 0,2.

Gainerako hedabideetan eta 2013aren aldean, murriztu egin da irekitzeen ehunekoa. Murrizketa moderatua da *Deiarena* (1,3 puntu) eta *El Correorena* (2,3). Jaitsiera handiena *El Diario Vasco* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkarietan gertatu da (bietan dago % 3,9ko jaitsiera).

3.2.3. Material grafikoak

Egileak eta erabilitako materia-mota

1.371 argazki
+
45 infografia
=
1.416 irudi idatzien
% 76an

Aztertutako 9 egunkariet, guztira, 1.371 argazki (% 97) eta 45 infografiko (% 3) argitaratu zituzten; hots, 1.416 ilustrazio. Alde batetik, argazkien harira, gehien-gehienak egunkarienak dira (% 76,0), agentzien argazkien aldean (% 24,0). Antzeko zer-bait gertatzen da argazki argigarriekin (% 68,9), informazioa ematekoekin alderatuta (% 31,1). **Infografikoen kopurua 45 da, kopuru benetan txikia, baina ohikoa, aintzat hartuta hedabide batek ikuste-baliabide horiek egiteko erabili behar duen denbora.**

Idatzi bat argazkiekin batera agertzeak esan nahi du, oro har, hedabideak garrantzi handiagoa eman nahi diola. Orobat, idatziari infografiko bat eranstean badiote, garrantzia are handiagoa da, marrazki informatikoen lan eta denbora gehiago eskatzen dutelako. Albiste batek zenbat eta osagai gehiago izan, orduan eta garrantzi handiagoa izango du, baita ilustrazio-elementu gehiago dituen ere, izan argazkiak, izan infografikoak.

a) Argazkiak:

Argazkien atalean, ezberdindu egin dira agentziarenak eta egunkariak berriemaile grafikoak bidez egiten dituenak. Egunkari batek bereziki nabarmendu nahi dituen gaietan, lehentasun handiagoa ematen zaio bere material grafikoari, agentziak emandakoari baino. Egunkariaren euren material grafikoak eskusibotasuna ematen du, eta agentzien argazkiak, berriz, gainerako egunkarietara partekatzen dira. Hori dela eta, komunikabide batek uste badu gai hori bereziki interesgarria dela, bere argazkilariak eramango ditu irudiak lortzeko. Hortaz, material grafikoak egunkariena bada, balio handiagoa da.

b) Infografia:

Infografikoei dagokienez, halakotzat jotzen da irudiaren (marrazkia, grafikoak, argazkiak) eta testuaren arteko konbinaketa, hain zuzen, irakurleari informazio jakin bat ulertzen laguntzeko balio duena. Egunkarietara erabili zituzten azalpeneko irudiak argazkia prentsan sartu baino lehen ere. Aurreko mendeko 80ko hamarkadatik aurrera, diseinu grafikoko programa espezifikoak dituzten ordenagailu pertsonalak pixkanaka egunkariaren erredakzioetara sartu izanak bide eman zion infografiari suspertzeari. Azken urteotan, zerbitzuaren kaptaritzea izan da genero honek harrerarik onena izan duen arloetako bat, horrek aukera ematen baitie irakurleei prozesu jakin batzuk "ikusarazteko"; izan ere, ulertzeko zaila izango litzateke horren azalpena, soilik testuaren bidez emango balitz.

Egindako tratamendu grafikoari dagokionez, uste da harreman zuzena eta estua dagoela informaziozko argazki baten eta horrekin batera doan gertakariaren artean. Hau da, kontakizunak eta argazkiak erabateko kasetaritzea osatzen dute; bata eta bestea elkarren osagarri dira.

Bestalde, argazki ilustratiboen ez dute gaurkotasanaren osagaia; ia beti artxibotik ateratako gehigarri grafikoak izan ohi da, gertaerarekin loturikoa, eta funtsean ikusizko laguntza edo osagai gisa erabiltzen dena.

3.7 taulan zehazten dira argazki-materialaren inguruko datuak, eta 3.10.a irudian ehunekoetan ikus daiteke erabilitako argazki-materialaren irudikapen grafikoak.




Iturria: Deia eta El Diario Vasco



3.7. taula. Argazkiak eta infografikoak erabiltzea


Argazkiak					
Kopurua guztira	1.371	Argazkiaren ikuskaritza	Berezkoak	1.042	% 76,0
			Agentzia	329	% 24,0
		Argazki-mota	Informazioa ematekoa	426	% 31,1
			Ilustratiboa	945	% 68,9
Infografikoak					
Kopurua guztira	45				

3.10.a. irudia. Egiletza eta argazki material mota



Datu horiek 2013koekin alderatuz gero, esan dezakegu informazioa emateko argazkien eta argazki ilustratiboen ehunekoen kotak oso antzekoak direla, nahiz eta informazioa ematekoak zertxobait hazten eta ilustratiboak gutxitzen diren. Argazkien egiletzari dagokionez, nabarmen areagotzen dira agentzien argazkiak: 2013an % 15,2 ziren, eta 2014an % 24,0, eta horrek adieraz dezake areagotu egin dela hedabideek beren informazioak ilustratzeko berezko materiala lortzeko interesik eza. Bestalde, azpimarratzekoa da, era berean, informazioa emateko argazkiak ugaritu egin direla eta ilustratiboak murriztu, aurreko urtearen aldean. Horrek erakusten du lotura zuzenagoa dagoela elementu grafikoaren eta albiste-gaiaren artean. Bi urteetako datuen konparazioa 3.10.b irudian ikus daiteke.

3.10.b. irudia Egiletza eta argazki material mota (2012-2014)






txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan


Aztertutako hedabide bakoitzak bere informazioak ilustratzeko **material grafikoa** erabiltzeko moduari dagokionez, esan daiteke **El Correak eta El Diario Vasco** markatzen dituztela **kota handienak**, eta *Noticias de Gipuzkoa*, *Deia*, *Gara* eta *Berria* tartean mantentzen direla. Zifra txikiak dituzte *Diario de Noticias de Álava* (erabilitako argazki guztien % 8,4) eta *El País* eta *El Mundok* (azken bi horiek gainerako egunkarietatik nahiko urrun). 3.11 irudian ikus daiteke erabilitako argazkien ehunekoen irudikapen grafikoa.

3.11. irudia. Egunkariek erabilitako argazkien ehunekoa



Aurreko urtearen aldean, *El Correo* eta *El Diario Vasco* mantendu egin dira eta **kota altuenak** dituzte. Esanguratsuen da *Diario de Noticias de Álava* 5 puntu egin duela behera, eta *Deiak* 3 puntu. *Noticias de Gipuzkoak*, *Garak* eta *Berriak* areagotu egin dute erabilitako argazkien ehunekoa, eta *El País* eta *El Mundo* daude, berriz ere, azken: ehunekoa oso antzekoa dituzte, oso txikiak gainerako egunkarietara alderatuta.

2014an 45 infografiko argitaratu dira; hots, aurreko urtean baino 7 gutxiago. Kasu horretan ere **El Correak eta El Diario Vasco** erabili dituzte **informazioa emateko grafiko gehiago**, eta horien ostean daude, tarte handiarekin, *Berria* eta *Noticias de Gipuzkoa*. *Diario de Noticias de Álava*ren, *Deiaren*, *El País*en eta *El Mundoren* zifrak ez dira oso esanguratsuak- Nabarmentzekoa da *Gararen* datua: 2014an ez du inolako infografikorik argitaratu.




Iturría: El Correo



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.12. irudian jaso dira hedabideek 2014an erabilitako infografiaren ehunekoen datuak.

3.12. irudia. Erabilitako infografiaren ehunekoa



2012az geroztik erabilitako infografiaren ehunekoei begiratuta, egiaztatzen da **urtez urte joera beheranzkoa dela**. 2012an, marrazki informatikoak argitaratutako ilustrazio guztien % 9,2 ziren, eta ehunekoa % 3,8ra beheratu zen 2013an eta % 3,3ra 2014an. **Ilustrazio-material hori ekoiztearen kostuak dakar hedabideek zehatz aztertzea noiz den egoki testu bat informatika-irudiekin azaltzea, jakinik askoz ere merkeagoa dela argazki ilustratibo bat argitaratzea.**



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.2.4. Albisteen gaurkotasuna

2014an Elikagaien Segurtasunari buruzko 1.864 testu kaleratu ziren, eta, gaurkotasunaren ikuspegitik, 1.309 azkenaldiko gaien ingurukoak dira, 97 gaurkotasun luzatukoak eta 458 besterik ez gaurkotasun iraunkorrekoak.

1.864 testu

% 70,2 azkenaldikoak

**% 5,2 gaurkotasun
luzatukoak**

**% 24,6 gaurkotasun
iraunkorrekoak**

Gaurkotasunaren osagaia eta motak

Denbora, hau da, gaurkotasuna, osagai erabakigarria da beste kazetaritza-kontakizunen mota batzuei buruzko informazioak ezberdintzeko. Hori dela eta, kazetarien laneko oinarrizko jardueretako bat da gaur egungo gertaerak aukeratzea eta hedatzea.

Gaurkotasuna, gainera, ez da kontzeptu lineala. Baieztatzen denean gertaera bat gaur egungoa dela, ez du esan nahi une horretan bertan gertatu dela soilik; iraganeko garai batean ere gertatu ahal izan da, baina duela gutxi deskubritu da. Gaurkotasunak gertaerari zein duela gutxi eginiko deskubrimenduari egin diezaioke erreferentzia.

Kazetaritzaren esparruan, hiru gaurkotasun-mota daudela esan genezake, hain justu, ikerketan kontuan hartu direnak:

a) Azkenaldikoak:

Gertatu berri diren gertaeretan oinarritutako albisteetan aurkitu ohi ditugu, edo, bestela, une horretan deskubritu diren horietan. Gai horietako asko (esate baterako, gertaera jakin batzuk) argitaratzean amaitzen dira, eta oso denbora gutxi egon ohi dira indarrean.

b) Gaurkotasun luzatukoak:

Zenbait gai ez dira amaitzen argitaratzen diren egunean bertan (esate baterako, elikaduraren alerta bat), informazioko zenbait ondorio eragiten dituzte eta. Horrek eragiten du, hain justu, denbora-epe jakin baterako gertaerei arreta eskaintzea.

c) Gaurkotasun iraunkorrekoak:


Zenbait kontu, herritar sektore zabaletan izan ditzaketen ondorioengatik, beti dira egunerokotasuneko gaiak. Normalean pertsonen bizi-kalitatearekin lotura duten gertaerak izaten dira. Gaixotasunen tratamenduari buruzko ikerketa gaurkotasun iraunkorreko beste gaietako bat da.

Esan daiteke gertaerak zenbat eta itxaropen handiagoa sorrarazi edo ondorio gehiago sortu, orduan eta gaurkotasun handiagoa duela. 3.8 taulan azaltzen dira lortutako emaitzak, Elikagaien Segurtasunari buruz editatutako testuen egunerokotasun-motari dagokionez.

3.8. taula. Testuen gaurkotasun motak

Azkenaldikoak		Gaurkotasun luzatukoak		Gaurkotasun iraunkorrekoak	
Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%
1.309	% 70,2	97	% 5,2	458	% 24,6

3.13. irudia. Gaurkotasun motak, ehunekoen bitartez adierazita



Azkenaldiko gaurkotasunaren ehunekoa altua da (% 70,2), eta horrek adierazten du askotan, informazioaren aldetik, xertatze bakarra duten informazioak direla: informazioaren aldetik azkar sortzen eta desagertzen diren gaiak dira, egunik egun irauten ez dutenak.

Bestalde, gaurkotasun luzatuaren indizea oso txikia da, eta horrek adierazten du denboran luzatutako gaiak ez direla asko izan. Funtsean, ondoz ondoko zenbait egunez edo astez hedabideen informazio-jarraipena eragin zuten elikadura-alerta batzuk dira.

Egunerokotasun iraunkorreko testuak (hots, egunerokotasunik galtzen ez dutenak, beren garrantzia ez dagoelako loturik denbora-osagai suntsikorrari) % 24,6 dira. Esate baterako, elikaduraren edo nutrizioaren esparruko pertsona garrantzitsuei eginiko elkarrizketak dira, hausnartu egiten dutenak azkenaldiko egunerokotasunarekin lotu gabeko gaietara buruz. Hausnarketa orokorrak dira, beti egokiak eta egunerokoak, eta kazetariak edo hedabideak erabakitzen dutenean argitaratzen direnak.

Datu horiek 2013koekin alderatuta, ikusten dugu azkenaldiko egunerokotasuna duten testuek ia kota berari eusten diotela; egunerokotasun iraunkorrekoek 3 puntu egin dute behera, eta puntu horiek egunerokotasun luzatuko testuetara igaro dira. Antxoan anisakisa agertzea bezalako kasuek dakarte egunerokotasun luzatuko testuek gora egitea.

3.2.5. Erabilitako kazetaritza-generoak

Alde handiz, informazioa emateko generoa da nagusi (argitaratutako testu guztien % 78,6). Interpretazio-testuek dute bigarren lekua (% 14,6), eta iritzi-testuak % 6,7ra iristen dira ozta-ozta. Datu horiek adierazten digute gehienbat erraz lantzen diren testuak direla, ez dutela sakontasuna dakarten interpretaziorik eskatzen, ezta albisteei buruz hausnartzen laguntzen duten iritziak ere.

% 78,6 informazioa ematekoak

% 14,6

interpretaziokoak

% 6,7 iritzia ematekoak

Kazetaritza-generoak kazetariak euren istorioak jendeari kontatzeko erabiltzen dituzten adierazpen eta komunikazio literario ezberdinak dira. Profesionalen esku jartzen diren hizkuntza-baliabideak dira, komunikabide masiboen bidez mezuak zabaltzekoak. Ondorioz, profesionalak egindako testuak dira. Generoek pertsonen gertaeren inguruan ikasten, ulertzen edo berezko iritzia sortzen laguntzen diete.

Idatzizko kazetaritza-genero sorta zabala badago ere, jardunbide pedagogiko eta profesionalak aholkatzen du generoak hiru multzo handitan banatzea: informaziozkoak, interpretaziokoak eta iritziokoak. Hiru talde horiek ezberdintzen uzten duten eragileetako bat da kazetariaren (edo alea egin duenaren) interpretazio hori zein mailatan agertuko den islatuta testuaren ezaugarri gisa. Eragile horren arabera, honako aukera hauek aurki ditzakegu:

a) Informazioa ematekoak:

Kazetariak gertaerei edo datuei buruz egin dezakeen interpretazioa testuaren ezaugarri gisa agertzen ez den kontakizunak dira. Modu aseptiko edo deskriptibo hutsean egoerak kontatzen dituzten istorioak dira, eta horietan egilearen izaera ez da ia aditzera ematen. Albistea edo informazioa, foto-albistea eta laburra izango lirateke funtsean informaziozkoak diren aldaeretako batzuk.

b) Interpretaziokoak:

Testu horien xedea ez da soilik gertaera bat kontatzea, irakurleari horiek interpretatzen ere lagundu nahi diote eta. Interpretazioa ahula izan daiteke, txostenean bezala, edo bestela nabarmenagoa; kronikan, esaterako. Bloke honetan bai agertzen da islatuta egilearen nortasuna, eta horrek lehenengo pertsona erabil dezake bere narrazioan. Talde horren barruan egongo lirateke honako hauek: txostena, kronika eta elkarrizketa.

c) Iritzia ematekoak:

Aurrekoena ez bezala, genero honen asmoa ez da funtsean gertaera batzuk kontatzea, horiek aztertzea baizik, eta, zenbaitetan, epaitzea ere bai. Argitaletxearen kasua salbu, egunkari batek bere ikuspuntu ofiziala eskaintzen baitu gai jakin baten inguruan, genero horiek guztiak sinatuta doaz; izan ere, testuaren egilea erabakigarria izan daiteke irakurleek horrekiko interesa izateko, esaterako, zutabeekin gertatzen den bezala. Editorialarekin eta zutabeekin batera, kritikek, iritzi-artikuluek, zuzendariari gutunak eta beste zenbait bineta grafikok osatuko lukete multzo hau.

3.9. taula. Kazetaritza generoak eta bere aldaerak

Informazioa ematekoak	Interpretaziokoak	Iritzia ematekoak
—Informazioa edo albistea	—Txostena	—Editoriala
—Laburra	—Erreportajea	—Zutabea
—Foto-albistea	—Elkarrizketa	—Iritzi-artikulua
	—Kronika	—Kritika
		—Zuzendariari gutunak
		—Zenbait bineta grafiko



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan


Argitaratutako testuak, kazetaritza-generoen ikuspuntutik

1.864 txertatze egin ziren hedabideetan 2014an Elikagaien Segurtasunaren inguruan: 1.466 (% 78,6) informazioa emateko generoetakoak dira, 272 interpretazio-testuak (% 14,6) eta 126 (% 6,7) iritzi-testuak.

3.10. taula. Testuen banaketa orokorra kazetaritza generoen arabera

Informazioa ematekoak		Interpretaziokoak		Iritzi generoak	
Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%
1.466	% 78,6	272	% 14,6	126	% 6,7

3.14. irudia. Banaketa proportzionala, erabilitako generoen arabera



Datu horiek 2013koekin alderatuta, ikusten da informazioa emateko testuak zertxobait murriztu direla (ehuneko 1,5); orobat iritzia emateko testuak (0,6 puntu). Bada, horrek guztiak dakar interpretazio-testuak apur bat ugartzea (1,9). **Oso aldaketa txikiak dira; beraz, ezer gutxi islatzen dute kazetaritza-generoen erabileraren aurreko jarrera-aldaketei dagokienez.** Nabarmenagoa da, ordea, 2012. urtearen aldean: orduan, informazioa emateko testuak guztiaren % 66,20 izan ziren, interpretaziokoak % 21,40 eta iritzia ematekoak % 12,30.

a) Informazioa emateko generoak

% 75,2 informazio

% 21,7 laburrak


% 3,1 foto-albisteak

Informazioa emateko generoaren barruan, albisteak gailentzen dira % 75,2ko ehunekoarekin, albiste laburren (% 21,7) eta foto-albisten aurrean (% 3,1).

2014an txertatutako 1.466 informazio-gertaeren artean, 1.102 (% 75,2) albisteak dira, 318 (% 21,7) albiste laburrak, eta 46 (% 3,1), berriz, foto-albisteak. Albiste laburrak idatzi motzak dira, gehienez ere 15 lerrokoak. Garrantzi txikiko deskripzioak izan ohi dira, ez daude ia inoiz sinatuta, eta ez dute datuen jatorria azaltzen. Foto-albisteak informazio-testu mistoak dira, osagai ikoniko batek (argazkiak izan ohi dira) eta testu idatzi batek osatuak; hartara, testuak izenburua du eskuarki, eta ez ditu 10 lerro osatu baino gehiago. 3.15 irudian ikus ditzakegu horiek guztiak.



3.15. irudia. Informazioaren banaketa



Zifra horiek 2013an lortutakoekin alderatuta, ezer gutxi aldatu da. 2014an badago **informazioen beherakadak markatuko joera arin bat**, albiste laburrak eta Foto-albisteak areagotzen direla erakusten duena. **Horrek esan nahi du kalera-tutako testuen kalitatea zertxobait gutxitu dela.**

b) Interpretazio-generoa

Erreportajea % 52,2

Elkarrizketa % 46,7

2014an, kazetariak erabilitako interpretazio-genero bakarrak erreportajeak eta elkarrizketak izan dira. Enpresek babestutako publizirreportajeak bakarrik (% 1,1) irtetzen dira bi genero nagusiek ezarritako arautik.


Interpretazio-generoko 272 kontakizun plazaratu ziren 2014an, gehienak erreportajeak (% 52,2) eta elkarrizketak (% 46,7). Bi multzo horietatik 3 publizirreportaje (% 1,1) agertu izana besterik ezin dugu aipatu. Gainera, esanguratsua da txostenik eta kronikarik ez egotea kazetaritzan testu bidezko hedabide gisa.

Oro har, publizirreportajeak enpresek babesten dituzte; guri dagokigunez, elikaduraren inguruko enpresek. Batzuetan, babesa ez dago loturik testuaren gaiarekin. Beste batzuetan, berriz, testuaren edukia publizitarioagoa izan daiteke, eta, informazioa emateaz gain, enpresa babeslearen ezaugarriak ere nabarmentzen ditu.

Konplexutasuna eta zailtasuna dira kronikarik eta txostenik ez argitaratzeko arrazoia. Txostenak lan handia eskatzen du, eta aipamen estatistikoak nahiz adituen hausnarketak behar dira; kronikak, berriz, espezializazio-maila handia eskatzen du, eta, aurrerago ikusi ahal izango den bezala, ez da halakorik ikusi Elikagaien Segurtasunaren inguruko kontuak idazten dituzten kazetarien kasuan. 3.16.a irudian ikusgai dago datu horiei buruzko grafikoa.



3.16.a. irudia. Interpretazio testuen banaketa




Interpretazio-generoek aldaketa handiak izan dituzte aurreko urtearekin alderatuta (ikus 3.16.b irudia).

Elkarrizketa izan zen 2013an gehien erabilitako generoa (% 53,5), eta bigarren mailara igaro da, argitaratutako interpretazio-testu guztien % 46,7rekin. **Erreportajeek** luzaz gainditzen dute, **lehenengo maila baitute** (% 52,2); 2013an % 33,6ko kota zuten. Beste alde batetik, azpimarratzekoa da, aurreko urtean bezala, ez dagoela txostenik eta kronikak desagertu egin direla: 2013an % 4 izan ziren.

Publireportajeak direla eta, 2014an ere mantendu egiten dira, baina aurreko urtearen aldean beherakada nabarmena izan dute; izan ere, 2013an % 8,8 izan ziren, eta 2014an % 1,2.

3.16.b. irudia. Interpretazio testuen banaketa (2012-2014)





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

c) Iritzia ematekoak


Iritzi-artikuluak eta zutabeak % 92,1

Editorialak eta Zuzendariari gutunak % 7,9

Iritzi-testu gehienak artikuluak eta zutabeak dira. Artikuluak dute kota altuena (% 50,5), eta ondoren dituzte zutabeak (% 42,1). Zuzendariari gutunak % 5,5 dira, eta gaiei buruzko editorialak % 2,4.


126 iritzi-testu plazaratu ziren 2014an. Horietatik 63 (% 50,0) artikuluak dira eta 53 (% 42,1) zutabeak. Gainerako iritzi-testuak batuta (Zuzendariari gutunak eta editorialak), % 7,9ra heltzen dira. Aurreko urtean gertatu zen moduan, 2013an ere ez zen iritzia emateko binetarik topatu Elikagaien Segurtasunarekin lotuta.

3.17.a. irudia. Iritziaren banaketa



Datu horiek aurreko urtekoekin alderatuta, antzeko joera dago, iritzi-artikuluaren erabilerrari dagokionez. Oraingoan ere iritzi-artikuluak erabili dira gehien, nahiz eta 2014an areagotu egin den iritzi-zutabeekiko aldea. Aldaketa nabarmenenak editorialetan gertatu dira: 2014an erdia baino gehiago murriztu dira; zuzendariari gutunak, berriz, 0,5 puntu egin dute behera.

3.17.b. irudia. Iritziaren banaketa (2013-2014)





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Kazetaritza-generoak, egunkarien arabera

+informazio-testuak
El Mundo, El Diario
Vasco eta El Correo

+interpretazio-testuak
Berria, El País, Diario
de Noticias de Álava
eta Deia

+ iritzi-testuak
Noticias de Gipuzkoa,
Gara eta Berria

Honako hau da guztira argitaratutako testuen aldean erabilitako generoen ehunekoen arabera:

—*El Mundok, El Diario Vascok eta El Correok* argitaratzen dute, luzaz, informazio-testu gehien. Horietatik tarte handira daude *Diario de Noticias de Álava, Deia* eta *Noticias de Gipuzkoa*.

—Ehunekoetan, *Berria* da interpretazio-testu gehien argitaratzen duen egunkaria, eta ondoren ditu *El País* eta *Diario de Noticias de Álava*. Albistea baino testu landuagoak dira, kalitate handiagoa ere badutenak.

—*Noticias de Gipuzkoa* argitaratzen du iritzi-testu gehien; tarte handira ditu *Gara* eta *Berria*. Ehuneko txikiena *Diario de Noticias de Álava* eta *El Correo* dagokie.

El Mundok (informazioen % 100) argitaratzen du mota horretako testuen ehuneko handiena. Alabaina, oso testu gutxi atera zituen (53 besterik ez); beraz, datuak ez dira batera esanguratsuak.

Gainerako hedabideek argitaratutako informazio-testuen ehunekoak aztertuta, ondo bereizitako hiru multzo muga ditza-kegu: Lehenengo **El Correo (% 86,2) eta El Diario Vasco (% 83,5) daude: ehunekoetan, informazio-testu gehien txertatzen dute**. Bigarren multzoan daude *Diario de Noticias de Álava, Deia* eta *Noticias de Gipuzkoa*, % 75aren inguruko ehunekoekin. Hirugarren multzoan daude *Gara* (% 69,4) eta *Berria*: azken horrek % 63,0 du; hots, informazio-testuen kota txikiena. *El País* ere hirugarren multzo horretan legoke: *Gara* gainditzen du apur bat, baina, *El Mundorekin* gertatzen den bezala, guztira editatzen dituen testuen kopuru eskasa dela eta (46 besterik ez), bere datuek ez dute gainerako egunkarien ordezkagarritasun bera.

Interpretazio-testuei dagokienez, *El Paísek* du bigarren lekua ehunekoetan (% 21,7) eta testu-multzo horren edizioari dagokionez. Alabaina, esan dezakegu testu horien txertatze eskasak (10 baino ez) dakarrela datuak konparazioarako baliagarri ez izatea, gainerako egunkarien aldean. Beste hedabide batzuen artean, **Berriak argitaratzen du interpretazio-testu gehien (% 24,4)**. Jakina, informazio-testuen artean kota txikiena ezartzen duen egunkaria da, ahalegin handiagoa egiten duelako interpretazio- edo iritzi-testuetan. Puntu horretan bigarren multzo bat ezar dezakegu: *Diario de Noticias de Álava* (% 21,2), *Deiak* (% 19,8) eta *Garak* (% 16,6) osatzen dutena. Hirugarren multzoan daude interpretazio-testu gutxien txertatzen duten hedabideak: *El Diario Vasco* (% 12,3), *El Correo* (% 11,0) eta *Noticias de Gipuzkoa* (% 9,7). *El Mundok* (bere testuen % 100 dira informazioak) ez du inolako interpretazio-testurik argitaratu.

Iritzi-testuei dagokienez, *El Paísen* eta *El Mundoren*, eta gainerako egunkarien arteko datu konparatiboak bazter utzita, ondo bereizitako bi bloke daudela ikusten dugu. Lehenengo **Noticias de Gipuzkoa dago: iritzi-testuen % 15,7rekin, iritzi-testuen kota handiena du**. Ondoren daude *Gara* (% 13,9) eta *Berria* (% 12,5). Bigarren multzoan, aurrekotik tarte handira, *Deia* (% 4,2) eta *Diario de Noticias de Álava* eta *El Correo* daude, % 2,4rekin eta % 2,7rekin, hurrenez hurren.

El Diario Vascok Elikagaien Segurtasunari buruzko 455 testu kaleratu zituen, eta *El Correok* 407; beraz, horiek dira testu gehien kaleratzen dutenak, baina ehunekoetan batez ere informazioak editatzen dituzte. Ahalegin eta plangintza handiagoa eskatzen duten gainerako testuetan (erreportajeak, elkarrizketak...) gainerako egunkarien ondotik daude. Beste horrenbeste esan dezakegu **adituen iritziak erabiltzeari dagokionez**.

Bakoitzak erabilitako kazetaritza-generoen azalpen zehatza 3.11 taulan egiazta daiteke, eta horren adierazpen grafikoa, berri, 3.18 irudian.




txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.11. taula. Kazetaritza generoak, egunkarien arabera

	Informazioa ematekoa	Guztien %	Interpretaziokoa	Guztien %	Iritzia ematekoa	Guztien %
El Correo	351	% 86,2	45	% 11,0	11	% 2,7
El Diario Vasco	380	% 83,5	56	% 12,3	19	% 4,2
Noticias de Álava	97	% 76,4	27	% 21,2	3	% 2,4
Noticias de Gipuzkoa	176	% 74,6	23	% 9,7	37	% 15,7
Deia	161	% 75,9	42	% 19,8	9	% 4,2
Gara	100	% 69,4	24	% 16,6	20	% 13,9
Berria	116	% 63,0	45	% 24,4	23	% 12,5
El País	32	% 69,6	10	% 21,7	4	% 8,7
El Mundo	53	% 100,0				
GUZTIRA	1.466		272		126	1.864

3.18. irudia. Testuen banaketa, egunkarien eta kazetaritza generoen arabera



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Datu horiek 2013koekin alderatuta (berriz ere *El País* eta *El Mundo* bazter utzita, testu gutxi txertatzen dutelako), ikusten dugu ehunekoak aldatu arren, paralelismoa dagoela bi urteen artean. Jakina, ehunekoen aldaketak daude egunkari bakoitzak kazetaritza-generoek egiten duen erabileran, baina **jarrabide batzuek argi eta garbi bat egiten dute.**

2013an, informazio-testu gehien argitaratu zuten egunkariak *El Diario Vasco*, *El Correo* eta *Diario de Noticias de Álava* izan ziren. Multzo hori mantendu egin da 2014an, nahiz eta urte horretan *El Correo* argitaratu duen informazio-testu gehien (ez *El Diario Vasco*: bigarren dago). 2013an, informazio-testu gutxien argitaratu zuten multzoan zeuden *Deia*, *Gara*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Berria*, eta hala mantendu da 2014an ere, baina urte horretan testu gutxien argitaratu duen egunkaria ez da *Gara* (hirugarren lekura igaro da), ezpada *Noticias de Gipuzkoa*. 2013 eta 2014 artean ez da aldaketa nabarmenik gertatu informazio-testuen erabileran.

Berriak argitaratu du interpretazio-testu gehien 2014an (% 24,4), aurreko urtean bezala. Bigarren multzoan *Diario de Noticias de Álava* (% 21,2), *Deia* (% 19,8) eta *Gara* (% 16,6) daude. 2013an, egunkari horiek zeuden multzo horretan, nahiz eta interpretazio-testuen ehuneko txikiagoa izan horietan guztietan. Hirugarren multzoan, hala 2013an nola 2014an, *El Diario Vasco*, *El Correo* eta *Noticias de Gipuzkoa* zeuden, nahiz eta azken urtean ehunekoen arabera interpretazio-testu gutxien argitaratu duen egunkaria *Noticias de Gipuzkoa* (% 9,7) izan. Lehenengo dago, ordea, *El Diario Vasco* (% 12,3).

Iritzia dela eta, hala 2013an nola 2014an *Noticias de Gipuzkoa* argitaratu du gehien. 2014an, bigarren multzoan daude *Gara* (% 13,9) eta *Berria* (% 12,5); 2013an ere hala izan zen, baina alderantziz. 2014ko hirugarren multzoan daude aurreko urteko egunkari berberak, nahiz eta *El Correo* eta *Diario de Noticias de Álava* nabarmen murriztu dituzten iritzi-testuak (azken gelditu dira).

2014an, aurreko urtearen aldean ez dago aldaketa nabarmenik, aztertutako hedabideek kazetaritza-generoak erabiltzeko moduari dagokionez.



3.3. Albisteen informazio-iturriak ezagutzea

3.3.1. Testuak egitea

Argitaratutako testuen erdiak baino gehiago (% 51,1) egin dituzte beren sinadura testu argitaratuan sartu duten kazetariak. Bestalde, sinatu gabe argitaratutako testuak % 35,1 izan dira, eta zenbateko hori nahiko handizat jo daiteke.

Beren ekarpena analisi- eta iritzi-testuen bidez egiten duten adituen parte-hartzea % 5,5ekoa da. Agentziek 130 testu eman dituzte guztira (% 7,0).

**% 51,1 erredaktoreek
sinaturiko testuak**

**% 5,5 adituek sinaturiko
testuak**

**% 7,0 Informazio-agentziek
ekoiztako testuak**

Argitaratzen diren testuen egiletzak argibide garbiak ematen ditu, hedabideek argitaratzen dituzten informazioei ematen dieten garrantziaren inguruan. Testua sinatzeak dakar egileak erantzukizuna izatea argitaratutako datuen inguruan. Gainera, izen jakin bat behin eta berriz agertzeak adierazten du horren atzean Elikagaien Segurtasunaren arloan nola-baiteko eskarmentua duen profesionala dagoela. Ikerketa hau egitean, aintzat hartu dira testuak izan ditzaketen bost egile-mota:

a) Hedabideko erredaktoreak:

Egunkari jakin batean lan egin edo lagundu ohi duten kazetariak dira.

b) Informazio-agentziak:

Informazioaren handizkako nagusiak dira. Euren testuak, oro har kazetariak idazten dituztenak, euren zerbitzuetan harpidetuta dauden egunkari guztietara iristen dira modu berean. Egunkari batek erredaktore bat gertaera jakin baten berri ematera bidali ezin duenean, agentziak izan ohi dira eskura dauden informazio iturri bakarrak.

c) Pertsona espezializatuak:

Ez da ohikoa aditu jakin batzuk komunikabideekin lankidetzan aritzea eta euren espezializazio eremuarekin loturiko artikulak idaztea (medikuak, zientzialariak, ekonomialariak, abokatuak eta abar). Egile horien presentziak ere agerian uzten du egunkari batek espezialistak izateko erakusten duen kezka, hain zuzen, euren irakurleei intereseko gaien inguruko ikuspuntu kualifikatua eskaintze aldera.

d) Espezializatu gabeko pertsonak:

Hala espezializatuak nola espezializatorik gabekoek egin ditzakete, beren helburua Elikagaien Segurtasunarekin lotutako gaien inguruko ikuspegia ezagutaraztea denean.

e) Enpresek babestutako testuak:


Zenbaitetan, elikagai-enpresek testuak argitaratzea babesten dute. Publiurreportajeak izan ohi dira, informazioa eta publizitate gisako osagaiak batzen dituztenak.

f) Beste babesle batzuk:

Beste zenbaitetan, elikagai-enpresek ez beste elkarte batzuek babes dezakete testuak kaleratzea; esaterako, elkarte sindikalek.

g) Sinadurarik gabeko testuak:

Testu guztiek ez daukate sinadurarik. Kasu horietan, irakurleak ez daki nork idatzi duen testua. Oro har, informazioko agentzietara edo komunikazio kabineteetara jotzen dute, erakundeak zein enpresa pribatuaren eremukoak izan.



By Kim Piper Werker (Flickr - CC BY-SA 2.0)



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Testuen egileak zehatz-mehatz aztertu ondoren, aipatu beharreko zenbait kontu interesgarri topatu ditugu. Kaleratutako testuen erdiek baino gehiagok (954k, hau da, % 51,1ek) delako testua idatzi duen erredaktorearen sinadura dute. Bigarren multzoan daude sinadurarik gabeko testuak: 654 dira (zenbateko osoaren % 35,1). Hirugarren multzoan daude informazio-agentzietako testuak (130, % 7,0) eta pertsona espezializatuen lankidetzak, oro har analisia ematen dutenak, artikuluen eta iritzi-zutabeen bidez (102, % 5,5). Hirugarren multzoa garrantzi eskaseko hiru atalek osatzen dute: testu babestuek (guztira % 0,9) eta espezializatorik gabeko pertsonen lankidetzak, zuzendariari igorritako gutunek osatutakoak (% 0,4).

3.12. taulan daude ikusgai datu horiek, eta 3.19. irudian ehunekoetan jaso dira.

3.12. taula. Elikagaien Segurtasunari buruzko albisten ekoizpena


Testuen egilea	Testu-kopurua	%
Erredaktoreak	954	% 51,1
Informazio-agentziak	130	% 7,0
Pertsona espezializatuak (artikuluak, zutabeak eta abar)	102	% 5,5
Enpresak babestutako testuak	7	% 0,4
Beste babesle batzuk dituzten testuak	10	% 0,5
Pertsona espezializatuak edo espezializatu gabeak (Zuzendariari gutunak)	7	% 0,4
Sinadurarik gabe	654	% 35,1
GUZTIRA	1.864	

Datu horiek 2013koekin alderatuz gero, ikusiko dugu erredaktoreek sinatutako testuen ekoizpenaren ehunekoak 2 puntu murriztu dela. Egoera hori lotzen badugu adituek sinatutako testuetan ere gertatutako beherakadarekin (% 1,2), ondoriozta daiteke murriztu egin dela Elikagaien Segurtasunari buruzko testuen kalitatea.

Bere horretan, adituen testuak % 1,2 murriztea ez litzateke garrantzitsua izango, 2013. urtean adituek idatzitako testuak (iritzi-artikuluak eta zutabeak) 2012. urtekoen aldean 6,9 puntu murriztu izan ez balira; beraz, ematen du egonkortu egin dela beheranzko joera (etorkizuneko analisiek berretsi beharko dute hori horrela denetz). Halaber, esanguratsua da, ikuspegi horretatik, informazio-agentzien ekoiztutako testuak 1,5 puntu egin dutela gora.

Gainerakoari dagokionez, hala testu babestuak nola zuzendariari igorritako gutunak ezer gutxi aldatzen dira: dagozkien zenbatekoak ez dira aipagarriak.

3.19. irudia. Informazio ekoizpenen ehunekoetan banaketa (2013-2014)





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Egunkari bakoitzean argitaratzen dituzten erredaktoreak

Elikagaien Segurtasunaren arloko espezializazio mugatua

**Erredaktore
bakoitzak, batez
beste, 2,6 testu/urte**

**35 kazetarik 6 testu
edo gehiago sinatu
dituzte**

Aintzat hartuta aztertutako egunkarietan Elikagaien Segurtasunari buruz kazetariak sinatutako testuak egiten parte hartzen duten profesionalen kopuru handia (362), ezinbestean ondorioztatu behar dugu, salbuespen aipagarriak salbuespen, ez dagoela kazetari espezializaturik elikadura-gaietarako. 362 kazetari horiek 954 albisterei edizioan parte hartu dute; hots, batez beste, 2,6 albiste kazetari bakoitzeko. *El Correo* eta *El Diario Vasco* (% 2,8 testu/erredaktore) ezartzen dute profesionalizazio-maila handiena. Aurkako muturrean, *El País* eta *El Mundo* salbu (kota baxuenak dituzte, aldearekin), *Noticias de Gipuzkoa* dago: 2,5 albiste/erredaktore.

Elikagaien Segurtasunari buruzko testuak sinatu dituzten kazetarien % 9,7k esku hartu du 6 albiste edo gehiago egiten. Berriz ere *El Diario Vasco* kaleratzen ditu kazetari bakar batek egindako testu gehienak (40 txertatze).

Testuaren sinadura argitaratutako materialari laguntzen dion izen bat baino askoz gehiago da. Egilea identifikatzeaz gain, esan dezakegu testu sinatuek islatzen dutela hedabideak interes handiagoa duela argitaratutako testuaren inguruan. Editorialak albo batera utzita (ez dira sinatzen, hedabideak egunerokotasunaren inguruko gai garrantzitsuenen inguruko ikuspuntua adierazten dutelako), sinatu gabeko informazioak testu laburrak izan ohi dira, hedabideak isildutako jatorriko agentzia-informazioak edo interes eskaseko albisteak, argitaratzen dituen hedabidearentzat.

Erredaktoreek idatzitako 954 mezuetan, guztira 362 kazetarik hartu dute parte. Horrek esan nahi du erredaktore bakoitzak batez beste 2,6 testu egin dituela. *El País* eta *El Mundo* salbu (batez beste 1,5 eta 1,6; espezializazio-kota txikiak dituzte, hurrenez hurren), espezializazio-maila handiena duten egunkariak, hedabide guztiek ezarritako batez bestekoa (2,6 testu/erredaktore) gainditzen dutenak, *El Diario Vasco* (batez beste 2,8), *El Correo* (batez beste 2,8) eta *Diario de Noticias de Álava* (batez beste, 2,7) dira.

Deiak, *Garak* eta *Berriak* 2,6 testu/kazetari dituzte batez beste, eta bat egiten dute batez besteko orokorrarekin (2,6), nahiz eta lehenengo multzotik tarte handira egon.

Espezializazio eskasena duen egunkaria, aipatutako bi salbuespenekin, *Noticias de Gipuzkoa* da: batez beste, 2,5 testu/erredaktore.

3.13. taula. Kazetarien eta sinatutako albisten arteko harremana

Egunkaria	Sinatutako testu-kopurua	Guztien %	Kazetari-kopurua	Testuen batez bestekoa
<i>El Correo</i>	243	% 59,7	85	2,8
<i>El Diario Vasco</i>	257	% 56,5	91	2,8
<i>Noticias de Álava</i>	70	% 55,1	26	2,7
<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	82	% 34,7	33	2,5
<i>Deia</i>	108	% 50,9	42	2,6
<i>Gara</i>	50	% 34,7	19	2,6
<i>Berria</i>	100	% 54,3	39	2,6
<i>El País</i>	31	% 67,4	21	1,5
<i>El Mundo</i>	13	% 24,5	6	1,6
GUZTIRA	954		362	2,6



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan


El País eta *El Mundo* egunkariak islatzen dituzte aurpegia eta ifrentzua, beren testu argitaratuen sinadurari dagokionez. **El Paísek (testu sinatuak: % 67,4) ezartzen du kota altuena.** Bestalde, *El Mundok* (argitaratutako testu guztien % 24,5ek du sinadura) ezartzen du kota baxuena. Alabaina, berriz ere, bi egunkari horietako txertatze eskasek dakarte ematen dituzten datuak ezin estrapolatzea. Nolanahi ere den, oso esanguratsua da *El Mundoko* testu sinatuen jaitsiera handia: 2013an sinaduren ehuneko handiena zuen (% 62,8), eta 2014an azken izan da.

Gainerako egunkariei dagokienez, **El Correok sinatzen du testu gehien (% 60 inguru).** Ondoren ditu % 55aren inguruan dabiltzan hiru egunkariak: *El Diario Vasco* (% 56,5), *Diario de Noticias de Álava* (% 55,1) eta *Berria* (% 54,3).

Ondoren dago *Deia* (% 50,9), aurreko multzoaren eta azken dauden *Gararen* eta *Noticias de Gipuzkoaren* (biak % 34,4rekin) artean.

3.20.a irudiko irudikapen grafikoan ikus daiteke testu sinatuen eta egile-kopuruaren arteko harremana.

3.20.a. irudia. Testuen banaketa, egileraren eta egunkariaren arabera



Datuok 2013koekin konparatuta (ikus 3.20.b irudia), esan dezakegu joera orokorra izan dela ez aldatzea Elikagaien Segurtasunaren arloko gaien tratamenduko espezializatorik; izan ere, sinatutako testuen eta testuak egin dituzten kazetarien batez bestekoa 2,5ekoa izan zen 2013an, eta 2,6koa 2014an. Hau da, kazetari gutxiagok testu gehiago egiten dute. Halere, esan behar da espezializazio-maila oso baxuak direla eta ehuneko areagotuak benetan txikiak direla.


Espezializatorako joera igartzen da *Berrian*: haren ehunekoak % 4 egin du gora. *Diario de Noticias de Álavak* ere % 3,1 handitu du ehunekoa, eta *Garak* % 2,5. Halaber, nahiz eta gutxi izan, ehunekoa areagotu du *El Correok* (zehazki, % 0,4). *El Diario Vascok*, ordea, zertxobait murriztu du (1 puntu egin du behera aurreko urtearen aldean). Espezializazio-faltarako joera handiena duten egunkariak *Noticias de Gipuzkoa* (10,9 puntuko jaitsiera) eta *Deia* dira (% 5,1eko jaitsiera).



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Azkenik, esan dezakegu erredaktoreek sinatutako testuak murriztu dituzten hiru egunkariak Noticias taldekoak direla; beraz, berretsi egin da talde mediatiko horren espezializazioa murriztu dela, Elikagaien Segurtasunaren arloko informazioen tratamenduari dagokionez.

3.20.b irudia. Testuaren batez bestekoa, egilearen egunkariaren arabera (2013-2014)



2014an aurreko urtearen aldean espezializazioan ikusitako areagotze txikiak dakar esan ahal izatea **hedabide guztiek darabiltzabela kazetari gehiegi testuak idazteko.**

Aztertutako hedabide guztietan testu sinatuak egiteko dauden erredaktoreen presentzia masiboa aintzat hartuta, hautatu egin dira aztertutako hedabideetan 2014an 6 testu edo gehiago txertatu dituzten profesionalen izenak. Epaia 6an ezarri da emaitza globalei begira, nahikotzat jo delako nolabaiteko espezializazioaz hitz egin ahal izateko.

Guztira 35 kazetarik argitaratu dituzte 6 informazio edo gehiago. 2013an gertatu zen bezala, *El Diario Vasco*ko Alberto Echaluze da, 40 txertatzerekin, Elikagaien Segurtasunari buruz informazio gehien argitaratu duen kazetaria. Egunkari horretako gainerako egileak (beste sei, Echaluzez gain) 30 testutik hurbil daude.

Bestalde, *El Correo* eta *Deiak* (1 pertsona 20 testu baino gehiagorekin) osatzen dute espezializazio handiko kazetarien bigarren multzoa.

Hirugarren multzoa zenbait egunkaritako kazetariak osatzen dute; zehazki, 10-12 albiste artean sinatzen dituztenek. Atal honetan *El Correo*ko kazetari bat, *El Diario Vasco*ko bi, *Diario Noticias de Álava*ko bi, *Noticias de Gipuzko*ko bat eta *Garako* bat daude. Gainerako kazetariak 6 eta 9 testu artean argitaratu dituzte.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.14. taula. 6 kontakizun edo gehiago argitaratu dituzten kazetariaren zerrenda, egunkariaren arabera

Kazetariaren izena	Egunkaria	Testu-kopurua	Kazetariaren izena	Egunkaria	Testu-kopurua
Alonso, Aitor	<i>El Correo</i>	9	Pérez, Pablo José	<i>Noticias de Álava</i>	12
Álvarez, Itxaso	<i>El Correo</i>	9	Sanz, Jaione	<i>Noticias de Álava</i>	10
Apezteguia, Fermín	<i>El Correo</i>	19	Basaldua, Ramón	<i>Noticias Gipuzkoa</i>	10
Artime, Mirari	<i>El Correo</i>	23	Domínguez, Anabel	<i>Noticias Gipuzkoa</i>	8
Cancho, Rosa	<i>El Correo</i>	6	Fernández, J.	<i>Noticias Gipuzkoa</i>	8
Góngora, Francisco	<i>El Correo</i>	10	Agirregoikoa, Ainhoa	<i>Deia</i>	6
Gude, Erlantz	<i>El Correo</i>	6	Basaldua, Ramón	<i>Deia</i>	23
Llamas, Sergio	<i>El Correo</i>	7	De la Rosa, Tamara	<i>Deia</i>	8
Nuño, Nuria	<i>El Correo</i>	6	Lago, Concha	<i>Deia</i>	7
Tomé, María José	<i>El Correo</i>	8	Aramendi, Xole	<i>Gara</i>	12
Valera, David	<i>El Correo</i>	6	Basterra, Juanjo	<i>Gara</i>	9
Aldaz, Arantxa	<i>El Diario Vasco</i>	9	Arratibel, Ainhara	<i>Berria</i>	6
Algaba, Alexis	<i>El Diario Vasco</i>	10	Elizondo, Edurne	<i>Berria</i>	6
Azurmendi, Nerea	<i>El Diario Vasco</i>	13	Fernández, Jon	<i>Berria</i>	6
Echaluze, Alberto	<i>El Diario Vasco</i>	40	Garate, Miren	<i>Berria</i>	8
González, Marian	<i>El Diario Vasco</i>	6	Muguruza, Araitz	<i>Berria</i>	9
Urdangarin, Ane	<i>El Diario Vasco</i>	6	Muñagorri, Lander	<i>Berria</i>	9
Lago, Concha	<i>Noticias de Álava</i>	6			


Datu horiek 2013koekin alderatuz gero, ikusiko dugu 1 puntu areagotu dela 6 albiste baino gehiago argitaratu dituzten kazetariaren kopurua. Gainera, aldaketa interesgarri batzuk aipa ditzakegu.

2013an, *El Correo*ko sei kazetarik 62 testu idatzi zituzten guztira; hots, 10,3 batez beste. 2014an 6 testutik gora ekoitzi zituzten kazetariak 11 izan dira, eta 109 testu izan dira guztira; hots, batez beste, 9,9. **Handitu egin da kazetari eta testuen kopurua, baina ezin dugu esan horrek espezializazio handiagoa dakarrenik.** Bi urteetan agertu dira bi kazetari testuen edizioaren buruan: Fermin Apeztegia (19 testu 2013an eta 2014an) eta Mirari Artime (15 testu 2013an eta 23 2014an). Egunkari horretan espezializaziotik hurbilen dauden bi kazetariak dira.

2013an, *El Diario Vasco*ko zortzi kazetarik 79 albiste kaleratu zituzten guztira (batez beste, 9,9 testu). 2014an, sei kazetarik 84 albiste idatzi dituzte (batez beste, 14,0 testu). Kasu horretan esan daiteke *El Diario Vasco*ko erredaktoreen espezializazioa areagotu egin dela. Alberto Echaluze (31 testu argitaratu zituen 2013an eta 40 2014an) du espezializazio handiena egunkari horretan.

Gainerako egunkarietan ez da aipatzeko moduko aldaketarik gertatu; gehienez ere, aipa daiteke *Diario de Noticias de Álava*n Concha Lago, Pablo José Pérez eta Jaione Sanz direla, berriz ere, erredaktore espezializatuenak. *Deian* Ainhoa Agirregoikoa eta Concha Lago ageri dira berriz, *Garan* Juanjo Basterra eta *Berrian* Miren Garate. **Noticias de Gipuzkoan ez dago bat etortzerik; beraz, esan dezakegu espezializaziotik gehien urruntzen den egunkaria dela. 3.20c irudian ikus dezakegu konparazio horren irudikatze grafikoa.**

3.20.c irudia. Gutxienez 6 txertatze argitaratu dituzten kazetarien kopurua (2013-2014)



Pertsona espezializatuak

**Aditu asko
testu gutxi**

Iritzia artikuluen eta zutabeen bidez ematen duten adituek argitaratutako testuen ehunekoa benetan txikia da. **Kolaboratzaileen kopurua handitzat (48 lagun) jo badaiteke ere, bere ekarpen globala 102 testukoa besterik ez da; hots, batez beste, 2,1 testu kolaboratzaile bakoitzeko.** Salbuespenen bat salbuespen, beraz, oso ekarpen puntualak eta eze-gonkorrak dira.

2013an bezala, ENBAko (Euskal Nekazarien Batasuna) koordinatzaile Xabier Iraola da horrelako testuen ekoizpenean gehien parte hartu duen espezialista. 2013an 13 testu ekoitzi zituen, eta 2014an 32: areagotzea oso handia da. *Noticias de Gipuzkoan* egin zuen eskuarki, baina egunkari horrek, zenbaitetan, Noticias taldeko beste batzuekin partekatzen ditu testuak (talde horretako kide da). Horrexegatik dira hain altuak espezialista horren parte-hartzearen kotak. *Noticias de Gipuzkoak* kolaboratzaile bat gehitu dio zerrenda horri: José Manuel Etxaniz, bost txertatzerekin; horrela, zalantzarik gabe, kolaboratzaile espezialisten partaidetza handiena duen egunkaria bihurtu da.

Berria ere espezializazio-ildo egonkorreko egunkari gisa sendotu da. Bi kolaboratzaile ditu (Jabier Agirre eta Arantza Lorenzo) lau testu edo gehiago argitaratu dituzten espezialisten zerrendan.

3.15. taula. Ekoizpen handiena duten pertsonen zerrenda, komunikabidearen arabera

Kazetariaren izena	Egunkaria	Testu-kopurua
Agirre, Jabier	<i>Berria</i>	5
Etxaniz, José Manuel	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	5
Iraola, Xabier	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	32
Lorenzo. Arantza	<i>Berria</i>	4


Datu horiek 2013koekin alderatuta (3.30.d irudia), ikusi dugu atzerapen esanguratsua gertatu dela espezialistek Elikagaien Segurtasunari buruzko testuak egitean duten parte-hartzean. 2013an guztira argitaratutako 1.803 testuetatik 121ean ager-

txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

tu ziren; ehunekoetan % 6,7 da. Bestalde, 2014an guztira argitaratutako 1.864 testuetatik 102an agertu dira; ehunekoetan % 5,2 da. Aintzat hartzen badugu 2013an murrizketa gertatu zela jada, 2012aren aldean, ikusten dugu **kolaboratzaile espezializatuen testuen joera beherazkoa dela urterik urte**.

Gainera, 2013an bost kolaboratzailek argitaratu zituzten bost testu edo gehiago, baina **2014an** kopuru hori argi murriztu da: **hiru kolaboratzailek bakarrik argitaratu dituzte bost testu edo gehiago**. 2014an, aldiz, testu espezializatuak kolaboratzaile baten inguruan kontzentratu dira: José Manuel Etxaniz (*Noticias de Gipuzkoa*) kolaboratzailearen inguruan. 2013an 13 testu kaleratu zituen guztira, eta 2014an 32 txertatze egin zituen.

3.20.d. irudia. Egile espezializatuak idatzitako testuak (2012-2014)



Informazio-agentziak

EFE agentzia Europa Press

Agentziek elikagaiei buruzko testuen ekoizpenean duten parte-hartzea ez da oso handia (% 6,9), baina **areagotze nabarmena gertatu da 2013aren aldean**; izan ere, % 1,4 egin du gora. **EFE eta Europa Press**, ordena horretan, agertu ohi dira Elikagaien Segurtasunari buruzko testuen ekoizpenean.

2014an elikadurari buruzko 130 testu editatu dira, eta gehienek EFe (68 albiste) eta Europa Pressen (44 testu) dute jatorria. Gainerako informazioek bi agentzia horiek elkarrekin bildutako datuak darabiltzate (6 testu), eta gainerakoak (12 informazio) agentzien izen generikoarekin sinatzen dira. Oro har, hedabide batek izen hori dabil testu bat prestatzen duenean, bi agentziaren edo gehiagoren datuak erabiltzen dituenen, eta bi horietako bat ere ez denean gailentzen.

3.16. taula. Agentzien eta argitaratutako testuen zerrenda


Agentziaren izena	Testu-kopurua
Agentziak	12
EFE	68
Europa Press	44
EFE/Europa Press	6



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Ikus daitekeen moduan, EFE eta Europa Press agentziek egin zituzten ia testu guztiak; gainera, beste 6 albiste egin ziren bi agentzia horietako datuekin, eta "Agentziak" izen generikoarekin sinatutako 12 informazioak ere egin zitezkeen, besteak beste, bi agentzia horien datuekin. 2013aren aldean, agentziak argi eta garbi kontzentratu ziren aipatutako bien inguruan; izan ere, besteak beste Nueva China, Vasco Press eta Xinhua agentziak, 2013an aipatzen zirenak, desagertu egin dira 2014an, informazio-hornitzaile gisa.

3.20.e. irudia. Agentzien testuen ehunekoak (2012-2014)



2013ko eta 2014ko datuen ehunekoak alderatuta, agentzien partaidetzari dagokionez, ikusi da aipatutako kontzentrazioaz gain, oreka dagoela "Agentziak" eta "EFE, Europa Press" ataletan. Aldaketa esanguratsua daude: EFEren 2014ko informazioen ehunekoa nabarmen murriztu da aurreko urtearen aldean (6,9 puntu jaitsi dira); bestalde, Europa Press agentziaren testuak areagotu egin dira, 2013aren aldean (8,3 puntu gehiago). Aintzat hartuz gero 2013an Europa Pressen testuak areagotu egin zirela 2012aren aldean, **ondoriozta daiteke urterik urte Europa Press agentzia egonkortzen ari dela, euskal hedabideetan Elikagaien Segurtasunari buruzko testuak egiten duen partaidetzari dagokionez.**

Babestutako testuak

Egindako txertatzeen kopuruaren ikuspegitik atal esanguratsua ez den arren (are gutxiago aztertuz gero 2014an bab estutako testuak txertatutako informazio guztien % 0,9 direla), halako informazioen bakantasanak ekarri zuen 2013an testu horien tratamendu espezifiko egitea; hala egin da 2014an ere, nahiz eta aurreko urtearen aldeko joera azpimarratzeko izan.

Babestutako testuen atalean, oro har elikadura-enpresek babestutako informazioak maiztasun jakin batekin hedabideetan agertzen diren testutzat jo dira; halakoak udalen, Elikaduren Segurtasunaren inguruko institutuen edo elikaduraren sektoreren bateko langileen sindikatuen babespean argitaratu ohi dira.

3.17. taula. enpresek eta bestelakoek babestutako testuak

Enpresaren izena	Testu-kopurua
Eroski Consumer	7
Beste babesle batzuk	
ENEK (Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoa)	9
OSALAN (Laneko Osasunaren Euskal Institutua)	1



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

2013. urtearen aldean, asko murriztu dira babesitutako testuak, hala enpresa babesleenak (9 izan ziren 2013an eta 1 2014an) nola testuen kopuru osoa (32 2013an eta 7 2014an). Babesei dagokienez, ENEEken partaidetza handitu da: erregulartasunez argitaratzen ditu testuak *Gara* egunkarian.

Zuzendariari gutunak

Zuzendariari helarazitako gutunen bidez parte hartzen duten pertsonen partaidetzan ez da aldaketa handirik gertatu. 2014an zuzendariari igorritako 7 gutun kaleratu ziren; hots, argitaratutako informazio guztien % 0,4. Kopuru hori hurbil dago 2013kotik: zuzendariari igorritako 10 gutun kaleratu ziren; hots, argitaratutako testu guztien % 0,5.

Gainera, nahiz eta 2013an zuzendariari gutunak igorri zizkieten pertsona espezializatuak asko izan ziren (idatzi zuten 8 pertsonetatik 5 espezialistak izan ziren), **2014an inolako espezializatorik gabeko herritarrek bakarrik igorri dituzte gutunak, eta horrek are gehiago beheratzen du hedabideetan irakurleek parte hartzeko atalaren maila.**

3.3.2. Albisteen jatorria

Geografia-esparrua

Testuen ehuneko oso-oso handi baten jatorria geografia-esparru autonomikoa da (% 83,2). Horien ostean, estatuko jatorriko testuak gailendu ziren (% 13,8), eta nazioarteko esparruko jatorria dutenak oso gutxi izan ziren (% 2,9).

% 83,3 Euskadi


% 13,8 estatua

% 2,9 nazioartea

Jatorria aztertzeko, hiru geografia-esparru hartu dira kontuan: autonomikoa, estatukoa eta nazioartekoa. Hartara, jakin nahi da ikertutako egunkarien inguruak eragin erabakigarria ote duen albisteak hautatzean.

Guztira 1.864 testu izanik, 1.553 testu (% 83,3) esparru autonomikokoak dira; bestalde, horietatik 257k (% 13,8) soilik dute estatuko jatorria, eta 54 (% 2,9) nazioartekoak izan ziren. Inguruak hedabideetan duen eragina argia eta bistakoa da: albisteak gertatzen diren inguru geografikotik urrundu ahala, argitaratuen ehunekoak behera egiten du

3.21. irudia. Argitaratutako albisteen geografia esparruan



2013. urtearekin erkatuta, ia berbera da geografia-esparru autonomikoko albisteen ehunekoa: 2013an 83,2 ziren, eta 2014an 83,3. 2014an nabarmen egin zuten gora estatu-mailako albisteek (zehazki, 3,9 puntu), eta nazioarteko albisteak gutxiago izan dira: 2014an 3,8 puntu egin zuten behera, aurreko urtearen aldean. Funtsean, autonomiako albisteak mantendu egin dira, eta estatu-mailakoak sendotu, nazioartekoaren kaltetan.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.3.3. Informazio-iturriak

Argitaratutako testuek ez dute beti adierazten kazetariak albisteak egiteko erabili dituzten datuen jatorria; hau da, kazetariak ez du beti aipatzen iturria.

Kazetaritza-lanean, egokiena da testuan argitaratutako datuen iturria adieraztea. **Hartara, jendeak, gertakariez gain, informazio-iturriak ezagutuko ditu, eta horrek sinesgarritasun handiagoa emango dio testuari.**

Alabaina, kazetariak datuen jatorria ezkutatzeko sarri, izan iturriak hala eskatu duelako, izan oso albiste laburrak direlako eta ia inoiz ez delako iturriak adierazten, izan hedabideek ezkutatzeko dituzten agentziak erabiltzen dituztelako, izan albisteak iturri zehatzik kontsultatu gabe egiten dituztelako.

**Testuen % 34,6
informazio-iturriak
gabekoak**

**pertsonalak
erakundeenak
aldizkari espezializatuak
elikagaien enpresetakoak**

2014an, guztira 1.864 testu argitaratu ziren. Horietatik 645ek ez dute iturriak adierazten; hots, % 34,6k. **Ehuneko nahiko handia da, eta testu ia guztiak laburrak dira, iturriak aipatzen ez dutenak eta egilearen sinadurarik ez dakartenak.** 1.555 testutan ageri da esplizituki informazio-iturria; hots, % 65,3an.

Argi utzi behar da erabilitako iturrien kopurua ez datorrela bat testuen kopuruarekin. Izan ere, askotan iturri batek baino gehiagok esku hartzen dute testu bakar batean.

2014an Elikagaien Segurtasunari buruz argitaratutako 1.864 testuetatik, 1.219k esplizituki adierazten dute informazio-iturria, eta 645ek ez dute aipatzen. Guztira 1.555 iturri erabili ziren: batez beste, 1,3 iturri testu bakoitzeko.

2013arekin alderatuta, ia-ia berdin eutsi zaio jatorria aipatzen ez duten testuen kopuruari. Izan ere, 2013an % 35 ziren, eta 2014an, berriz, % 34,6. Ez da zifra esanguratsua, baina elikadurari buruzko testuen kalitatean beherazko joera adierazten du.

Iturriak pertsonak, dokumentuak, artxiboak, aldizkari espezializatuak, datu-bankuak eta abar dira, eta horietara jotzen dute kazetariak, euren albisteak sortzeko idazten dituzten zirriborroetarako. Kazetaritza-ekoizpenean, iturriak erabakigarriak dira eta lorratz mordo ematen dute profesionalen jardueraren inguruan.

Iturri asko eta askotarikoak daude, baina denak ez dira garrantzi berekoak. Iturri onenak beti izango dira pribilegiozko informazioa eta informazio espezializatua lortzeko bide ematen digutenak; hau da, adituak dira lantzen dituzten gaietan. Elikagaien Segurtasunari buruzko testuetan, honako kategoria hauetan sailkatu dira iturriak:

a) Pertsonak

Norberaren izenean (norbanako mailan) edota erakunde batean (publikoa zein ez) duten karguaren ordezkari gisa jardun dezakete.

b) Erakundeak

Batzuetan, erakundeak jartzen dira zuzenean harremanetan profesionalarekin. Oro har, komunikazio-kabineteak izaten dituzte hedabideekin harremanetan jartzeko. Erakundeak askotarikoak izan daitezke, eta balio handiko erreferentziak ematen dituzte, baina kasu horietan igorlea anonimotasunean babesten da maiz.

c) Enpresak

Erakundeen antzera funtziona dezakete. Arlo horretan, era berean, gero eta ohikoagoa da komunikazio-kabineteek ahalginak egitea, hedabideek enpresaren irudirako onuragarriak diren informazioak argitara ditzaten.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

d) Argitalpen espezializatuak

Argitalpen espezializatuak ere iturri gisa balio dezakete. Normalean, kazetarietat oso erabilgarriak izan daitezkeen azterlanak eta ikerketak biltzen dituzte. Testu paregabeak dira, kalitate eta berritasun gorenekoak. Oso interes handikoak dira, nahiz eta euren ahalmen guztia ustiatzen ez den.

e) Iturri anonimoa

Zenbaitetan, arrastorik eman gabe edo erabilitako iturriak aipatu gabe argitaratzen dira albisteak. Albiste laburretan nahiko ohikoa da, eta ohikoena izaten da sinatuta ez egotea eta jatorriaren iturria ere ez aipatzea. Jatorriari buruzko anonimotasun hori garrantziko zenbait informazioekin ere gertatu ohi da, baina gutxiagotan. Azken kasu horretan, esan daiteke akats profesionala dela; izan ere, irakurleentzat datuen edo testua idatzi duen kazetariaren berri izatea bezain garrantzitsua da informazioaren iturria jakitea.

2014an, gehienbat iturri pertsonalak erabili ziren kazetaritza-testuak egiteko (% 78,1); ondoren, erakundeen iturriak (% 17,5), argitalpenak (% 3,5) eta enpresak (% 0,9).


Elikagaien Segurtasunari buruzko 2014ko testuak idazteko erabilitako 1.555 informazio-iturrietatik, 1.215ean (% 78,1) pertsonak erabili dituzte; 212 (% 17,5) erakundeak dira, baina inolako bozeramailek ez du bitartekari-lanik egiten kazetariekin; 54 informazio-iturritan (% 3,5), kazetariak argitalpenetara jo dute, hala lehiakideen argitalpenetara nola aldizkari espezializatuak; eta 14 iturri (% 0,9) enpresak izan dira, elikakatearekin lotutakoak oro har. 3.18. taulan daude zehaztuta datu horiek.

3.18. taula. Informazio iturriak, kategorien arabera

Pertsonak		Erakundeak		Enpresak		Argitalpenak		Iturriak guztira
Testuak	%	Testuak	%	Testuak	%	Testuak	%	
1.215	% 78,1	272	% 17,5	14	% 0,9	54	% 3,5	1.555

Datu horiek 2013koekin alderatuta, ikusten da asko ugartu direla iturri pertsonalak: 8,3 puntura iritsi dira. Erabilitako beste informazio-iturriak, berriz, nabarmen urritu dira. Erakundeen iturriek % 2,5 egin dute behera, enpresek % 3,8 eta argitalpenek % 2,0. 3.22a irudian ikus daiteke grafikoa.

3.22.a. irudia. Iturrien ehunekoak, kategorien arabera (2012-2014)





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

a) Pertsonak

Pertsonak euren izenean edo erakunde, elkarte zein enpresaren batean duten karguaren ordezkari gisa jardun dezakete. Lehenengo kasuan, parte-hartzea banakakoa da, eta horren irismena, berriz, mugatua da ia beti. Bozeramaile jarduten dutenean, erantzukizuna partikularretik orokorrera doa, garrantzitsuagoa da eta albisteak ere oihartzun handiagoa du. Hori dela eta, iturri pertsonalak aztertu direnean, bereizi egin dira euren izenean jarduten dutenak eta erakunderen baten ordezkari jarduten dutenak.

Testuak egiten parte hartu duten **iturri pertsonalen % 71,5 erakunderen baten ordezkari aritu direnak dira**, baina askotariko iturriak eta espezializazio txikikoak izan ohi dira. Erakunderen baten ordezkari jardun duten 20 iturri pertsonalek baino ez dute parte hartu 6 testu edo gehiago egiten.

Albiste pertsonalen % 28,5ean, euren izenean jardun duten pertsonak izan dira iturri. Horietatik guztietatik, iturri batek baino ez du parte hartu 4 albiste edo gehiago egiten.

% 71,5 bozeramaileak

1. Administrazioa

2. Gizartea

3. Zientzialariak eta adituak

4. Nekazaritzako elikagaien sektorea

**% 28,5 euren izenean
jardun duten pertsonak**

Iturri pertsonalek parte hartu duten 1.215 albisteetatik 869 (% 71,5) erakunderen baten ordezkari jardun duten pertsonei dagozkie, eta 346 (% 28,5), berriz, euren izenean aritu direnei.

Euren izenean jarduten duten iturri pertsonalen eta organismoren baten ordezkari jarduten dutenen arteko ehunekoen banaketa 2013koaren parekoa da, organismorik ordezkatu gabe jarduten duten pertsonak zertxobait ugartu badira ere. Zehazki, euren izenean jarduten duten iturriak % 27,6 ziren 2013an, eta 2014an, berriz, % 28,4 (aldea ez da iristen puntu batera ere). Hori dela eta, erakunderen baten izenean jarduten duten iturriek ere alde bera izan dute: % 72,4 ziren 2013an, eta % 71,5 2014an. Horrenbestez, 2014an apur bat areagotu dira euren izenean jarduten duten iturriak, erakunderen bat ofizialki ordezkatzan duten iturrien kaltetan.

Euren izenean iturri gisa jardun duten pertsonak

Euren izenean jarduten duten iturriek parte hartu duten 346 kontakizunetan (% 28,4), kazetariak guztira 266 iturri jorratu dituzte; hau da, batez beste 1,3 testu iturri bakoitzeko.

Bere izenean jardun duen norbaitek oso gutxitan parte hartu du testu bat baino gehiago egiten.

Kasu askotan, talde bereberek hedabideek testuak partekatzen dituztelako gertatzen da hori (*El Correo* eta *El Diario Vasco*, alde batetik; *Diario Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Deia*, bestalde); beraz, horrela, iturri bakar bat hainbat hedabidetako testuetan agertzen da.

Iturri horietatik guztietatik, 40 alditan bakarrik aipatu da pertsona berbera iturri gisa bi testutan. Bestalde, beste 8 kasutan 3tan aipatu da, eta iturri batek bakarrik parte hartu du 4 testutan, eta beste batek 5 testutan.

3.19. taulan, euren izenean jardun duten eta 3 alditan edo gehiagotan parte hartu duten pertsonak jarri dira.




3.19. taula. Euren izenean iturri gisa jardun duten pertsonen zerrenda

Iturriaren izena	Jarduera	Testu-kopurua
Abasolo, Itziar	Abeltzaina	4
Aduriz, Andoni	Sukaldaria	5
Alustiza, Elena	Pediatra	3
Arzallus, Ametz	Bertsolaria	3
Burgueña, Jaime	Baserritarra	3
Elbusto, Ana	Nutrizionista	3
Elorriaga, Olalla	Sommelierra	3
Lizeaga, Ramon	Gaztagilea	3
Olarte, Pablo	Txagorritxuko sukaldaritza-zerbitzua	3
Polo, Iñaki	Txagorritxuko sukaldaritza-zerbitzua	3

Aurreko urtearen aldean (ikusi 3.22.b irudia), zertxobait murriztu da testuen ekoizpenean euren izenean jardun duten iturrien parte-hartzea. Halaber, gutxitu egin dira euren izenean jarduten duten pertsonen agerraldiak. Izan ere, 2014an 4tik 1era urritu dira 4 alditan iturri gisa parte hartu duten pertsonak.

3.22.b irudia. Iturri pertsonalen ordezkaritza mota (2012-2014)



Betetzen duten karguaren ordezkaritza izanik, iturri gisa jarduten duten pertsonak

Karguren baten ordezkaritzan jarduten duten iturri pertsonalak aztertzeko eta katalogatzeko, lau multzo ezarri dira:

Administrazioen ordezkaritza eta Elikagaien Segurtasunaren agentzien eta Osasun Publikoaren arloko arduradunak: kolektibo horretan sartu dira Eusko Jaurlaritzako ordezkaritza, Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saileko ordezkaritza, Osasun Saileko ordezkaritza, foru-aldundiak, ministerio-, udal- eta autonomia-gobernuetako ordezkaritza, administrazio-ko beste buruzagi batzuk (esate baterako, zuzendariak eta idazkari nagusiak), parlamentariak, Europar Batasuneko agintariak, agentzia publikoetako zuzendariak, ELIKA eta abar.

Zientzialariak eta Elikagaien Segurtasunaren arloko adituak: ikerketa-zentro, ospitale eta osasun-zentroetako kideak, medikuak, unibertsitateak, ikastetxeak, sektoreko profesionalen elkarteetako arduradunak eta abar.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Elikakatearekin lotutako erakundeak eta enpresak: lehenengo sektorea, elikagaien industria, eta farmazia-laborategiak eta elikagaien eta osasunaren sektoreko zein beste esparru batzuetako enpresak ordezkatzen dituzten banatzaileak, merkaturatzaileak, elkarteak eta pertsonak.


Gizarte zibila ordezkatzen dutenak: kontsumitzaileen elkarteak ordezkatzen dituzten pertsonak, GKEak, sindikatuak eta abar.

Erakunderen baten ordezkaritza legez jarduten duten 869 iturri pertsonaletatik 342 (% 39,3) administrazioarenak eta Elikagaien Segurtasunaren agentzienak dira; 157 (% 18,1), zientzialari eta adituenak; 145 (% 16,7), elikakatea osatzen duten pertsonenak; eta 225 (% 25,8), berriz, gizarteko ordezkariek. 3.20. taulan antolatuta dira erreferentzia horiek; 3.23 irudian, berriz, irudikapen grafikoa eman da.

3.20. taula. Karguren baten ordezkaritza izanik, iturri gisa jarduten duten pertsonak

Administrazioa eta Elikagaien Segurtasunaren agentziak		Zientzialariak eta adituenak		Elikakatea		Gizartearen ordezkariek	
Testuak	%	Testuak	%	Testuak	%	Testuak	%
342	% 39,3	157		145	% 16,7	225	% 25,8

3.23. irudia. Erakunderen bat ordezkatzen duten iturri pertsonalak



Karguren baten ordezkaritza jardun duten iturri pertsonalen parte-hartzea izan duten 869 kontakizunak idazteko, 413 pertsonak parte hartu dute (batez beste 2,1). Horrek agerian uzten du, berriz ere, **iturri asko erabili direla eta gutxieneko espezializazioa dutela.**

300 albistetatik, 20 iturri pertsonalek baino ez dute parte hartu 6 albiste edo gehiago idazten; hau da, batez beste 15 testu iturri bakoitzeko.

Kota altuenak Bittor Orozek (63 parte-hartze), Arantza Tapiak (25 parte-hartze), Leandro Azkuek (22 parte-hartze) eta Jon Darpónek (21 parte-hartze) dituzte. Lauek Eusko Jaurlaritzako sailtako ordezkaritza jardun dute. Sailkapen horren barruan sartzen da **Eugenio Elduayen ere; Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradiaren ordezkaritza aritu da 20 testutan.** 3.21. taulan ageri da betetako karguren ordezkaritza 6 testutan edo gehiagotan parte hartu duten iturri pertsonalen zerrenda.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.21. taula. Euren karguaren ordezkari izanik, iturri gisa jardun duten pertsonen zerrenda


Iturriaren izena	Jarduera	Testu-kopurua
Aranceta, Javier	Nutrizio Komunitarioaren Espainiako Elkarteko presidentea	9
Arias Cañete, Miguel	Nekazaritza eta Arrantza ministroa	6
Azkue, Leandro	Eusko Jaurlaritzako Arrantza zuzendaria	22
Barato, Pedro	Asaja (Asociación de Jóvenes Agricultores) elkarteko presidentea	7
Bengoia, Román	ENEEKeko (Euskadiko Nekazaritza eta Elikagai Ekologikoen Kontseilua) presidentea	11
Blanco, Miguel	COAGEko idazkaria	6
Cabanas, Carlos	Gobernuko Nekazaritza eta Elikagaien arloko idazkari nagusia	8
Darpón, Jon	Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua	21
Dorronsoro, Miren	Osasun Publikoa eta Adikzioak Arloko zuzendaria	7
Elduayen, Eugenio	Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradia	20
García Tejerina, Isabel	Nekazaritza eta Elikadura ministroa	20
Garmendia, Miren	Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioa	18
Gómez, Mariano	Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo zinegotzia	9
Labaien, Idoia	UPV/EHUko biologia-doktorea	8
Mateu, Antoni	Generalitateko Osasun Publikoko Agentziako idazkaria	6
Oroz, Bittor	Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea	63
Pardo, Irene	Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza diputatua	12
Román, Jesús	Sedca Zientzia Batzordeko presidentea	6
Tapia, Arantza	Gasteizko Gobernuko Nekazaritza sailburua	25
Zabaleta, Iñaki	Bizkaiko Arrantzaleen Kofradien Federazioa	16

Datu horiek 2013koekin alderatzen badira, joera argia ikusten da: parte-hartzean, organismoren bat ordezkari izan zuten informazio-iturrien kontzentrazio handiagoa dago. 2013an 7 iturrik bakarrik parte hartu zuten 10 testutan edo gehiagotan; 2014an, berriz, 10 pertsonak. Gainera, 2013an Miguel Arias Cañetek izan zuen parte-hartzerik handiena (32 testu), eta 2014an, berriz, Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak (63 testu).

Bestalde, kasu askotan bat datoz organismoren baten ordezkari izanik 2013an iturri gisa jardun zuten pertsonak eta 2014an jardun zutenak. Zehazki, 2014an iturri izan diren 9 pertsona iturri izan ziren 2013an ere: Javier Aranceta, Miguel Arias Cañete, Leandro Azkue, Miren Garmendia, Mariano Gómez, Bittor Oroz, Irene Pardo, Arantza Tapia eta Iñaki Zabaleta.

Sexuaren arabera iturri pertsonalei erreparatuta, euren izenean zein karguren baten ordezkari jarduten badute ere, egiaztatzen da halako iturriek parte hartzen duten 1.215 kasuetatik 876 (% 72,1) gizonak direla eta 339 (% 27,9), berriz, emakumeak. 2013aren aldean, beheranzko joera arina (% 1,3) ageri da emakumeek informazio-iturri gisa duten parte-hartzean.

3.24. irudia. Iturri pertsonalen banaketa, sexuaren arabera





b) Erakundeak

Zenbaitetan, hedabideek erakunde bat aipatzen dute datuen jatorri gisa. Baliteke iturri pertsonal batekin egindako ituna izatea, ez dadin berariaz aipatu. Beste batzuetan, litekeena da kazetariak ez jakitea zein den iturri pertsonala, betiere iturri horrek anonimoa izan nahi badu eta erakunderen baten izenean hitz egin badu. Nolanahi ere den, iturri asko daude, baina denak sailka daitezke erakunde-iturrien atal orokorrean.

Administrazioa

Gobernuz kanpoko erakundeak

Nazioarteko organismoak

Ikerketa-zentroak

Gehien erabiltzen diren erakunde-iturriak, lehenik eta behin, **Administraziokoak dira (% 36,8)**; ondoren, gobernuz kanpoko erakundeak (GKEak, sindikatuak, alderdiak, elkarteak...) (% 18,7), eta ikerketa-zentroak eta unibertsitate eta ikastetxeak (% 11,4).

Gutxieneko kotak ospitaleek eta osasun-etxeek (% 1,1), eta ELIKAK dituzte (ELIKA ez da behin ere agertu 2014an).

2014an erabilitako 1.555 iturrietatik, 272an erakunde batek parte hartu du, baina inolako bozeramailek ez du bitartekari-lanik egiten (iturri guztien % 17,5). 3.22. taulan jaso dira erreferentziak. Grafikoa 3.25.a irudian ikus daiteke.


3.22. taula. Iturri gisa zuzenean jarduten duten erakundeak

Iturriaren izena	Testu-kopurua	%
Administrazioak	100	% 36,8
ELIKA	0	% 0
Elikagai eta Osasun Segurtasunerako agentziak	10	% 3,7
Nazioarteko erakundeak (FAO, OME, OMC eta abar)	15	% 5,5
Ikerketa-zentroak	31	% 11,4
Unibertsitateak eta ikastetxeak	31	% 11,4
Profesionalen elkarteak	16	% 5,9
Enpresak, kooperatibak (elikakatea)	11	% 4,0
Kontsumitzaileen elkarteak	4	% 1,5
Ospitaleak eta osasun-zentroak	3	% 1,1
Beste batzuk (GKEak, sindikatuak, alderdiak eta abar)	51	% 18,7



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan


3.25.a. irudia. Bozeramailerik gabe jarduten duten erakundeen iturriak



2013ko datuekin alderatuta (ikusi 3.25.b irudia), administrazioak eta GKEak dira oraindik ere, hurrenez hurren, gehien erabiltzen diren erakunde-iturriak. Administrazioak gutxiagotan ageri dira, baina, proportzionalki, % 2,2 areagotu dira. Bestalde, **GKEek eta sindikatuen elkarteek nabarmen egin dute behera**: 35 agerraldi gutxiago; hau da, 5,5 puntu gutxiago.

2014an, **ikerketa-zentroak eta unibertsitateak** izan dira eragin handiena izan duten hirugarren eta laugarren erakunde-multzoa, biak % 11,4ko ehunekoarekin. Hala, **asko areagotu dira 2013ko datuen aldean**, orduan % 7,9 eta % 3,7 baitziren. Gainerako erakunde-iturriek, nazioarteko erakundeek izan ezik (% 3,8 egin dute behera), 2013ko antzeko ehunekoak dituzte, baina segurtasun-agentziek, profesionalen elkarteek, ospitaleek eta kontsumitzaileen elkarteek beheranzko joera erakutsi dute. Grafikoan ez daude profesionalen elkarten 2012ko datuak, kolektibo hori GKEekin eta sindikatuekin batera zenbatu zelako urte horretan.

3.25.b. irudia. Bozeramailerik gabe jarduten duten erakundeen iturriak (2012-2014)





c) Enpresak

Elikadurari buruzko albisteak egiteko prozesuan, alor horretako **enpresek** bi alderditatik parte hartzen dute. Batzuetan, zuzenean promozionatzen dituzte albisteak edo orrialdeak euren izenean (publirreportajeak), eta, beste batzuetan, albisteak egiteko datuak ematen dituzten informazio-iturri izaten dira. Azken kasu horretan, kazetariak enpresa jakin bat aipatzen du iturri gisa, baina enpresako inolako bozeramailek edo kidek ez du bitartekari-lanik egiten. **2014an, ia-ia desagertu egin dira elikadurari buruzko testuak ekoizteko prozesutik**, eta lekukotasuna emateko soilik aipatzen dira. 14 aldiz agertu dira; beraz, erabilitako iturrien % 0,9 dira.

Elikaduraren sektoreko enpresak % 0,9
(presentzia hutsala)

Informazio-iturri gisa enpresa komertzialak edo industrialak aipatzen dituzten 14 testuetan, guztira 5 konpainia ageri dira. **Behin baino gehiagotan ageri diren enpresa bakarrak Eroski (9 aldiz) eta Udapa Cooperativa (2 aldiz) dira.** Beste hiru enpresek (Cervezas La Salve, Karabeloko eta Kutxa) behin baino ez dute parte hartu.


3.23. taula. Bozeramailerik gabe iturri gisa jarduten duten enpresak

Enpresaren izena	Testu-kopurua
Cervezas La Salve	1
Eroski	9
Karabeleko (nekazaritza-ikerketarako enpresa)	1
Kutxa	1
Udapa Cooperativa	2

Iturri hau, esan bezala, lekukotasuna emateko agertu da, eta 2014an nabarmen egin du behera, 2013ko datuekin alderatuta. Orduan, 59 testu argitaratu ziren, eta 9 enpresak 3 alditan edo gehiagotan jardun zuten iturri gisa, eta iturri batek (Eroskik) 26 aldiz parte hartu zuen.

Ehunekoie dagokienez, informazio-iturri legez jardun duten enpresen presentzia (3.25.c irudia) murriztu egin da 2014an, aurreko urtearen aldean; zehazki, % 4,7tik % 0,9ra. Gainera, behin baino gehiagotan parte hartu duen enpresa bakarra Eroski da.

3.25.c irudia. Iturri gisa enpresak eta argitalpen espezializatuak erabiltzea (2012-2014)





d) Argitalpen espezializatuak

oso erabilera urria
aldizkari
espezializatuen
% 3,5

Aldizkari espezializatuak (zientzia-aldizkariak nahiz soilik elikadurari buruzkoak) potentzial handia duten arren, **hedabideek oraindik ere ez dituzte iturri gisa erabiltzen, eta, aurreko urtearen aldean, beheranzko joera nabari da.** 2014an, 54 testutan bakarrik erabili dira aldizkari espezializatuak iturri gisa; hau da, erabilitako iturrien % 3,5 dira.

Aldizkari espezializatuak (elikadurari eta nutrizioari buruzkoak zein zientzia-aldizkariak) zuzenean edo zeharka jarduten dute elikagaiei buruzko gaiak osatzeko prozesuan. Potentzial handia duten arren, 2014an, aztertutako 1.864 testuek 54 alditan besterik ez dute jo beste hedabide batzuetara informazio bila. Bestalde, iturri legez parte hartu duten 38 argitalpenetatik, 30 (% 78,9) behin bakarrik erabili dira, eta 8 baino ez (% 21,1) birritan edo gehiagotan. 3.24. taulan ageri dira 2014an aztertutako egunkarietan gehien aipatu diren 8 hedabideak.

3.24. taula. Iturri gisa erabilitako argitalpenen zerrenda

Argitalpenaren izena	Testu-kopurua
<i>Archives of Internal Medicine</i>	3
<i>Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE)</i>	5
<i>British Medical Journal</i>	2
El escándalo global de la comida (Tristram Stuarten liburua)	2
<i>Nature</i>	4
<i>Pediatrics</i> (aldizkaria)	2
<i>PlosOne</i> (aldizkaria)	2
<i>The Lancet</i>	3

2013an, iturri gisa jardun zuten argitalpenen ehunekoa % 5,5ekoa izan zen; 2014an, berriz, kotak 2,0 puntu egin du behera. 2013an, 15 argitalpen erabili ziren birritan edo gehiagotan, eta 2014an, berriz, 8.

Gainera, 2013an, *Eroski Consumer* aldizkariak 16 testutan parte hartu zuen, eta 2014ko kotarik handiena BOEri dagokio: 5 aldiz parte hartu du.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.4. Elikagaien arriskuen pertzepzioa eta tratamendua

3.4.1. Albisteen analisia, hilen eta egunkariaren arabera

“arrisku” hitza

albisteen % 9,5ek
aipatzen du
elikagaien arriskua

2014an, 177 albistek (% 9,5ek) erabili dute esplizituki *arrisku* hitza elikagaiez hitz egitean. **Ez da ehuneko handia, baina bai adierazgarria.** Izan ere, albo batera utzita Kantauriko antxoan maiatzean izan zen anisakisaren presentzia, **ia ez da gertatu elikagaien arrisku-egoerarik.** Halaber, kontuan hartu behar da elikagaien alertak sor daitezkeela, baina balitekeela hedabideek ez identifikatzea arrisku-egoera gisa.

2013ko azterlanean bezalaxe, atal berezi batean jaso dira *arrisku* hitza berariaz aipatzen duten albisteak, betiere elikagaien esparrukoak direnean. Kasu horietan, mezuek elikagaiei lotutako arriskuen berri ematen diote gizarteari; beraz, ez dira aintzat hartu *arrisku* hitza azterlan honen gaiarekin zuzenean lotuta ez dagoen testuak.

“Arriskuaren pertzepzioa” aipatzen denean, argitu behar da hedabideek gai jakin batzuei emaniko tratamenduaz bakarrik hitz egiten dela, eta ez irakurleen balizko hautemateaz; izan ere, alderdi hori neurtzeko, beste azterlan-mota batzuk egin behar dira.

2013ko txostenean adierazi bezala, prentsak arriskuaz duen pertzepzioa aztertzeko, hitz hori esplizituki erabili duten idatziak bildu dira. Halaber, aztertu da ea irakurleentzako aholkuak ematen diren, kontrol- eta/edo prebentzio-neurriak azaltzen diren eta alerta bati edo elikagai-krisi bati buruz ari den. Orobat, egokitzen jo da aztertzea kazetariak alertaz ematen duen ikuspegia positiboa, negatiboa edo neutroa den.

2014an, 177 testutan hitz egiten da arriskuaz beren-beregi; testu guztien % 9,5ean, alegia. Maiatzean 44 informazio jaso ziren; kopuru handia da urteko gainerako hiletakoaren aldean. Hil horretan, Eusko Jaurlaritzak informazioa eman zuen Kantauri itsasoan harrapatzen ari ziren antxoetako anisakisaren presentziari buruz, eta horregatik argitaratu ziren horrenbeste testu.

Bestalde, uztailean argitaratu zen horrelako testu gutxien: 6 informazio baino ez. Datu normala da, aintzat hartuta hil horretan Elikagaien Segurtasunari buruzko 93 testu bakarrik argitaratu zirela; 2014ko argitalpenen kotarik txikiena da.

Gainerako hiletan, oro har 10-18 testu artean argitaratu ziren (ekainean argitaratu ziren 10, eta urtarrilean 18). 3.25. taulan ematen da hilez hileko zerrenda, egunkariaren arabera.

3.25. taula. Arriskuari buruzko albisteak, hilez hil eta egunkariaren arabera


	El Correo	Diario Vasco	Not. Álava	Not. Gipuzkoa	Deia	Gara	Berría	El País	El Mundo	Total
Urtarrila	4	3	3	3	2		2		1	18
Otsaila	7	2		1			1		1	12
Martxoa	8	3	1				3			15
Apirila	5	3	3	3	1	1				16
Maiatza	5	8	3	5	6	3	6	5	3	44
Ekaina		5				2	2		1	10
Uztaila	3	2		1						6
Abuztua	2			4	2		3			11
Iraila	3	4			1			2		10
Urria		2	5	3	1		1	2		14
Azaroa	7	3			1	1				12
Abendua	5	2	1		1					9
Guztira	49	37	16	20	15	7	18	9	6	177

Datuok 2013koekin alderatuta, urritu egin dira arriskuei buruzko albisteak. Izan ere, 2013an 195 argitaratu ziren (% 10,8), eta 2014an, berriz, 177 (% 9,5). Beheranzko joera hori nabari da *Diario de Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Deia*, *Gara* eta *El Mundo* egunkarietan. Beherakadarik handiena *Deiak* eta *Garak* izan dute: *Deiak* 2013an 37 albiste argitaratu zituen, eta 2014an 15; *Garak*, berriz, 2013an 13 eta 2014an 7. *El Correok* bakarrik izan du gorakada nabarmena 2014an, iazko urtearekin alderatuta: 36 testutik 49ra igaro da.

Albisteen ehunekoa txikia izan da, 2014an ez delako gertatu elikagaien arrisku garrantzitsurik, salbu Kantauri itsasoan arrantzatutako antxoetako anisakisa.

Albiste gutxi egon direnez, *arrisku* hitza ere gutxitan aipatu da tituluetan. *Arrisku* hitza esplizituki aipatu den elikagaien inguruko 2014ko 177 albisteetatik, soilik 22 albistetan agertu da tituluari; hots, % 12,4an.

3.26.a irudia. Arriskuei buruzko albisten bilakabidea (2012-2013)





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.26. taula. Izenburuan arrisku hitza berariaz jasotzen duten albistek

Eguna	Egunkaria	Izenburua
2014/01/03	<i>Notic. Gipuzkoa</i>	El café reduce el riesgo de sufrir diabetes
2014/01/18	<i>El Mundo</i>	Euskadi aborda la «desigualdad social» como factor de riesgo para la salud
2014/02/09	<i>Diario Vasco</i>	«La obesidad aumenta el riesgo de padecer muchos tipos de cáncer»
2014/02/12	<i>Diario Vasco</i>	El exceso de proteínas en los niños aumenta el riesgo de obesidad
2014/02/16	<i>Berria</i>	«Mirarizko dietak», oinarririk ez eta arriskutsu
2014/03/05	<i>El Correo</i>	Una dieta con mucha proteína cuadruplica el riesgo de morir de cáncer
2014/03/19	<i>Berria</i>	«Oiolan arriskurik ez dagoela diote, baina astero ari dira ura aztertzen»
2014/03/21	<i>El Correo</i>	La apnea del sueño duplica el riesgo de síndrome metabólico
2014/05/09	<i>Berria</i>	Uzten %60tik gora arriskuan, erleak galduz gero
2014/05/10	<i>El Diario Vasco</i>	«En hostelería no hay riesgo, porque todas están congeladas»
2014/05/10	<i>El Correo</i>	En hostelería no hay riesgo porque todas están congeladas
2014/05/12	<i>Noticias Álava</i>	Cardiólogos advierten del riesgo de adicción a la sal
2014/06/20	<i>El Diario Vasco</i>	El Gobierno debe elaborar un nuevo protocolo para riesgos sanitarios
2014/09/02	<i>El País</i>	La obesidad en el embarazo eleva el riesgo de muerte prematura
2014/09/18	<i>Deia</i>	La obesidad, factor de riesgo para el cáncer ginecológico
2014/09/23	<i>El Diario Vasco</i>	«La batalla de los celíacos es poder comer sin riesgos en restaurantes»
2014/09/23	<i>El Correo</i>	«La batalla de los celíacos es poder comer sin riesgos en restaurantes»
2014/10/15	<i>El País</i>	Bebidas energéticas, adicción de alto riesgo
2014/10/15	<i>El País</i>	Un estudio alerta sobre el riesgo de las bebidas energéticas
2014/11/11	<i>El Correo</i>	Consumir frutos secos reduce un 30% el riesgo de morir de un infarto
2014/11/27	<i>El Correo</i>	La obesidad multiplica hasta por cinco el riesgo de padecer cáncer
2014/11/27	<i>El Diario Vasco</i>	La obesidad multiplica por cinco el riesgo de padecer un tumor maligno

2013an, 14 albistek aipatu zuten izenburuan *arrisku* hitza; hots, arriskuari buruzko albisteen % 7,2k; 2014an, berriz, % 12,4k. Hau da, **arrisku-egoerak daudenean, hedabideek askoz gehiagotan jarri ohi dituzte albistek lehen orrietan.**



3.4.2. Elikagaien arriskuari buruzko albisteetako gairik ohikoenak

Lehenik: “Osasuna, Nutrizioa, Alergiak”

Bigarrenik: “Elikagaien Arriskua”

Hirugarrenik: “Elikagaien Segurtasuna”


Funtsean gai-esparru bakarra nabarmentzen da (eta alde handia du gainerakoekin): “Osasuna, Nutrizioa, Alergiak”. Arriskuei buruzko 177 albisteetatik % 51,7 hartzen ditu. Bigarrenik, lehenengo gaiarekiko alde nabarmenarekin, “Elikagaien Arriskua” dago, % 20,34rekin. Hirugarrenik, “Elikagaien Segurtasuna” jorratzen duten gaiak daude, % 11,3rekin.

Azterlan honetako testuak banatzeko erabili diren zazpi gaietatik, bat argi eta garbi nabarmentzen da gainerakoen artean, *arrisku* hitza lotua duten albisteetan: “Osasuna, Nutrizioa eta Alergiak” esparruko gaiak, hain zuzen. Informazioen ia erdiak daude item horri lotuta. Bigarrenik, honako hiru gai hauek agertzen dira gehien (elkarren artean, ordea, alde handiak dituzte): “Elikagaien Arriskua” (% 20,3), “Elikagaien Segurtasuna” (% 11,3) eta “Elikagaiak, Elikadura” (% 8,5). Hirugarrenik, gai hauek ageri dira (alde handia dute, ordea, bigarren blokearekin): “Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza (% 1,7), “Elikagaien Industria” (% 1,1) eta “ELIKA” (ez du agerraldirik).

3.27. taula. Arriskuari buruzko albisteetako gairik ohikoenak

Gaiak	Testu-kopurua	%
Elikagaiak, Elikadura	15	% 8,5
Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza	3	% 1,7
Elikagaien Industria	2	% 1,1
ELIKA	0	0
Elikagaien Arriskua	36	% 2,3
Osasuna, Nutrizioa, Alergiak	101	% 57,1
Elikagaien Segurtasuna	20	% 11,3
GUZTIRA	177	

3.26.b. irudia. Arriskuari buruzko albisten gaiak





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan


Datu horiek 2013koekin erkatzen badira, ikusten da lehenengo eta behin elikagaien "arriskuarekin" zerikusia duten albisteek 1,4 puntu egin dutela behera ehunekotan.

Gai bakoitzaren analisi espezifikoa iradokitzen du, "Osasuna, Nutrizioa, Alergiak" gaia lehenengo postuan dago oraindik, baina % 9,9 egin du gora 2013aren aldean. Bestalde, 2013an, "Elikagaien Segurtasuna" gaia bigarren postuan zegoen, % 18,9rekin; 2014an, berriz, hirugarrenean, % 11,3rekin (7,6 puntu egin du behera). 2013an, "Elikagaien Segurtasuna" zegoen hirugarren postuan, % 15,4rekin; 2014an, berriz, bigarrenen, % 20,3rekin (4,9 puntu areagotu da ehunekotan).

Gainerako gaietan ere aldaketa nabarmenak izan dira 2013aren aldean: "Elikagaien Industria" gaiak 4 puntu egin du behera; "Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza" gaiak 5,5 puntu egin du behera; eta ELIKAK % 2,1 zuen 2013an, eta 2014an, berriz, agerraldi bat ere ez.

Azkenik, azpimarratzekoa da "Elikagaiak, Elikadura" gaiaren areagotzea: 2014an, iazko agerraldiak halako bi izan ditu, eta % 4,1etik % 8,5era igaro da.

3.26.c. irudia. Arriskuari buruzko albisten ehunekoa (2012-2014)



3.4.3. Elikagaien arriskuen tratamendua

**ez alertatzea
prebenitzea eta
gomendatzea**

Elikagaien Segurtasunari buruzko eta *arrisku* hitza jasotzen duten testuen % 70,0k ematen dizkie gomendioak irakurleei. % 36,1ek, gainera, prebentzio-neurriak azaltzen ditu, eta kasuen % 20,9an alertak edo elikagai-krisiak dira.


Argitaratutako 177 testuetatik, 124k (% 70,0) irakurleentzako aholkuak ematen dituzte. 64 testuk (% 36,1), gainera, prebentzio-neurriak argitaratu dituzte, elikagaien arriskuak murrizteko, eta 37 kasutan (% 20,9) alertak edo elikagai-krisiak ageri dira. 3.28. taulan jaso da datu horien azalpena.

3.28. taula. Arrisku hitza berariaz jasotzen duten albisteak

	Bai		Ez	
	Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%
Gomendioak	124	% 70,0	53	% 30,0
Prebentzioa	64	% 36,1	113	% 63,9
Alerta edo krisia	37	% 20,9	140	% 79,1

Kontrol- edo prebentzio-neurriak ematen dituzten testuen kopurua ia zokoaren antzekoa da; hori bai, 2014an % 0,8 egin dute behera. Bestalde, elikagai-krisiak edo -alertak iragartzen dituzten testuek 4,7 puntu egin dute behera 2014an. Al-daketarik garrantzitsuena, ordea, kontsumitzaileentzako gomendioak ematen dituzten testuetan gertatu da: % 21,8 area-gotu dira.

3.26.d. irudia. Aholkuen, prebentzio neurrien edo elikagai alerten edo krisien agerraldia (2012-2014)






3.4.4. Elikagaien arriskuei buruzko albisten ikuspegia


Ikerlanean, hedabideek elikagaien arrisku-egoeretan ematen duten ikuspegia ere aztertu da. Horretarako, hiru jarrerari erreparatu zaie: arriskuaren ikuspegi positiboa, arriskuaren ikuspegi negatiboa eta horren ondorioak, eta ikuspegi neutroa. **2014an, hedabideek alerten inguruan izan duten jarrera nagusia neutroa izan da:** arriskuei buruzko testuen % 44,6. **Ondoren, hedabideetan batez ere alerten gaineko ikuspegi negatiboa agertzen da** (% 32,8), eta, azkenik, ikuspegi neutroa (% 22,6).

3.27.a. irudia. Ikuspegi mota: positiboa, negatiboa edo neutroa



Datu horiek 2013koekin alderatuta (ikus 3.27.b irudia), aldaketa esanguratsuak gertatu dira, batik bat ikuspegi positiboari eta negatiboari dagokienez. **2014an, iazko urtearen aldean, nabarmen egin du behera alerten inguruko ikuspegi positiboak:** 14,3 puntu galdu ditu. **Bestalde, ikuspegi negatiboak % 7,2 egin du gora 2013aren aldean.** Bi urteotan, orekarik handiena hedabideen ikuspegi neutroak izan du: 2014an % 3,6 murriztu da, 2013aren aldean.

3.27.b. irudia. Ikuspegi mota: positiboa, negatiboa edo neutroa (2012-2014)



3.4.5. Elikagaien arriskuei buruzko albisten gaurkotasuna

**arriskuei buruzko 177
albiste**

% 50,3 azkenaldikoak


**% 31,1 gaurkotasun
iraunkorrekoak**

**% 18,6 gaurkotasun
luzatukoak**

Kazetaritzako gaurkotasunaren ikuspegitik, arriskuari buruzko albisten % 50,3 (89 txertatze) azkenaldikoak dira, % 31,1 (65 albiste) gaurkotasun iraunkorrekoak eta % 18,6 (33 testu) gaurkotasun luzatukoak. Beraz, ikus dezakegu elikagaien arriskuei buruzko testuen % 18,6 bakarrik argitaratzen dela ondoz ondoko zenbait egunetan edo aldizka, baina denboran irauten duten gaiet buruzkoak dira.

Testuak hiru gaurkotasun-mota horien ikuspegitik aztertuta (azkenaldikoak, gaurkotasun luzekoak eta gaurkotasun iraunkorrekoak), jakin daiteke arriskuei buruzko testuak egun batean sortu eta desagertzen diren (azkenaldikoak), edo, bestela, denboran irauten duten elikagai-arriskuei buruzkoak diren eta zenbait egunez jarraian argitaratzen diren (gaurkotasun luzatua). Halaber, jakin daiteke gaurkotasun iraunkorrekoak diren (gizarteko errealitateari oso lotuta dauden gaiak jorratzen dituztelako), denborak aurrera egin ahala ez badira desagertzen.

3.28. irudia. Gaurkotasun mota



2013ko datuekin alderatuta, ezberdintasun nabarmenena da azkenaldiko gaiak areagotu direla (% 8,8), gaurkotasun luzatukoaren kaltetan (6,5 puntu egin dute behera). Gaurkotasun iraunkorreko testuen kopurua iazkoaren antzekoa da; hala ere, 2014an % 2,3 egin dute behera 2013koen aldean.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.4.6. Elikagaien arriskuei buruzko albisten kazetaritza-generoak


arriskuei buruzko 177 albiste

% 97,2 informazio- eta interpretazio-albisteak

Arriskuari buruzko albisteetan erabilitako kazetaritza-generoen ikuspegitik, informazio-testuak % 61,6ra areagotu dira; interpretazio-testuak, berriz, % 35,6ra iritsi dira, eta iritzi-testuak % 2,8 dira.


Elikagaien arriskuari buruzko testu guztietatik, gehienak informazio-generokoak dira: 109. Interpretazio-testuei dagokienez, elikagaien generorik ohikoena erreportajea da: 32 testu daude (% 18,1). Bigarrenak elkarrizketak dira: 25 argitaratu dira, % 14,1 dira. Interpretazio-testuetan, kronikak argitaratu dira gutxien: % 3,4.

3.29. irudia. arriskuei buruzko albisten genero motak



Datuok 2013koekin alderatuta, nabarmen areagotu dira informazio-testuak: % 13,9. Bestalde, erreportajeek % 8,3 egin dute behera, kronikek % 1,7 eta iritzi-testuek % 3,3. 2013ko antzeko mailak dituen genero bakarra elkarrizketarena da: % 0,7 egin du behera.

3.30. irudia. Generoen presentzia arriskuei buruzko albisteetan (2013-2014)





4. KAPITULUA

ELIKAGAIEN SEGURTASUNeko 2014ko GAI GARRANTZITSUENEN ANALISIA

2014ko gai garrantzitsuenetan gehien agertzen diren topikoei erreparatu gero, ikusten da anisakisak Kantauriko antxoan izan duen presentziaren gaiak eragin duela testu gehien hedabide ia gehienetan, nahiz eta batez ere maiatzean izan. Urte osoan, ordea, ez da beste arrisku-egoerarik gertatu.

Interes handieneko gairik ohikoenak "Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza" izan dira; batez ere Arrantza, udako hiletan asko joratu baita. Ondoren, ohikoenak "Osasuna, Nutrizioa, Alergiak" dira, eta, horien atzetik, "Elikagaien Industria".

Lehenik:
**"Nekazaritza,
Abeltzaintza, Arrantza"**

Bigarrenik:
**"Osasuna, Nutrizioa,
Alergiak"**

Hirugarrenik:
"Elikagaien Industria"

Aztertutako hil bakoitzeko gai garrantzitsuenak hautatzeko, kazetaritza-irizpide zurrunik erabili dira. Besteak beste, Mauro Wolf egileak "albiste-balioa" kontzeptua azaltzen du: laburbilduz, gertakizun batek informazio-eduki bihurtzeko hautatua izateko izan beharreko ezaugarria da.



4.1. “Albiste-balioa”-ren faktoreak

Azterlan honetan, gogoan izan dira honako sei albistegarritasun-faktore nagusi hauek:

a) Gaia jasotzen duten hedabideen kopurua:

gai bakar bat zenbait hedabidetan agertzen bada, *a priori*, albistegarritasun-plusa du. Pentsa liteke albisteak zenbait argitalpenetan jasotzeko behar besteko oihartzuna izan duela.

b) Gaien kokapena:

hedabideek hierarkia bisuala ezartzen dute, irakurleei helarazteko gertaerei ematen dieten garrantzia. Hasiera batean, azalean kokatutako albiste guztiak bereziki garrantzitsutzat jotzen dira. Atal batean, albiste nagusiak hasieran kokatzen dira. Orrialde bakoitzean, goialdean kokatutako itemak dira garrantzitsuenak hedabide horretan. Hori dela eta, edukiek maketan duten kokapena beste faktore bat da, aintzat hartu behar dena edukiei ematen zaien informazio-garrantzia neur-tzean.

c) Gaurkotasun luzatua:

gaiak zenbait egun irauten dutenean, garrantzitsuagozat jotzen dira, egun bakar batean jasotzen direnak baino.

d) Interes orokorra:

gai jakin batzuek ondorio zuzenak dituzte pertsona askorengan; esate baterako, elikagai bat osasunerako kaltegarria izan daitekeela jakiteak. Halakoetan, esan daiteke “interes orokorreko” albisteak direla. Interes orokorrari kontrajarriz, beste albiste batzuk Núñez Ladéveze bezalako egileek “irakurleen interesekoak” izendatzen dituztenak dira. Funtsean, entrete-nimendurako gaiak dira, batzuetan morbo apur bat ere badutenak.

e) Hurbiltasuna:

Euskadin gertatutako intoxikazio batek beti izango du oihartzun handiagoa euskal prentsan, Australian gertatutako in-toxikazio berdinak baino. Irakurleek interes handiagoa azaldu ohi dute euren inguruan gertatutako albisteetan, eta hori Elikagaien Segurtasunaren esparruari ere ezar dakioko. Hurbiltasuna ez da beti geografikoa: hurbiltasun afektiboa edo tematikoa ere egon daitezke.

f) Eragileen garrantzia:

informazio jakin baten protagonisten garrantzia edo ospea (pertsonena, erakundeena zein enpresena) da informazioaren albistegarritasuna azal dezaketen beste faktoreetako bat.





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

4.2. 2014ko testu garrantzitsuenen banaketa, gaien arabera

Obesitateak eragindako arriskuak, anisakisak agertzea antxoaren arrantzaldian eta arrantza-kuotei buruzko negoziazioak dira 2014an leku handiena izan duten informazio-itemak.

Hedabideek gehien nabarmendutako informazio-gaiak azterlan honetako 9 gai-esparrutan sailkatzean, ikusi da **“Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza” izeneko atala dela nagusia**. Izan ere, aztertutako 12 hiletatik 8tan agertu da; hots, % 32,25ean. Zehazki, arrantza 8 hil horietatik 7tan agertu da.

Albisteetan gehien aipatutako bigarren alorra “Osasuna, nutrizioa, alergiak” izan da: 6 hiletan agertu da, eta horietatik 4tan obesitateak eragindako arazoekin lotuta.

“Elikagaiak, elikadura” multzoari dagozkion informazioak 5 hiletan jorratu dituzte hedabideek, eta “Elikagaien segurtasuna” multzoa, berriz, 4 alditan.

“Elikagaien arriskua” gaia bereziki urtarrilean (Barakaldoko Oiola urtegian lindanoa agertu zelako salaketak), maiatzean (anisakisaren krisia antxoaren kanpainan) eta azaroan (Kantauriko uretan espezie toxiko bat agertzea) nabarmendu zen.

“Elikagaien industria” multzoan sailkatutako albisteak bi hiletan agertu dira, elikagaien ikerketari eta etxean egindako garagardoen goraldiari buruzko gaietan, hain zuzen.

Oro har, egunkariek batez ere jorratu dituzten bi gaiak abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorekoak eta osasunaren, nutrizioaren eta alergiaren arlokoak dira.

4.1. taulan azaldutako datuekin alderatuta, ikusten da ez dagoela baliokidetasun zehatzik hedabideek 2014an jasotako itemen eta nabarmenentzat jotako hileko gaien artean.

Egia da bi kasuetan “Nekazaritza, abeltzaintza arrantza” ageri dela gehien aipatutako eduki gisa, baina “Elikagaiak, elikadura” multzoa, lehen gai garrantzitsuenen bigarren postuan zegoena, 2014an hirugarren postura igaro da. Gainera, **joera da “Elikagaien Segurtasuna”-rekin eta “Elikagaien arriskua”-rekin lotuta dauden gaiak balio berezia ematea. Bi esparru horiek eragiten duten interes orokorrak azal lezake hedabideek horiek nabarmentzeko duten erraztasuna.**


4.1. taula. Elikagaien Segurtasunari buruzko gai garrantzitsuenak, hilez hil

	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	Guztira
Elikagaiak/Elikadura			1	1		1					1	1	5
Nekaz./Abeltz./Arrantza		1	1	1	1	1	1	1	1		1	1	10
Elikagaien Industria						1					1		2
ELIKA													0
Elikagaien Arriskua	1				1					1	1		4
Osasuna/Nutriz./Alerg.	1	1	1		1					1		1	6
Elikagaien Segurtasuna	1							1	1	1			4
Guztira	3	2	3	2	3	3	1	2	2	3	4	3	31



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

4.1.a. irudia. Informazio garrantzitsuenak, gaien arabera




2012an eta 2013an gehien nabarmendutako gaiak alderatuta (4.1.b. irudia), aldaketak ikusten dira, ez oso handiak, baina bai aipatzekoak. **“Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza” da oraindik ere multzorik garrantzitsuena, eta ia 4 puntu egin du gora.**

Bigarrenik, beste urte batez, **“Osasuna, nutrizioa, alergiak”** multzoa dago, baina asko egin du behera: ia 9 puntu. **“Elikagaiak, elikadura”** multzoa ia ez zen agertu ere egin 2013ko informazio nabarmenenen artean, baina 2014an hirugarren postura igaro da, eta 2012ko mailak gainditu ditu.

“Elikagaien Segurtasuna” eta “Elikagaien arriskua” datoz ondoren; bi kasuetan, beherakada txiki bat gertatu da iazko urtearen aldean.

4.1.b. irudia. Gai garrantzitsuenen ehunekoa (2012-2014)



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

4.3. Gaien deskribapena, hilez hil

Urtarrila


Gai aipagarrienak: "Osasuna, nutrizioa, alergiak", "Elikagaien Segurtasuna", "Elikagaien arriskua"

Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen obesitatea XXI. mendeko gaixotasuna izango dela

2014/01/18an, euskal hedabide guztiek jaso zuten Eusko Jaurlaritzaren Osasun Plana, Jon Darpón Osasun sailburuak aurkeztutakoa (*El Correo*: "Osasun Plana helburu du % 19 murriztea gehiegizko pisua eta obesitatea duten euskal herritarren kopurua". *El Diario Vasco*: "Osakidetzaren helburua da % 10 murriztea minbizia 2020rako". *Diario de Noticias de Álava*: "Minbizia % 20 murriztea, 2020rako xedea". *Noticias de Gipuzkoa*: "Minbizia % 20 murriztea, 2020rako xedea". *Deia*: "Osasun Arloak % 10 murriztu nahi du minbizia 6 urtean". *Gara*: "Urkulluren gobernuak osasun-plana aurkeztu du, Europa iparraldeari begira". *Berría*: "Jaurlaritzak «osasun arloan eragile aktibo» egin nahi ditu herritarak". *El Mundo del País Vasco*: "Euskadik osasunerako arrisku-faktoretzat jo du «desberdintasun soziala»").

Planaren helburua da 2020rako gutxienez % 10 gutxitzea obesoen ehunekoak. Euskadiko azken Osasun Inkestaren arabera, gizonen % 57,5ek eta emakumeen % 39,9k dute gehiegizko pisua; obesitatea, berriz, gizonen % 14,1ek eta emakumeen % 12,3k. Haurrei eta gazteei buruzko datuak ere kezkatzekoak dira: 4 eta 18 urte arteko euskaldunen % 12,2k obesitatea du. Tasarik handienak 11 eta 14 urte arteko umeetan ageri dira (% 19,4), eta 15 eta 18 urte arteko nesketan (% 15,6). Gehiegizko pisua duten pertsonen dagokienez, ezaugarri komun bat dago: babes gutxien duten klaseetako pertsonetan loditasunaren prebalentzia handiagoa dago. Hots, zenbat eta diru gehiago, orduan eta argalago.

Iturria: *El Diario Vasco*



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Apirila

Gai aipagarrienak: "Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza", "Elikagaiak, elikadura"

Nirea, euskal sektore primarioa suspertzeko programa



2014/04/09an, hedabide gehienek argitaratu zuten "Nirea Akordioa" egitasmoa; Bilbon aurkeztu zuten, eta Eusko Jaurlaritzak eta lehen sektoreko ordezkariak parte hartu zuten. *Diario de Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Deia* egunkariak Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuorde Bittor Orozen hitzak azpimarratu zituzten; haren arabera, Nirea akordioa garrantzitsua da lehen sektorearako, Euskal Herriko BPGaren % 1,8 ematen duelako. Orozek zehaztu zuten kontabilitate horrek ez zituela barnean hartzen nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako ekoizpenaren lotutako zerbitzuak (esate baterako, garraioa eta *packaginga*). Esan zenez, sektore horrek 33.000 lanpostu zuzen sortzen ditu, eta EAEko lurraldearen % 80 kudeatzen du. Miren Garmendiak (euskal arrantza-sektorearen ordezkari gisa parte hartu zuen) eta Belen Balerdik (nekazaritza-sektorearen izenean parte hartu zuen) nabarmendu zuten landa-mundua eta itsasertzeko babestu behar direla, haien produktuak erosiz; izan ere, erabaki horiek eragin zuzena dute eredu ekonomikoan, sozialean eta kulturalen. Bestalde, Gara eta Berria egunkariak (2014/04/09) EHNE Bizkaia akordioaz esandakoak azpimarratu zituzten; zehazki, esan zuten Nireak bere egin ditzala sindikatuak egindako proposamenak, ekoizpen-eredua aldatu eta nekazaritza garatzeko beste eredu bat bultzatzeari buruzkoak, eta eredu hori lortzea lortuko duten azpiegitura produktiboei buruzko proposamenak, sektoreari eusten diotenei onura ekarriko dietenak. *El Diario Vasco*, izenburu hau argitaratu zuen: "Eusko Jaurlaritza eta sektorea, tokiko produktuaren kontsumoaren alde".

Iturria: Gara

Nekazaritza ekologikoa hedatu egin da

Noticias taldeko egunkariak nabarmendu zuten nekazaritza ekologikoa gero eta garrantzitsuago bihurtzen ari dela Euskadin. 2014/04/23an, *Noticias de Gipuzkoa* "Gipuzkoan dauden EAEko nekazari ekologikoen % 40" izenburua zuen titulua argitaratu zuen; ildo horretatik, esan zuen Euskadin nekazaritza ekologikorako erabiltzen den eremua (labur azalduta, ez da produktu kimikorik erabiltzen eta ziklo naturalak aprobetxatzen dira) % 8 areagotu dela azken urtean; horretan diharduten ekoizleek ere areagotze bera izan zuten. 2014an, 389 ekoizle ekologiko izan ziren (2012an baino 28 gehiago), eta fruituak, zerealak, lekaleak, barazkiak, tuberkuluak, frutak eta mahatsondoak hazten dituzten 2.627 hektarea zeuden. *Diario de Noticias de Álava* 2014/04/23an argitaratutako Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, batez ere barazkien uztak, olibondoan uztak, tuberkuluen uztak eta industria-uztak (eguzki-lorearena, adibidez) ari dira areagotzen uzta ekologikoen artean. Deiak, "Konpromisoa eta konfiantza" izeneko testu batean, nabarmendu zuen zaila dela ustategia egokitzeko behar den ziurtagiri ekologikoa eta langileak trebatzeko prozesu bat lortzea. Bestalde, *El Correo*k, "Nekazaritza ekologikoak sustraiak bota ditu espezie autoktonoen parke botaniko bakarrean" izeneko 2014/04/17ko testuan, produktu horiek Euskadin duten gordaldia azpimarratu zuen; 2013an, 13 eurotik gora fakturatu ziren, 2012an baino % 30 gehiago.

Iturria: Noticias de Gipuzkoa



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Maiatza

Gai aipagarrienak: "Osasuna, nutrizioa, alergiak", "Elikagaien arriskua"; "Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza"

Haurren obesitateak gorakada kezkarria izan du



2014/05/08an, *El Diario Vasco*, "Hamar haur eta nerabetik hiru obesoak dira edo gehiegizko pisua dute" izeneko testuan, ohartarazi zuen giza historian lehen aldiz aurreikusi dela bizi-itxaropena murriztu egingo dela hurrengo belaunaldietan, eta arrazoietako bat obesitatea dela. Ezin da orokortu, baina Euskal Herrian goranzko joera dago: 18 urtera arteko euskal herritarren % 21,8k gehiegizko pisua edo obesitatea du. 2014/05/28an, *Noticias de Gipuzkoa* ohitura txarrak aldatu eta osasuntsu jatearen garrantziari buruzko testu bat argitaratu zuen, eta gomen-datu zuen hamaiketakoa eta askaria askotariko ogitartekoekin egitea: gaztarekin, gihar-hestebeteekin, arrain-kontserbekin edo txokolatearekin. Horrez gain, fruta freskoaren ale bat jan behar da, eta beti ura edan, edaririk osasungarriena eta freskagarriena baita. 2014/05/29an, *Diario de Noticias de Álava* eta *El Diario Vasco* egunkariak ere *The Lancet* zientzia-aldizkariak argitaratutako txosten bat kaleratu zuten; txostenaren arabera, obesitatearen eta gehiegizko pisuaren tasak asko areagotu dira 33 urteotan: helduetan % 28 eta haurretan % 47. Hala, 1980an 857 milioi pertsonak zuten gehiegizko pisua eta obesitatea, eta 2013an, berriz, 1.042 milioi pertsonak. Era berean, 2014/05/29an, *El Diario Vasco* jakinarazi zuen abian jarri zela Pensoi programa, Debagoienan haurren obesitateari aurre egiteko. Izan ere, adituen ikerketen arabera, eskualde horretako 10 eta 12 urte bitarteko gazteen % 37,5ek gehiegizko pisua du.

Iturria: Noticias de Gipuzkoa

Anisakisak Kantauriko antxoan

2014/06/09an, aztertutako euskal prentsa guztiak (*El Correo*, *El Diario Vasco*, *Diario de Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Deia*, *Gara*, *Berria*, *El País* eta *El Mundo*) Eusko Jaurlaritzaren informazio bat argitaratu zuen: anisakisaren ehuneko handia aurkitu zen euskal flotak arrantzaturiko antxoan. Osasun Sailaren arabera, parasitosa desagerrarazteko, errairik gabeko antxoak erosi behar da, eta gutxienez 60 °C-an kozinatu edo izoztu, eta inola ere ez da jan behar gordinik edo marinatuta. Arrantzaren sektorea kexatzen hasi zen, erakundearen oharra alarmistatza jo zutelako; bitartean, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zuen anisakisaren zenbait kasu erregistratu zirela Bizkaian eta Gipuzkoan. Hurrengo egunetan, hedabide guztiak hasi ziren kontsumorako gomendioak argitaratzen, eta zehaztu zuten anisakis parasitosa erraz akaba zitekeela. *El Correo*, 2014/05/10: "Askotan jaten ditugu anisakis biziak" eta "Ostalaritzan ez dago arriskurik, denak izoztuta daudelako"; *El Diario Vasco*: "Erraz akaba daitekeen parasitosa"; *Deia*: "Antxoak jaten jarraitu behar da, beldurrik izan gabe"; *Gara*: "Anisakisa ez da arriskutsua osasunerako, arraina ondo kuzinatzen bada"; *Noticias de Gipuzkoa*, 2014/05/11: "Antxoaren defentsan".

2014/05/16tik aurrera, hedabideek adierazi zuten behera egin zuela antxoaren kontsumoak, baina Eusko Jaurlaritzak gertzatu egin zuen. *El Diario Vasco*: "Antxoaren salmentak «beherakada larria» izan du, anisakisaren alerta dela eta"; *El Mundo del País Vasco*: "Darpónek esan du anisakisari buruzko bere alertak ez diola eragin antxoaren salmentari". Egun horretan bertan (2014/05/16), hala *El Correo* nola *Noticias* taldeko egunkariak berriro argitaratu zuten kontsumitzeko arazoak zaudela, soilik gordinik janez gero. Hala, *El Correo* izenburu hau zuen testua argitaratu zuen: "Ez dago antxo jateko inolako arazorik, kozinatzen edo izozten bada". *Noticias* taldeko hiru egunkariak (*Diario de Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Deia*), berriz, izenburu bera zuen testua kaleratu zuten: "Antxo gazituak ez du anisakisik". Hurrengo egunetan, euskal hedabideek jakinarazi zuten euskal administrazioak eta arrantza-sektoreak harrapatutako parasitosen beldurra uxatu nahian zebiltzala. *Noticias de Gipuzkoa*, 2014/05/17: "Administrazioek esan dute lasai egoteko antxoaren kontsumoaren inguruan"; *El Mundo del País Vasco*, 2014/05/17: "Gobernua eta sektorea buru-belarri dabilta anisakisaren beldurra uxatu nahian"; *Berria*, 2014/05/20: "Kezka usaina dario arrainari".

Iturria: El Mundo del País Vasco



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Ekaina

Gai aipagarrienak: "Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza", "Elikagaiak, elikadura", "Elikagaien industria"

Ekoizle ekologiko askok parte hartu zuten Bioterran

Ekainaren 6an inauguratu zen, Irungo Ficoba azoka-esparruan, XI. Bioterra, Produktu Ekologikoen, Bioeraikuntzaren, Energia Berriztagarrien eta Kontsumo Arduratsuaren Azoka. Bertan, nekazaritza ekologikoaren euskal ekoizleek "ordezaritza oso zabala" izan zuten, *Noticias de la Comunicación* egunkariak 2014/06/03an esan zuen moduan. *Berriak* ere bereziki erreparatu zion ekitaldi horri, koaderno txiki bat argitaratu baitzuen 2014/06/04an: "Bioterra azoka: ekologiaren azoka". *Garak*, 2014/06/07an, hau esan zuen: "edizio honetan, inoiz ez bezalako parte hartzea izango dute Bioterran Gipuzkoako ekoizle ekologikoek". *El Diario Vasco* ere aipimarratu zuen erakusketari-kopuruaren gorakada hori: "Bioterra, inoiz baino handiago" (2014/06/03). Vocento taldeko egunkariak hau esan zuen: "aurten, azoka ekologikoak inoiz baino euskal erakusketari gehiago eta gipuzkoar gehiago bildu du" (2014/06/06). Gipuzkoako Aldundiaren eta ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren babesa izan zen errekorrezko partaidetza horren arrazoietakoa bat.

Iturria: Berria



Elikagaien inguruko ikerkuntza



Ekainean, euskal prentsak hainbat informazio argitaratu zituen elikagaien inguruko ikerkuntzari buruz. *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkariak, 2014/06/17ko *Sukaldean* koadernotxoan, Azti-Tecnalia ikerketa-unitateak elikagai osasuntsuago eta goxoagoak lortzeko egiten dituen berrikuntza-lanak zehaztu zituzten "Biharko elikagaiak" izeneko testuan. Azti-Tecnaliako zientzialarien arabera, etorkizuneko erosketa-saskian leku handiagoa izango dute gutxiago prozesatutako produktuek, naturalagoak eta zapore eta usain on dutenek. 2014/06/26an, *El Correo* hau argitaratu zuen: "Arkauteko campusak elikadura eztabaidaren ardatz duen topaketa bat hartuko du gaur". Gai horixe jaso zuen *Diario de Noticias de Álava* hurrengo egunean: "Arkaute nekazaritza-institutuak Elikaduraren VIII. Gizarte Topaketa hartu zuen atzo; Arkaute campusean nekazaritzaren eta ekologiarren ikuspegitik lantzen ari diren hiru I+G+b esperientzia aurkeztu ziren". Azkenik, *El Mundok*, *Innovadores* gehigarrian (2014/06/26), esan zuen etxeak "mini-berotegia" sortu zela, herritarrek beren elikagaiak etxean hazi ahal izan ditzaten.

Iturria: El Correo

Uztaila

Gai aipagarrienak: "Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza"

EBk % 18 igo zuen antxoaren kuota Bizkaiko golkoan

Un congreso de psicología trae a Donostia a 500 expertos

La novena conferencia de la Comisión Internacional de Psicología comienza mañana en Miramar

LA POBLACIÓN DE ANCHOA SE HA DOPLICADO EN DOS AÑOS

El índice de biomasa en el Golfo de Bizkaia sufre un crecimiento del 100% en los últimos dos años

12.500 toneladas de anchoa

El Consejo Regulador de Anchoa de Vizcaya ha aprobado el plan de gestión para el 2015

22 años de vida

El punto dulce en la vida de la anchoa está en los 22 años

Adiós a las horas de búsqueda del ganado

LA FUNDACIÓN HAZI PRETENDE MEJORAR LA CALIDAD DE VIDA DE LOS GANADEROS CON UNA HERRAMIENTA PARA LOCALIZAR EL GANADO POR VÍA SATELITE

El bonito del norte

El 32,5% de los ejemplares de bonito del norte que se consumen en Euzkadi son congelados

Fraude en el bonito del norte congelado

Una investigación descubre que el 32% de los ejemplares de bonito del norte que se consumen en Euzkadi son congelados

Escapada Bodega MUGA

Hotel ETH (Hard)

LABORAL KUTXA OFRECE WIFI GRATIS en la playa de Gros

2014/07/17an, Europako Batasunak erabaki zuen % 18 areagotzea antxoaren kuota Bizkaiko golkoan. Hala, 2014ko uztailaren 1etik 2015eko ekainaren 30era 20.100 tona arte harrapatu ahal izango da, *El Correo*k biharamunean jakinarazi zuenez. Egunkari ia guztiek jakinarazi zuten litekeena zela Bruselak kuota hori handitzea, bereziki 2014/07/10ean: "Bruselak proposatu du % 18 handitzea antxoaren kuota" (*El Correo*); "Europako Batzordeak proposatu du 3.000 tona areagotzea antxoaren kuota" (*El Diario Vasco*); "Bruselak proposatu du % 18 areagotzea antxoaren kuota" (*Noticias de Gipuzkoa*); "EBk antxoaren kuota handitzea proposatu du" (*Deia*); "Europak proposatu du % 18 areagotzea antxoaren kuota Bizkaiko golkoan" (*Gara*); "Europak proposatu du antxoaren kuota handitzea Kantauri itsasoan" (*El Mundo*); "Antxoaren arrantza % 18 handitzea proposatu du Europak" (*Berria*). 2014/07/01ean, *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *El Correo* egunkariak ohartarazi zuten % 58 antxo gehiago zegoela iaz Bizkaiko golkoan. Antxoaren arrantza-lekua erabat itxi behar izan zen 2005 eta 2009 artean, Kantauriko uretan espeziea ez zedin desagertu. Hori dela eta, María Damanaki Europako Arrantza komisarioak baieztatu zuen antxoak erakusten duela arrantza-lekuak epe luzerako kudeatzeak eta arrantzaleek ahalegin horretan parte hartzeak emaitza onak ematen dituela.

Iturria: Noticias de Gipuzkoa

Atun izoztua saltzen zelako salaketak izan ziren hegaluzearen kanpainaren hasieran

Hegaluzearen kanpainari dagokionez, (uztail hasieran abiatu zen), *Gara* eta *Berria* egunkariak (2014/07/18) esan zuten euskal ontziek 500.000 kilo harrapatu zituztela 15 egunean; horietatik 26.000 ingururi Eusko Label bereizgarria eman zieten banan-banan, sarerik gabe eta arrantza-arte tradizionalen bidez arrantzatuz zirelako: kanaberaz (beita bizia) eta xaxiangorantz. Bestalde, *Deia* eta *El Mundo* egunkariak (2014/07/11) Bittor Oroz Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagaien Politikako euskal sailburuordearen adierazpen batzuk kaleratu zituzten: zioenez, lehenengo datuen arabera, iragar zitekeen hegaluzearen arrantzialdia onia izango zela. Alabaina, hegaluzearen arrantzaldiaren hasiera horretan, albiste txarrak ere izan ziren. *El Correo* (2014/07/10) eta *El Diario Vasco* (2014/07/14) egunkariak informazio bera partekatu zuen, izenburu hau zuena: "Iruzurra izoztutako hegaluzean". Madriloa Ceu San Pablo Unibertsitatearen ikerketa baten berri eman zuten; adituen arabera, aztertutako laginen % 32,5ean, bezeroek hegaluzea (*thunnus alalunga*) ez ziren beste espezie batzuk eramaten zituzten etxera, merkataritza-balio txikiagokoak, nahiz eta etiketan hegaluzek zirela jartzen zuen. Euskadin, egunero kanpoko egiaztapen-kontrolak egiten zaizkie arrantzatutako aleei eta azken prestaketei; horrela bermatzen da kontsumitzaileei eskainitako produktua kalitate onenekoa dela.

Iturria: El Diario Vasco

AL DIA!

El bonito del norte

El 32,5% de los ejemplares de bonito del norte que se consumen en Euzkadi son congelados

Fraude en el bonito del norte congelado

Una investigación descubre que el 32% de los ejemplares de bonito del norte que se consumen en Euzkadi son congelados

Escapada Bodega MUGA

Hotel ETH (Hard)

LABORAL KUTXA OFRECE WIFI GRATIS en la playa de Gros

Abuztua

Gai aipagarrienak: "Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza", "Elikagaien segurtasuna"

Europak Ukrainako gatazkaren inguruan hartu duen jarreragatik Errusiak egin zuen boikotak estu jarri zuen Espainiako komunitate-nekazaritza

2014/08/09an, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Gara* egunkariak Errusiako inportazioen murrizketek (Ukrainako gatazkak zirela eta) Espainiako eta Euskal Herriko nekazaritza zuten eragina nabarmendu zuten. 2014/08/12an, *El Correo* izenburu hau zuen testua kaleratu zuten: "Espainiak nahi du Bruselak konpentsatzea Errusiak betoa jarritako produktuen galera"; horretan, jakinarazi zuen Espainiako Nekazaritza Ministerioak EBri eskatu ziola kentzeko merkatutik Errusiak betoa jarritako produktuak, prezioak eror ez zitezten. 2014/08/19an, *El Correo*, *El Diario Vasco* eta *Gara* egunkariak adierazi zuten Europako Batasunak 125 milioi euro eman zituela zenbait nekazaritza-produkturen galera konpentsatzeko. 2014/08/20an, *Garak* UAGNen salaketa nabarmendu zuen; zehazki, salatu zuen nekazariak ekoizpen guztia atera behar zutela merkatu nazionalera, baita Errusiara esportatzeko zeukatena ere. Horrela, izugarri handitu zen eskaintza, baina eskaerak ez zuen gora egin; hortaz, prezioak erori egin ziren. Egunkari horiek, halaber, betoak beste herrialde batzuetan izan zuen eragina jaso zuen, eta baieztatu zuen Herbeheretan 300 milioi euroren galerak izan zituztela. Bestalde, *El País*ek, 2014/08/22an, jakinarazi zuen Errusiak partzialki altxatu zuela betoa, baina Europako agintek ez zutela ia nabaritu ere egin. 2014/08/26an, *El Correo*, *El Diario Vasco*, *Diario de Noticias de Álava* eta *Deia* egunkariak esan zuten Espainiako nekazariak eskatu zutela produktu gehiagori emateko Errusiaren betoagatik laguntzak.

Iturria: *Gara*

Botulismoak 400 basahatetik gora hil zituen Araban



2014/08/13an, *El Correo* izenburu hau zuen testua kaleratu zuten: "40 ahartetik gora hil dira Salburuan eta Arriagan, botulismoaren agerraldia dela eta"; hala, adierazi zuen temperatura beroak eta uraren egoerak eragindako botulismoagatik hil zirela hegaztiak. 2014/08/14an, *Garak* jakinarazi zuen erakunde arteko mahai bat sortu zela botulismoaren agerraldia zaintzeko eta Arabako hezeguneetara zabaltzea eragozteko; izan ere, onartu zen hegazti migratzaileak zeudela eta ez zela nahi horiek hegazti gaixoei kontakturik izaterik. Egun horretan, *El Correo* argitaratu zuen botulismoak jotako hegaztiak ehun baino gehiago zirela, batez ere Arkauteko urmaelekoak (Salburuako handiena). 2014/08/19an, *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkariak jakinarazi zuten botulismoaren agerraldiak jotako hegaztiak 400 inguru zirela. Halaber, esan zuten Martiodako basoko fauna lehengoratzeko zentrorra eramandako 60 hegazti gaixoetatik % 80k onik irtetea lortu zutela. Azkenik, jakinarazi zen 446 hegaztik harrapatu zutela botulismoa (*El Correo*, *Diario de Noticias de Álava* eta *Noticias de Gipuzkoa*, 2014/08/22). Halaber, adierazi zen geroago aztertuko dela gaixotasunaren jatorriaren analisia, Salburuako Arkaute urmaela dela zero eremua, eta hor bilatuko direla zabalkundearen zerk eragin zuen jakiteko frogak.

Iturria: *El Correo*

txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Urria

Gai aipagarrienak: "Elikagaien arriskua", "Osasuna, nutrizioa, alergiak", "Elikagaien Segurtasuna"

Edari energetikoen arriskua

2014/10/15ean, *El País*ek azalzen jaso zuen OMEko ikertzaileek egindako ikerketa bati buruzko albiste bat: horren arabera, edari energetikoak kontsumitzea arriskutsua izan daiteke osasun publikorako. "Edari energetikoak, arrisku handiko mendekotasuna" titulu nagusia zuen testu horrek. Barruko orrialdeetan zioen helduen % 30ek, nerabeen % 68k eta haurren % 18k edari energetikoak edaten zituztela, Elikagaien Osasunerako Europako Agentziak 2013an eginiko azterketa baten arabera. *El País*ek azaldu zuen produktu horiek arriskutsuak direla "kafeina dutelako, batez ere". 2014/10/17an, *Diario de Noticias de Álava* Pablo García Hernández Oviedoko Unibertsitate Ospitale Nagusiako doktoreari egindako elkarrizketa bat argitaratu zuen; hark zioenez, "alkoholaren eta tabakoaren aurrean, kafeina da XXI. mendean gehiegi hartzen den droga berria, baina ez du alarma sozialik pizten". Medikuek azaldu zuen edari energetikoek kafeina asko zutela eta osasunerako txarra dela, egunean 300 mililitro baino gehiago hartzen badira. 2014/06/17an, *Berriak* eman zuen erreportaje bat horri buruz; zehazki, esan zuen Europako gazteek edari energetiko asko kontsumitzen zutela eta alkoholarekin nahastea arriskutsua zela.

Iturria: *El País*



Nutrizioaren arloko mitoen kontra: argal egotea eta osasuntsu egotea ez datoz beti bat

2014/10/30ean, *El Diario Vasco* "Nutrizio-mitok, eztabaidagai" izeneko artikulua argitaratu zuen; horretan, Ana Tellería doktore nutrizionistaren hitzaldi bat iragarri zuen, gizarteko sektoreetan argal egoteak eta osasuntsu egoteak sortzen duen nahasteari buruzkoa. Esan zuenez, gaizki jaten duen pertsona argal batek hainbat arazo izan ditzake, nahiz eta fisikoki ez igarri hasieran. Gorputzeko gantza urritzeko elikagai osasungarriak bilatzeko ildo horretan, *El Diario Vasco*, *Diario de Noticias de Álava* eta *Deia* egunkariak, 2014/10/29an, UPV/EHUko Nutrizio eta Obesitate Taldeak eginiko ikerketa baten emaitzak argitaratu zituzten; frogatu zuen pterostibenoak (osagai fenoliko bat da, elikagai eta edari askok kopuru urrian dutena –mahatsek, ahabiek, kakahueteek eta ardo beltzak, adibidez–) gorputzeko gantza murrizten zuela. Bestalde, Javier Arancetak (*El Correo*, 2014/10/27) baieztatu zuen frogatu dela epe luzera frogatu dutela ez dutela ezertarako balio. Aditu horren ustez, garrantzitsua arrain, fruta eta barazki gehiago jatea eta kirok pixka bat egitea da. Gehiegiko pisua ariketa fisikoaren eta nutrizio-kontrolaren bidez kontrolatzeko ildo horretan, *Diario de Noticias de Álava*ko, 2014/10/24an jakinarazi zuen UPV/EHUko ikertzaileak gehiegiko pisua zuten pertsonen bila zebiltzala, ariketa fisikoak eta nutrizioak arterietako tentsioan duen eragina eta arrisku kardiobaskularra aztertzeko.

Iturria: *Diario de Noticias de Álava*

txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Azaroa

Gai aipagarrienak: "Elikagaiak, elikadura", "Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza", "Elikagaien industria", "Elikagaien arriskua"

Garagardoaren institutua eta etxeko garagardoaren goraldia

Un instituto para la cerveza
El acuerdo de colaboración entre AZTI y La Salve define ocho proyectos innovadores con los que pretenden "liderar el sector cervecero"

BIKAZIA - Ocho proyectos de innovación se han firmado en el sector cervecero de Euzkadi, entre un grupo de investigadores de AZTI y la Salve. El acuerdo de colaboración entre AZTI y La Salve define ocho proyectos innovadores con los que pretenden "liderar el sector cervecero".

El acuerdo de colaboración entre AZTI y La Salve define ocho proyectos innovadores con los que pretenden "liderar el sector cervecero".

El acuerdo de colaboración entre AZTI y La Salve define ocho proyectos innovadores con los que pretenden "liderar el sector cervecero".

2014/11/24an, Deiak adierazi zuen lankidetzakordio bat egin zutela AZTI itsasoaren eta elikagaien ikerketarako zentroak eta La Salve Bilbao garagardoak, etorkizunean garagardoaren behatokia sortzeko. Egunkari horren arabera, "xede diren publikoaren ordezkariak sortuko dute erakundea: bezeroek, enpresako bazkideek, erakundeek eta hedabideek". Etorkizuneko proiektuen artean daude 2016an % 40 tokiko osagaiekin egindako garagardoa sortzeko eta Garagardoaren Zentzumen Dekalogoaren eratzeko. Gipuzkoan ere horren inguruko hainbat egitasmo sortu dira. *El Diario Vasco* 2014/11/02an ataratuak erreportaje zabal batean zioenez, "etxeko garagardoa booma izaten ari da Gipuzkoan, zazpi ekoi-zalerekin". Pagoa (Oiarzun), Olañeta (Errenteria), Gross y Gar&Gar (Donostia), Bidassoa Basque Brewery (Iruñ), Zarautz Beer Company (Zarautz) eta ZerB (Arrasate) dira Gipuzkoan finkatzea lortu duten markak. Sustatzailen hitzetan, normalena litzateke datozen bost urteotan beste hamar ekoi-ze agertzea, eta horiek batez ere Gipuzkoan jardutea; izan ere, uste dute pixkanaka jendea iragardo hori gustatuko zaiola eta merkatua handitu egingo dela. Duela hainbat urte, Katalunian antzeko boom bat izan zen, eta azkenean kultura bihurtu da. Etxeko garagardoak iragazi eta pasteurizatu gabe egiten dira, ez zaie CO₂rik gehitzen eta produktu oso hautatuak erabiltzen dira. Ekoi-zeek diotenez, alde handia dago etxeko garagardoaren eta industrialaren artean. Gainera, lehenengo urratsa zopa egitea da, ura eta garagarra edo malta zatitua nahasiz. Etxeko garagardoak egosteko, bi osagai horiek baino ez dira erabiltzen, eta, horrekin, garagar-zuku goxoa sortzen da.

Iturria: Deia

Alerta, Kantauri itsasoan arrain toxiko bat agertu zela eta

2014/11/10ean, *El Correo* eta *El Diario Vasco* jaso zuten Ingurumen Ministerioak autonomia-erkidegoei bidalitako oharra, Kantauri itsasoan globo-arrainaren ale batzuk aurkitu zituztela eta. Espezie toxikoa da, eta jateak heriotza ekar dezake. Animalia horrekin egiten da *fugu* delakoa, japoniar sukaldaritzako plater tipikoa, eta gaizki prestatzen bada, jaten duena hil egin daiteke. 2014/11/14an, *El Diario Vasco* horren inguruko ezuste baten berri eman zuen: baxurako arrantzarako ontzi batek arrain horietako bat arrantzatu zuen Ondarroako lonjan, kostatik gertu. 2014/11/11n, *El Correo* esan zuen Alderdi Popularrak galdera egin ziola Eusko Jaurlaritzari, espezie horren presentzia zela eta; Ekonomia Garapenerako Sailari galdetu zion ea ezarri zen protokoloaren bat euskal kostaldean agertu ziren "arrain toxikoak detektatzeko" eta animalia hori jateak ekar ditzakeen arriskuen "berri emateko flotari eta arrantzaren zaleei".

Iturria: El Correo

Alertan ante la aparición en el Cantábrico de un pez tóxico que puede ser mortal si se ingiere

Primo del peligroso y cotizado 'fugu', el pez globo japonés

El Ministerio de Medio Ambiente lanzó un aviso a los consumidores tras detectar ejemplares de la familia 'Tetraodonidae', Ciguero se han capturado en la costa vasca.

La aparición de un pez tóxico en el Cantábrico puede ser mortal si se ingiere. El Ministerio de Medio Ambiente lanzó un aviso a los consumidores tras detectar ejemplares de la familia 'Tetraodonidae', Ciguero se han capturado en la costa vasca.

5. KAPITULUA AZTERLANAREN ONDORIOAK

2014an, guztira, Elikagaien Segurtasunari buruzko 1.864 albiste argitaratu dira; hots, 153,3 albiste hileko edo 5,2 eguneko, aztertutako egunkari guztien artean. Zenbateko hori ez da oso handia eta 2013an argitaratutako albisteen kopuruaren oso antzekoa da, baina 2012an 820 albiste zenbatu ziren. Iaz nabarmen igo zen kopuru hori: 1.803 albiste. 2014an, ordea, Elikagaien Segurtasunari buruzko albisteen kopuruak eutsi egin dio iazko mailari.

9 egunkari

2014an

1.864 albiste

Batez bestekoa: 155,3
albiste/hilabete

1

2

Iaz gertatu zen bezala, "Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza"-ri buruzko informazioa ematen duten testuak ageri dira gehien egunkari guztietan.



Elikagaiak eta osasunarekin eta nutrizioarekin lotutako gaiak osatzen dute bigarren multzoa; hirugarrena, berriaz, elikagaiak eragindako alergiek.



"Elikagaien industria"-k osatzen du laugarren multzoa, gehien erabilitako gaiak dagokienez. Gainerako gaiak (Elikagaien arriskuak, ELIKA eta Elikagaien Segurtasuna, besteak beste) askoz urrutirago geratzen dira. 2013. urteari dagokionez, 2014an izandako aldaketa nagusia da "Elikagaiak / elikadura" gaiak garrantzi handia hartu duela: albisteen % 7,40 ziren lehen, % 23,60 iaz. Hau da, albiste gehien izan duen bigarren multzoa da, eta aurrea hartu die osasunaren nutrizioaren eta alergien gaiak.





txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Gizartea atala

3

Hedabideek oso atal zehatzetan argitaratzen dituzte Elikagaien Segurtasunari buruzko albisteak. *El Correo* "Ciudadanos" [Herritarrak] atalean argitaratzen ditu, *El Diario Vasco* "Al Día" [Egunean] atalean eta *Berriak* "Bizia" izeneko berariazko atalean. Hiru egunkari horiek "Ekonomia" atala erabiltzen dute asko. *Diario de Noticias de Álava* "Araba" eta "Sociedad [Gizartea] atalak erabiltzen ditu nagusiki; *Noticias de Gipuzkoak* "Ekonomia" eta "Gizartea"; *Deiak* "Bizkaia" y "Gizartea" eta *Garak* "Ekonomia" y "Euskal Herria". Gauzak horrela, hedabide bakoitzak erabiltzen duen berariazko izena gorabehera, Gizartea, Tokikoa/Eskualdekoa eta Ekonomia atalak erabiltzen dira gehien egunkari guztietan.

**Tokikoa/
Eskualdekoa**

Gizartea

Herritarrak

Ekonomia

**Bizia eta Euskal
Herria**

4

**Testuen % 20,6
gehirri eta
koadernotxo
bereztan
argitaratu zen**

2013. urteari dagokionez, elikagaien inguruan koadernotxo bereztan eta gehigarrietan argitaratu diren albisteak 6,9 puntu ugaritu badira ere, oraindik ere oso gutxi erabiltzen dira, aintzat hartzen badugu oso egokiak direla elikagaien inguruko gaiak argitaratzeko. 2014an argitaratu ziren 1.864 albisteetatik 384 (% 20,6) baino ez ziren argitaratu koadernotxo eta gehigarrietan.

Argitaratutako testuen % 6,4 agertzen da egunkarien portadetan, iazko kopuruaren bikoitza. Testuen % 48,2 orrialdea irekitzekoak dira, hau da, orrialdearen zati nagusia hartzen dute. Gainerako % 45,3 bigarren mailako testuak dira eta garrantzi txikiagoko lekuetan argitaratzen dira. Koadernotxoei dagokionez, albisteen % 11,2 azalean islatzen dira, % 45,8 orrialdea irekitzekoak dira eta % 42,9 orrialdea ez irekitzekoak

2014. urtean, ia bikoiztu egin da azalean agertu diren albisteen kopurua, 2013. urtearekin erkatuz gero. Orrialdea irekitzen duten eta irekitzen ez duten testuen ehunekoak, berriz, behera egin du.

Azalean: % 6,4

5

**Orrialdea
irekitzekoak: % 48,2**

**Orrialdea ez
irekitzekoak: % 45,3**

6

**1.371 argazki
+
45 infografia
=
1.416 ilustrazio**

Aztertutako hedabideek guztira 1.416 ilustrazio argitaratu dituzte. Horien % 97 argazkiak dira. Bada, argazki gehienak (% 76) egunkarietak eurenak dira, eta agentzienak % 24. Orobat, gehiago dira argigarriak (% 68,9), informazioa ematekoak baino (% 31,1). Bestalde, infografiak % 3 baino ez dira. Kopuru hori oso txikia da, baina normala da; izan ere, lan handia ematen du elementu argigarri horiek egiteak.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Gaurkotasunaren ikuspegitik, testuen % 70,2 azkenaldiko gertakizunei buruzkoak dira, % 24,6 gaurkotasun iraunkorra dutenak eta % 5,2 baino ez gaurkotasun luzatukoak. Azkenaldiko albisteak nagusi izateak (2013ko kopuru berbera) adierazten du hedabideek eguneko albisteak argitaratu dituztela eta albiste horiek txertatze bakarra izan dutela. Gaurkotasun luzatuaren indize txikiak (hala ere, iazkoa baino % 2,9 handiagoa) erakusten du urte osoan ez dela gertatu elikagaien inguruko alerta- edo intoxikazio-kopuru handirik; izan ere, horrek jarraipen jarraitua ekarriko zukeen. Bestalde, gaurkotasun iraunkorreko albisteen ehunekoa nutrizioari eta osasunari lotuta dago. Albisteak ez daude eguneroko informazioarekin lotuta. Halakoetan, gaurkotasun luzatuko eta iraunkorreko gaiak jorratzen dituzte ia beti.

1.864 testu
Azkenaldikoak:
% 70,2

Gaurkotasun
iraunkorrekoak:
% 27,5

Gaurkotasun
luzatukoak: % 2,3

7

8

Informazioa ematekoak:
% 78,6

Interpretaziokoak: % 12,5

Iritzia ematekoak: % 6,7

Argitaratutako testu guztien artetik, informazioa emateko generoa da nagusi (% 78,6, 2013an baino % 1,5), interpretazio-generoaren (% 14,6; iaz baino % 21º, gehiago) eta iritzia ematekoaren (% 6,7; iaz baino % 0,6 gutxiago) gainetik. Albisteak dira nagusi, oro har errazagoa delako informazioa ematea. Izan ere, informazioa emateak ez du eskatzen interpretazio-generoaren lana (erreportajeak, elkarrizketak eta kronikak) eta iritzi-generoen espezializazioa.

Informazioa: % 75,2
(2013an baino % 2,5
gutxiago)

Albiste laburrak eta
Foto-albisteak: % 24,8

Informazio-generoan nagusi dira informazioak (% 75,2), albiste laburren (% 21,7) eta foto-albisteen (% 3,1) aurretik. 2013. urteko datuei dagokienez, informazioen kopuruak % 2,5 egin du behera, eta gora egiten dute albiste laburren (% 1,6) eta foto-albisteen (% 1) kopuruek. Horrek esan nahi du apur bat behera egin duela informazio-testuen kalitateak; izan ere, behera egin dute lehen mailako informazioek, maila beheragokoak (albiste laburrak eta infoargazkiak) aintzat hartuta.

Erreportajeak: % 52,2

Elkarrizketak: % 46,7

Interpretazio-bloke honetan, erreportajeak eta elkarrizketak izan dira kronikarik eta txostenik jaso ez duten genero bakarrak. Gehien erabilitako interpretazio-generoa erreportajea izan da (% 52,2), 2013. urtean ez bezala (bigarren lekuan zegoen). Gehien erabilitako generoetan bigarrena elkarrizketa izan da (% 46,7), baina iaztik 6,8 puntu egin du behera. Bi genero horiek alde batera utzita, publizitateen % 1,1 baino ezin izan da kontabilizatu.

Iritzi-artikuluak eta
zutabeak: % 92,1

Editorialak eta zuzendariari
igorritako gutunak: % 7,9

Iritzi-artikuluak (% 50,0; 2013an baino % 3,8 gehiago) eta zutabeak (% 42,1, iaz baino % 0,3 gehiago) izan dira 2014an gehien erabilitako iritzi-generoak. Argitaratutako iritzi guztien % 2,4 (2013an baino 2,9 puntu gutxiago) editorialak dira, eta zuzendariari igorritako gutunak % 5,5 (2013an baino puntu erdi gutxiago).



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Albisteen erdiak baino zertxobait gehiago (% 51,1; 2013an baino 2 puntu gutxiago) kazetariak eta laguntzaileak sinatu dituzte. Testu espezializatuenak, kazetaritza-azterketen bidezko lankidetzak, zutabeak eta batez ere iritzi-artikuluak % 5,5 izan dira, iaz baino % 1,2 gutxiago. Sinatu gabeko testuen kopuruak gora egin du (% 35,1; 2013an baino % 3,3 gehiago). Oso ehuneko handia da, aintzat hartzen badugu informazio horiek kalitate txikiagoko testuekin lotzen direla. Agentziek 130 testu eman dituzte, hau da, testuen % 7,0.

Erredaktoreek sinatutako testuak: % 51,1

9

Adituek sinaturiko testuak: % 5,5

Informazio-agentzietako testuak: % 7,0

10

Elikagaien Segurtasunaren arloko espezializazio eskasa

Erredaktore bakoitzak, batez beste, 2,6 testu/urte

35 kazetarik 6 testu edo gehiago sinatu dituzte urtean

Kazetariak sinatutako testuetan parte hartzen duten profesionalen kopuru handiak (362) adierazten du gai hauetan oso eskasa dela espezializazio-maila. 362 kazetari horiek 954 albiste argitaratzen dituzte, batez beste 2,6 albiste kazetari bakoitzak.

El Correok eta *El Diario Vascok* dute (batez bestekoa: 2,8 testu/erredaktore) espezializazio-maila handiena. Beste muturrean (*El País* eta *El Mundo* kenduta, horiek baitute kotarik txikiena), *Noticias de Gipuzkoa* dago (2,5 albiste/erredaktore). Testuren bat sinatu duten kazetarien % 9,7k 6 albistetan edo gehiagotan hartu du parte.

11

Aditu asko eta testu gutxi

48 adituk, batez beste, 2,1 testu egiten dituzte

Iritzi-artikuluen eta -zutabeen bidez euren ikuspuntua ematen duten adituen testuen portzentajea oso txikia da. 2014. urtean, lankidetzen kopurua (48) onargarritzat jo daiteke, aintzat hartuta 2013an baino 10 gutxiago izan direla. 2014an adituek 102 testu egin dituzte (batez beste 2,1 testu laguntzaile bakoitzak). Salbuespenen bat izan ezik, ekarpenak unean unekoak izan dira, eta ezegonkorak.

12

Informazio-agentzien zereginaren igoera neurritsua

Enpresek babestutako testuen garrantzia txikia

Albisteak argitaratzean informazio-agentziek duten garrantzia txikia den arren (% 6,9), 2013an baino % 1,4 handiagoa izan da. *EFE* eta *Europa Press* agentziek (hurrenkera horretan) dute presentzia handiena.

2014an, enpresek babestutako testuak % 0,4 baino ez dira izan. 2013an, 11 enpresak babestutako 32 testu (horietako 20 Eroskik babestuak) argitaratu ziren; 2014an, berriz, 7 testu argitaratu dira, guztiak *Eroski Consumerek* babestuak.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Autonomia-erkidegoa da Elikagaien Segurtasunari buruzko testuen geografia-esparrua (% 83,3). 2013an ia berbera izan zen kopuru hori (% 0,1 handiagoa). Bigarren lekuan, estatuko albisteak argitaratzen dira (% 13,18; iaz baino % 3,8 gehiago). Nazioarteko albisteen kopurua txikitat jo daiteke (% 2,9; 2013an baino % 3,9 gutxiago).

Euskadi: % 83,3

Estatua: % 13,8

Nazioartekoak: % 2,9

13

14

Testuen % 34,6 informazio-iturririk gabekoak

**Pertsonalak
erakundeena
aldizkari espezializatuak
elikagaien arloko
enpresak**

Garrantzitsua da nabarmentzea zenbat testu argitaratu den (645) datuen informazio-iturria aipatu gabe (argitaratutako testuen % 34,6); 2013ko kopuruaren antzekoa da (% 35,0). Horietako asko albiste laburrak eta Foto-albisteak dira: 2014an argitaratutako informazio testuen % 24,8. Oso datu garrantzitsua da, aintzat hartzen bada iturria isiltzeak irakurleari datu garrantzitsu bat ezkatzen diola eta argitaratutako testuari sinesgarritasuna kentzen diola. Iturriak aipatzen dituzten testuetatik, iturri pertsonalak dira nagusi (% 78,1). Ondoren daude erakundeak (% 17,5), babesleak (% 0,9) eta argitalpen espezializatuak (% 3,5). 2013. urteari dagokionez, gora egin dute iturri pertsonalek, erakundeena, argitalpenen eta babesleen kalterako.

Iturri pertsonalen kasuan (erabilitako iturrien % 78,1) % 71,5 erakunde publiko edo enpresa pribatu baten izenean jardun dutenen pertsonenak dira. Iturri identifikatuak dira, baina askotarikoak; izan ere, 20k baino ez du parte hartu 6 testutan edo gehiagotan. Iturri pertsonala duten albisteen % 28,4 erakunde jakinik ordeztu gabe euren izenean jarduten duten pertsonenak dira.

Erakunde publikoen edo enpresa pribatuen izenean jarduten duten iturriak: % 71,5

**Euren izenean jarduten
duten pertsonak: % 28,4**

15

16

Iturri pertsonalen % 39,3 administrazioarena da

**Gizartearen ordezkariak:
% 25,58**

**Zientzialariak eta adituak:
% 18,1**

Elikakatea: % 16,7

Erakunde publiko edo enpresa pribatu baten izenean jarduten duten 869 iturri pertsonaletatik 342 testu (hau da, % 39,3) administrazioaren edo Elikagaien Segurtasunaren arloko agentzien informazio-iturriak dira; 157 (% 18,1) zientzialarienak eta elikagaiekin lotutako gaietan adituenak; 154 testu (% 16,7) elikakateko kideenak; eta 225 (% 25,8) gizarte-erakundeena izenean jarduten duten pertsonenak.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

17

Euren izenean jarduten duten erakunde-iturrien taldean, tartean ordezkatzan dituzten bozeramailerik gabe, administrazioak (erakunde-iturriak: % 36,8) argitaratu dituzte gehien. Bigarren lekuan ditugu gobernu kanpoko erakundeak (GKEak, sindikatuak, alderdiak, elkarteak eta abar): % 18,7. Jarraian, ikerketa-zentroak eta unibertsitate zein ikastetxeak daude (% 11,4 biek). Kota txikienak ospitaleak eta osasun-zentroak dituzte (% 1,1), bai eta ELIKAK ere, 2014an ez baitzuen txertaketarik egin.

Administrazioa

Gobernu kanpoko erakundeak

Nazioarteko erakundeak

Ikerketa-zentroak

18

Elikaduraren sektoreko enpresak

Aldizkari espezializatuak: % 3,5

Elikaduraren esparruko enpresak informazio-iturri izaten dira, tartean ordezkatzan dituzten bozeramailerik gabe. 2014an, iturri horien presentzia lekukotasunezkoa baino ez da izan; 14 kasutan baino ez dira ageri (erabilitako iturri guztien % 0,9).

Argitalpenek eta aldizkari espezializatuak ere (zientzia-arlokoak zein elikaduraren ingurukoak) oso iturri interesgarriak dira, baina hedabideek ez dituzte sakon erabiltzen. 2014. urtean, 54 testuk besterik ez zituen erabili aldizkari espezializatuak iturri gisa (erabilitako iturrien % 3,5).

19

“Arrisku” hitza

Albisteen % 9,5ek aipatzen du elikagaien arriskua

2014an argitaratutako 177 albistetan (argitaratutako testuen % 9,5) erabili zuten *arrisku* hitza beren-beregi, elikagaiei dagokienez. Proporzio esanguratsua da, txikia izan arren; izan ere, ia ez da elikagai-arriskurik gertatu (Kantauriko antxoan atzemandako anisakisa izan ezik). Gainera, aintzat hartu behar da gerta daitezkeela kazetariak edo hedabideek elikagai-alertatzat jotzen ez dituzten alertak.

Alerta gutxi Gomendioak eta prebentzioa

Arrisku hitza aipatzen duten Elikagaien Segurtasunari buruzko testuen % 70,0k gomendioak ematen dizkiote irakurleari (2013an baino askoz gehiago: % 48,2). Ia ez da aldatu prebentzio-neurriak hartzen dituzten txertaketak (% 36,1), eta zertxobait behera egin dute elikagai-alertak edo krisiak biltzen dituztenek (% 20,9) Albiste horien ikuspuntuari dagokionez, % 44,6 negatiboa da, % 32,8 neutroa eta % 22,6 positiboa. Aurreko urteari dagokionez, gora egin dute ikuspegi negatiboek, eta behera positiboek.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Arriskuei buruzko 177 albiste

20

Kazetaritza-gaurkotasuna aintzat hartzen badugu, arriskuen inguruko albisteen % 50,3 (89 txertatze) azkenaldiko gaurkotasunekoak dira, % 31,1 (55 albiste) gaurkotasun iraunkorrekoak eta % 18,6 (33 testu) gaurkotasun luzatukoak. Elikagaien arriskuei buruzko albisteen % 18,6k baino ez du irauten ondoz ondoko edo aldizkako hainbat egun.

Azkenaldikoak: % 50,3

**Gaurkotasun iraunkorrekoak:
% 31,1**

**Gaurkotasun luzatukoak:
% 18,6**

21 Arriskuei buruzko albisteak

**Informazio- eta
interpretazio-albisteak: %
97,2**

Arrisku-berriei buruzko informazioen % 97,2 informazio- eta interpretazio-generokoak dira; hortaz, % 2,8 dira iritziak ematekoak. Informazioak % 61,6 dira, eta interpretazio-testuak (erreportajeak, elkarriketak eta kronikak) % 35,6.

Lehenik:

22

**“Nekazaritza, abeltzaintza
eta arrantza”**

Bigarrenik:

**“Osasuna, nutrizioa eta
alergiak”**

Hirugarrenik:

“Elikagaiak, elikadura”

Hedabideek 2014an gehien azpimarratu dituzten gaiak “Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza”-ri buruzkoak dira, batez ere azken item horretakoak, udako hiletan. Bigarren lekuan, “Osasuna, nutrizioa eta alergiak” gaiarekin lotutako testuak ditugu, eta hirugarrenean “Elikagaiak, elikadura”-rekin lotutakoak.

Aztertutako hedabideetan urte osoan testu gehien eragin duen informazio-egintza, batez ere, maiatzean gertatu da, eta Kantauriko antxoetan atzemandako anisakisa-rekin egon zen lotuta.



23

2014ko hainbat datu 2013. eta 2012. urteekin erkatuta

2014ko azterlan honetan, interes handieneko datuak erkatu dira 2013ko datuekin, eta, neurri txikiagoan, 2012koekin; izan ere, urte horri dago-kionez, erabilitako metodologiaren hainbat alderdi ezberdinak dira azken bi urteetan erabilitakoen aldean. Honako hauek dira aldaketa nagusiak:

2014an, % 3,3 egin du behera Elikagaien Segurtasunari buruzko informazioen kopuruak. Igoera hori ez da nahikoa, euskal hedabideetan gaia geldirik dagoela erakusten baitu. Kontuan izan behar da 2013an bikoiztu egin zela testuen kopurua, 2012ko testuekin erkatuz gero.

Halaber, igo egin da (% 2,6 baino ez bada ere) azalean agertzen diren testuen kopurua. Horrek berretsi egiten du aurreko ataleko ondorioa. Arlo horretan ere igoera nabarmena izan zen 2012. urteari dagokionez.

2014an, "Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza"-ri buruzko gaiak eragin zuten interes handiena, 2013an bezalaxe. 2012an, berriz, "Osasuna, nutrizioa eta alergia" gaiak izan zuten txertatze-maila handiena.

2014an eutsi egin zaio Elikagaien Segurtasunarekin lotutako informazioa jartzeko koadernotxoak erabiltzeko goranzko joerari: aztertutako testuen % 20,6 euskarri horretan agertu ziren; 2013an, % 13,7; eta 2012an, % 1,9. Gainera, koadernotxoan azalean agertzen diren testuen kopuruak 9,2 puntu egin zuen gora.

Azalean argitaratutako testuen ehunekoa, 2014an, % 6,4koa izan zen; 2013an, % 3,8koa; eta 2012an, % 0,12koa. Nolanahi ere, orrialdea irekitzekoak % 1 murriztu dira.

2014an, argazkien kopuruak oso gutxi egin du gora: 75 argazki gehiago, besterik ez. Horrez gain, infografia gutxiago erabili ziren (7 gutxiago 2014an). Hortaz, 2013. urtearekin erkatuz gero, ilustrazioen gorakada % 4,8koa da.

Gaurkotasunaren ikuspegitik, eutsi egin zaio azkenaldiko gaurkotasun testuen kopuruari (% 70,2). 2012an, kopuru hori % 69,63koa izan zen. Gaurkotasun luzatukoak % 2,9 izatera iritsi dira, baina gaurkotasun iraunkorrekoak 2,9 puntu egin dute behera.

Aurreko bi urteetan bezala, eutsi egin zaio informazio-generoen nagusitasunari (% 78,6), baina zertxobait behera egin du 2013. urtearekin (% 80,1) erkatuz gero. 2012. urtean, kazetaritza-aldagai hori % 66,21 izan zen. Halaber, zertxobait murriztu da (0,6 puntu) iritzi-testuen kopurua: interpretaziokoenak, berriz, 1,9 puntu egin du gora.

2012an, kazetariak egin eta sinaturiko testuen kopurua testu guztien % 54,02koa izan zen. 2013an, kopuru horrek behera egin zuen (% 53,1ekoa izan zen), eta 2014an % 51,1ekoa izan da. Halaber, 1,2 puntu egin zuen behera adituen testuen kopuruak. Nolanahi ere, % 1,5 igo zen informazio-agentzien parte-hartzea.



txostena: 2014 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

2014ko hainbat datu 2013. eta 2012. urteekin erkatuta

Especializazio-maila txikia da, nahiz eta azken bi urteetan zertxobait handiago den. Kazetariak egin eta sinatzen dituzten testuen bestez bestekoa 1,8 testu/kazetari zen 2012an; 2013an, berriz, 2,5 testu/kazetari, eta 2014an, 2,6 testu/kazetari.

Albisteen oinarritzko geografia-eremua Euskadi da oraindik ere (2012an, % 81,5; 2013an, % 83,2; eta 2014an, % 83,3). Estatuko eta nazioarteko albistetan, berriz, bada alderik: lehenek 3,8 puntu egin dute gora eta bigarrenek 3,9 puntu behera, 2013. urteari dagokionez.

Eutsi egin zaio informazio-iturria aipatzen duten testuen kopuruari (2012an, % 39,2; 2013an, % 25; eta 2014an, % 34,6). Horrez gain, 2014an 8,3 puntu igo dira iturri pertsonalak, baina gainerakoek behera egin dute: erakundeak % 2,5; enpresenak % 3,8 eta argitalpenak % 2.

2014an, generoaren ikuspegiaren arabera, emakumezko iturrien kopurua % 1,3 murriztu da. Ez da kopuru garrantzitsua, baina 2013an % 2,6 murriztu zen aurreko urtearekin erkatuz gero. Hortaz, joera beheranzkoa da.

Elikagaien arloari dagokionez, arrisku hitza beren-beregi aipatzen duten albisteen kopuruak behera egin du 2014an (177 albiste: % 9,5), 2013. urtearekin (195 albiste: % 10,8) erkatuz gero. 2012an, kopurua oso txikia zen: % 5,7.

2014. urtean, hedabideek "Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza"-ri buruzko gaiak nabarmendu dituzte gehien, 2013an baino zertxobait gehiago. Aurreko urtean, 2012an, arlo nabarmenduena "Osasuna, nutrizioa eta alergia" izan zen. Gai horrek, azken bi urteetan, bigarren lekua hartu du.

